



2021

Informazio
ez-finantzarioaren
egoera

- Lehendakariaren gutuna (orr.4)
- Kontseilu Errektorearen gutuna (orr.6)
- 2021eko datu nabarmenak (orr.8)

1	2	3	4
EROSKI orr. 10	"Zurekin" konprometitua dagoen negozio eredu bat orr. 30	Konpromisoa gure profesionalekiko orr. 56	Kalitatearen eta osasunaren aldeko konpromisoa orr. 84

5	6	7	8
Ingurumen jasangarritasunarekiko konpromisoa orr. 96	Konpromisoa inguru hurbilarekin orr.128	Konpromisoa gizartearekin orr. 134	Gardentasun konpromisoa orr.142

■ Erantsia (orr.172)

Lehendakariaren gutuna

102-14



Aro berri bat hasi da EROSKIren proiektua sendotu eta aurrera egiteko

2021. urtean, 2020an gertatu zen bezala, aurrez egindako planek ez dute askorik balio izan. Eta, itxura guztien arabera, 2022an ere antzera gertatuko da. Kudeatzaileen eta profesionalen trebezia behar izan da etenik gabe etorri zaizkigun aldaketei erantzuteko; askotan, gainera, zerikusi gutxi izan dute orain dela hamabi hilabete etorri zitzaizkigunekin, eta esan behar dut EROSKIk lortu duen emaitza oso ona izan dela, bai berak egin dituen lorpenengatik eta bai gizarteari eman dionagatik.

Hala da, aro baten amaierara iritsi da EROSKI, eta beste bati ekiten ari zaio. Egoera ekonomikoa sendotu egin da modu jarraituan eta azken hamarkadako emaitza gordinik onenetakoa utzi digu 2021eko ekitaldiak. Egoera finantzarioak ere bilakaera ona izan du, eta ekitaldia itxi ondoren, balantzeak erakusten du 1.000 milioi eurotik beherako zorra dugula bankuekin. Aro berri bat abiatu dugu ikusmira berriarekin eta ekiteko aukera gehiagorekin. Aro berri honetan, indartu egin nahi ditugu gure jardueraren oinarriak, eta hura garatzeko bidean sendotasunez aurrera egin.

2021: pandemia osteko normaltasunerantz

Elikadura arloko negozioarentzat, 2021ak normaltasunerantzko bidea egin du, eta gizarteak ere horixe nahi eta behar du gainera. Pandemiaren eragina hortxe egon da, baina gure salmentak puntu bat baino

gehiago hobetu ditugu 2019koen aldean. Ekitaldi honetan, elikagaien txikizkako banaketa enpresek itzuli egin diegu beste sektore batzuei 2020an hartu genien kuotaren zati bat, eta, ondorioz, merkatua murriztu egin dela egiaztatu dugu. Hala ere, sendotu egin ditugu lehendik ikusten ari ginen jardunbide eta joera batzuk, adibidez on-line kanalaren igoera edo tokiko produktuen aldeko apustua.

Baina zalantza batzuekin etorkizun hurbilerako

Ukrainan gerra hasi izanaren tragediak, European alegia, zuzenean eragingo die milaka pertsonari eta erne egon beharko dugu behar den laguntza eta babes soziala eskaintzeko. Joera inflazionistak ere hor daude -egia esan, hor zeuden gerra aurretik ere-. Horiek areagotu egingo dira, eta elikadura arloko balio katea osatzen duten guztiei eragingo die, eta, azken buruan, herriarrei ere bai. Ahalegina egin behar dugu inflazioak kontsumitzailearengan izango duen eragina arintzeko, eta horretarako, hobetu egin behar dugu gure barne-prozesuen eraginkortasuna. Baina, era berean, badugu ardura kate horretan gure aurretik dauden mailekin ere, enpresa eta ustiatzeekin hain zuzen; horiek ere pairatzen dute inflazioaren presio hori, eta modua bilatu beharko dute salmenta prezioekin asmatzeko eta beren jarduerari eusteko. Balio katean lortu beharreko orekak kontuan hartu beharko ditu jokoan dauden beharrezko guztiak, eta horien artean kontsumitzaileak dituenak, erosteko ahalmena galtzeko arriskua ikusiko duelako eta neurriak hartuko dituelako gauzak ongi egiten ez dituztenekin.

Zabalkundea erritmoa hartzen ari da

Denda berrien bidezko zabalkunde erritmoa hasia da aktiboagoa izaten: hamabost denda ireki edo handitu ditugu eta 141 berritu. Guztiak ere Espainia iparraldean, lehentasunezko jardun-eremu izendatu dugun horretan, hau da, Galiziatik Balear uharteetarainoko tarde zabalean. Eta guzti-guztietan, jasangarritasun estandar handiak erabili ditugu.

Horri gehitu behar zaio 65 frankizia berri ere zabaldu ditugula, eta horien artean hazkunde handia izan duela ultra-hurbiltasunaren formatuak, RAPID delakoak alegia. EP Corporate Group bazkide gisa erantsi zaigu Supratuc-en, eta horrek aukera ematen digu Balearretan eta Katalunian proiektuaren etorkizuna sendotzeko, eta hurrengo hilabeteetan, horrek isla izango du jardun komertzialean.

Elikadura osasungarriago eta jasangarriagorantz

2018. urtean gure ibilbide-orria ezarri genuen inguru osasungarriago eta jasangarriagoa lortzeko gure 10 Konpromisoekin. Azken hamabi hilabete hauetan baieztatu egin dugu gure bezeroen erosketa ohiturak hobetu egin direla Nutri-Score nutrizio-etiketa ezarri dugunetik. Gure produktuak nutrizioaren ikuspegitik hobetzea ezinbestekoa da ohitura osasungarriagoak sustatzeko. Horrexegatik desagerrarazi dugu palma gantza gure markako produktu guztietatik, eta esan behar dugu eredugarria izan dela elikadurako hornitzaileekin egin dugun lankidetzatza.

Ongi dakizuen bezala, osasuna babestea izan da gai nagusia azken 2 urteetan, baina horrek ez ditu ezkutatu gizartean dauden beste erronka batzuk, eta orain indarrez agertu zaizkigu horiek ere. Deskarbonizazioa adibidez, eta horren aldeko konpromisoa ere hartu du EROSKIk; izan ere, 2050. urterako, neutroa izango da karbono isurietan.

EROSKIk berariaz bat egin du gizartean dagoen eztabaidarekin eta ekimenarekin, eta Munduko Itunean partaide garen neurrian, laguntzen ari gara Garapen Jasangarriako Helburuak bete daitezen; asmo hori, gainera, gure bazkide bezeroena ere bada. Horrela bakarrik uler daiteke zer-nolako erantzuna eman diguten 2022ko Elkartasun Plana lantzeko garaian. 12.400 bezerok baino gehiagok lagundu digute aurten modu aktiboan babestu ditugun gizarte kausak aukeratzeko. Bezeroek eta EROSKIk berak egin dituzten ekarpenei esker, 13 milioi euro baino gehiago jarri ditugu hainbat gizarte kausa laguntzeko eta desberdinkeriarri aurre egiteko, gehien behar dutenei laguntza emateko eta elikagairik ez alferrik galtzeko.

EROSKiko pertsonen konpromiso izugarria

EROSKiko langileek bolada zail eta gogorra bizi izan dugu. Egoerak gehiago izan du gazitik, eta EROSKiko pertsonak erantzun osoa eman diogu gizarteari; osoa eta goxoa! Bezeroen esker ona erabatekoa izan da, eta harro sentitzen gara talde bikain honetan partaide garelako. Gure proiektu kooperatiboa indartu egin da urte hauetan, bazkide berriak bildu ditugu, eta 2.000 izango dira hurrengo bost urteetan. Espiritu bera hezurmamituko dute etorkizuneko gizarteak dituen beharrezkoen zerbitzura.

Aro berria. Lidergo berriak

Aro berri bati ekin diogu lidergo berriekin. Rosa Carabel, EROSKiko zuzendari nagusia, arduratuko da aro berria gidatzeaz, oinarriak sendotzeko eta proiektuaren asmoetan aurrera egiteko helburuz. Ez dut zalantzarik, haren zuzendaritzapean, erakundearen arimak lanean jarraituko duela enpresa proiektu kooperatibo honen misioaren eta estrategiaren zerbitzura, kontsumitzaileen osasuna eta gure ekintzen eta balio kate guztiaren jasangarritasuna hobetu daitezen.

Agustín Markaide
EROSKiko lehendakaria

EROSKIKO Kontseilu Errektorearen gutuna

102-14



Iritsi gara. Esaldi horrek esanahi asko dauka zalantza betetzeko garai hauetan. Zalantza horren sustraiak ez daude barne mailako elementuetan, kanpoko arrazoietan baizik: pandemia bat, inflazioa, Europan sortu den gerra bat... Eta zalantza horrek behartu egiten gaitu gure lehentasunak berriz pentsatzera. Gizartearen kezka eta sufrimendua ez zaizkigu arrotzak enpresei. Irtenbidearen zati aktiboak izan behar dugu.

Mondragon Korporazioak badu lelo bat, eta haren barneko kooperatibek ere geuretzat hartzen dugu: Humanity at work. Gutxitan izango zen hori gauzatzeko aukera hoberik azken bi urte hauetan baino. EROSKI egiten dugun pertsonen geure onena eman dugu gizartearen ondoan egoteko bolada honetan. Tentsioz, baina arimaz. Iritsi gara. Edo iristen ari gara, zeren adi jarraituko baitugu Ukrainako gerrak zer-nolako bilakaera izaten duen, eta lan egingo dugu maila humanoan izango dituen ondorioak arintzeko.

Beharra zuten milaka pertsonarengana iritsi gara

2021. urte honetan pertsona askorengana iritsi gara milaka ekarpen txikiren bidez. Ia magikoa da halako kapilaritate soziala lortzea: EROSKI eta haren bezeroek 435.000 mila pertsona baino gehiago lagundu ditugu 260 gizarte erakunderen bidez.

Elkartasun Zentimoak izena du magia horrek, eta guztion artean eraiki dugu. Ez hori bakarrik: 12.400 bezerok

aukeratu dute zer-nolako kausa sozialetara bideratuko ditugun gure baliabideak; izan ere, haiei era aktiboan entzuteko saiok egin ditugu 2021eko azken hiruhilekoan.

Baina, gainera, laguntza ematen dugu beste programa batzuen bidez, adibidez Zero Hondakin delakoarekin, elikagai gutxiago alferrik galtzeko, eta lankidetzan ari gara ehunka erakunderekin, besteak beste Elikagai Bankuekin, gizarte bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzeko.

Hobeto informaturiko kontsumitzailearengana iritsi gara

Kontsumoko kooperatiba garen neurrian, kontsumitzailea da gure izateko arrazoiak. Sinetsita gaude hobeto informaturik eta informaturik dagoen kontsumitzaileak erabaki hobeak hartuko dituela eta horrek on egingo diola haien osasunari. Hori gogoan genuen 2019. urtean Nutri-Score etiketa txertatu genuenean Nutrizio arloko Semaforoaren ondoan; horretan aitzindariak izan ginen Espainiako banaketa enpresa guztien artean. Uztaileko Consumer aldizkarian argitaratu genituen datuek argi azaltzen dute aukerarik osasungarrienak (A eta B) lekua irabazten ari direla letra askoko aukerak eskaintzen dituzten elikagai sailetan. Hau da, kontsumitzailearentzat onuragarria da guk ematen diogun informazioa. Horra ere iritsi gara.

Ahalegin partekatu bati esker

2021. urtea, gainera, aro berri baten hasiera izan da EROSKIrentzat. Hori pentsaezina litzateke bazkide guztien inplikaziorik gabe eta, batez ere, haien sakrifizioak, lanik eta ardurarik gabe. Hartu ditugun erabakiek aukera eman digute, gaur, Taldea eraldatzeko. Haiei esker iritsi gara.

Eta orain aurrera egitea dagokigu aro berri hau sendotzeko.

Badakigu kooperatibismoaren indarra askoren arteko elkartasunean oinarritzen dela, baina ahalegina, adorea eta norbanakoen jakintza ere behar dira. Banakako izaera bikainak, taldea egiten dutenak, eta horrek handitu egiten du indarra. Guk ere bizi izan dugu hori. EROSKIren proiektua desberdin egiten duena ez da bakarrik lider on bat izatea, lider kooperatibo on bat izatea baizik,

eta hori ere partekatu dugu. Mila esker, Agustin Markaide, enpresa egiteko modu bat partekatzeagatik, banaketa enpresa bat, baina bere asmoak etengabe moldatzen joan dena.

Ikuspegi berriarekin ekingo diogu aro berriari, Rosa Carabelekin, proiektu kooperatibo honen misioari bere horretan eusten diogula. Aurrera egiten jarraituko dugu kontsumitzaileen osasunean eta gure inguruaren jasangarritasunean, gure EROSKI proiektuan, zurekin.

Leire Mugerza

EROSKiko Kontseilu Errektoreko lehendakaria



2021ko datu nabarmenak. “Zurekin” aurrera goaz

 **5.116**
milioi euro fakturaturik

 **17**
milioi otordu baino gehiago eman
ditugu Zero Hondakin programaren
bidez

 **28.353**
Langile EROSKI Taldean

 **2.700**
produktu glutenik gabe gure
dendetan

 **4.541**
milioi banaketaren salmenta garbia

 **43.918**
tona pasa hondakin birziklatu
eta balorizatu ditugu ekonomia
zirkularraren printzipioak beteta

 **3.627**
enplegu frankizietan

 **Sariak**
Urteko Merkataritza Sariak
Sotto Tempo Advertising saria
“Salute to Excellence Awards” sariak

 **1.646**
saltoki

 **9.803**
hornitzaile

 **%74**
emakumezko erantzukizuneko
postuetan daudenak

 **22.906**
analisi produktuei eta ikuskaritza
dendei, plataformei eta
hornitzaileen lantegiei eginak

 **77**
irekiera berri

 **2.152**
ekoizle txiki tokian-tokia

 **550.093**
kontsultari erantzun die gure Bezeroari
Erantzuteko Zerbitzua

 **126.839**
ikasleri eman diegu heziketa gure
Elikadurari eta Ohitura Osasungarri
buruzko Heziketa Programaren
bitarte

 **+6**
milioi Bazkide-Bezero baino gehiago

 **1.797**
erreferentzia tokian tokiko produktuen

 **152.000**
bazkide-bezerok parte hartu dute beren
ideiekin gure eskaintza komertziala eta
gure dendak hobetzeko

 **%100**
gure marka propioak dituen
Nutri-Score A, B edo C balorazioen
ehunekoa





EROSKI gara

102-1; 102-2; 102-5; 102-7

50 urtetik gorako historia du EROSKI. Kontsumo arloko zazpi kooperatiba txiki batu zirenean sortu zen, helburu honekin: kalitatezko produktuak merke eskaintzea eta kontsumitzaileen eskubideak defendatzea.

Tinko hazi gara asmo horretan, eta gaur egun, kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituzten taldeak kontuan hartuta, lehenak gara Espainian kooperatiba izaerakoan artean. Erreferentziakoak gara Galizian, Euskadin, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Gure sare komertzialak 1.600 establezimendu baino gehiago ditu egun, 6 milioi Bazkide Bezero baino gehiago eta 28.000 langile baino gehiago.

Gure helburu sozialak eta gure negozioaren ezaugarriek bultzaturik, lehentasuna ematen diogu kalitateari, eta gure bezeroei zerbitzurik onena eman nahi diegu gure enpresa ereduari. Lanean ari gara tokiko produktua indartzeko, elikagai osasungarriak prezio onean eskaintzeko, eta gizarte erantzukizunarekin eta garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa gauzatzeko jarduten dugun komunitateetan.

Helburu horretan aurrera egin nahian, 2021. urtean aro berri bati ekin genion eta Plan Estrategikoa 2021-2024 landu genuen, non aurreikusten den 2.000 bazkide berri gehituko zaizkiola kooperatibari eta 300 denda berri irekiko ditugula. Hazten ari gara gure bazkideen zerbitzura jarraitzeko eta, oro har, gizarte osoaren zerbitzura, eta helburua da aldatzen ari diren beharrezko erantzutea eta erraztasunak ematea inguru gero eta aldakor batera egokitzeko.

EROSKI, Koop. E. gure sozietate nagusiaren kooperatiba-izaerak hiru oin ezartzen dizkio gure jarduerari, hiru gauza baikara aldi berean:

- Banaketa enpresa.
- Kontsumitzaileen elkarte.
- Proiektu kooperatiboa.

Kooperatibaren egiturari, bi eratoko bazkide komunitateak ditugu. Alde batetik, kontsumoko bazkideak daude, eta bestetik, laneko bazkideak. Bi komunitateak lankidetzan ari dira gure jomugak eta helburu soziala lortzeko, eta elkarrekin parte hartzen dute erakundearen gobernuan eta kudeaketan dagokien organo sozialen bidez.

199

milioi igarodai ordainlekuak

5.116

milioi euro fakturaturik

4.541

milioi salmenta garbieten

Kontsumoko Bazkideak:

1.329.562

Pertsona kontsumitzaileak dira, kooperatiban inplikatzera erabakitzen dutena

18.586

gehiago 2020arekin alderatuta

Laneko Bazkideak

9.058


Kapitala eta lana jartzen duten pertsonak, erakundearekiko konpromiso gisa

629

gehiago 2019arekin alderatuta

Gure gobernantza ereduak eta erabakiak hartzeko moduak esan nahi du kooperatibak eta haren mendeko beste 22 sozietateek kudeatzen dutela sare komertziala; EROSKI Taldea osatzen dute horiek, eta berak kontsolidatzen dira taldearen finantza egoeretan. 2021ean bukatu egin dugu bazkide bat bilatzeko prozesua Katalunian eta Balearretan dugun negoziarako. Hitzarmena egin dugu EP Corporate Group holding inbertitzailearekin, zeina bazkide parekide gisa sartuko den SUPRATUC 2020 S.L. sozietatean EP Bidco sozietatearen bidez, eta horri esker, zor finkoa amortizatze konpromisoa bete ahal izan dugu ekitaldi honetarako. Hitzarmenean, kudeaketa eta garapen plan bat adostu dute bi aldeek, eta horrek aukera emango du EROSKI Taldea Kataluniako eta Balearretako merkatuetan sendotu dadin, posizio komertziala indartu dezan eta errentagarritasuna hobetu.

EROSKI Taldearen 22 sozietateen organigrama eta EROSKI, Koop. E.- en duten partaidetza, ehunekoetan emana, 2021ko ekitaldia bukatzean



EROSKI kultura

102-16

EROSKI kulturak gidatzen ditu gure ekintzak, erantzukizuna eta zintotasuna oinarri hartuta beti, interesa duten alde guztien itxaropenak betetzeko.

Misioa

Kontsumo handiko produktuak eta zerbitzuak banatzen dituen talde bat gara, kooperatiba gisa eratu, eta gure bereizgarriak honako hauek izatea nahi genuke:

- Bezeroa barneratzea, entzutea eta bikain erantzutea.
- Osatzen duten pertsonen konpromiso eta inplikazio handia.
- Denda atseginak izatea, osasungarriak eta etengabe berritzen ari direnak.
- Lortzen ditugun etekinekin aberastasun gehiago sortzea eta aberastasun hori elkartasunez banatzea.
- Estrategian konpromiso sendo bat txertatzea kontsumitzaileen osasunaren eta ongizatearen alde eta gizartearen garapen jasangarriaren alde.

Konpromisozko kultura bat erronka berrien aurrean

102-12

Erronka handiak ditugu komunitate gisa, eta gure kulturak gizartearen ondoan egotera garamatza eta konpromiso horretan tinko jarraitzera. Aurrera jarraitzen dugu Osasunaren eta Jasangarritasunaren 10 Konpromisoetan, eta lanean ari gara inguruan sortzen diren eskakizun berrietara egokitzeko.

lido horretan, 2021. urtean ere bete-betean nabaritu da COVID-19aren pandemiak eragin duen osasun krisia eta on-

Bisioa

Kontsumitzaileen dendarik gogokoena izatea erosketak egiteko.

Balioak

- **Kooperazioa:** jabe eta protagonista
- **Parte-hartzea:** konpromisoa kudeaketan
- **Berrikuntza:** berrikuntza etengabea
- **Gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna:** aberastasunaren banaketa solidarioa eta inguruarekin inplikatzeara
- **Konpromisoa:** Bazkide Bezeroarekin eta kontsumitzailearekin konprometitua

doren etorri den krisi sozioekonomikoa. Testuinguru berri horrek indartu egin ditu lehendik mantso-mantso pisua hartzen ari ziren joera batzuk, adibidez zerbitzuen digitalizazioa eta osasun gaiak sortzen duten kezka, eta horrek, aldi berean, berekin ekarri du produktu freskoak eta tokikoak gehiago kontsumitzea. Joera horiek agerian uzten dute jarraitu egin behar dela garapen jasangarriaren gaia lantzen konpromisotik eta ikuspegi proaktibotik.

Garapen jasangarriaren aldeko ekarpena eta konpromisoa

EROSKIn, sortu ginenetik 50 urte honetan, kalitatezko elikaduraren alde jardun gara, eta etengabe ligo ditugu geure buruari jartzen genizkion eskakizunak produktu jasangarriago bat eskaintzeko eta hala gure kontsumitzaileen premiak betetzeko

Egungo testuinguruan, gure jardueraren eragina globala da, ez tokikoa bakarrik, eta horrexegatik, nazioartean garapen jasangarria sustatzen duten helburu eta ekimenen alde jarri dugu konpainia gisa dugun konpromisoa.

Nazioarteko zein ekimenetara atxikita gauden

1. EB-ren Jokabide Kodea, Enpresa eta Merkaturatze Arduratsuei buruzko Jardunbideak arautzen dituen Elikadura Arloan

2021ean bat egin genuen elikagaien negozio arduratsuei eta merketin jardunbideei buruzko Jokabide Kode horrekin, zeina Europako Batasunaren "Etxaldetik Mahaira" estrategiaren barnean onartua dagoen. Kode horren bidez, EB-k ahalegina egin nahi du elikagai osasungarri eta jasangarriak eskurago egon daitezen eta eskuragarriagoak izan daitezen.

EB-ren Jokabide Kodearen helburu partekatuak

1. Dieta osasungarriak, orekatuak eta jasangarriak Europako kontsumitzaile guztientzat.

2. Elikagai galeraren prebentzioa eta murrizketa.

3. Elikadura kate klimatikoki neutroa Europan 2050erako.

4. Elikadura kate optimizatu, zirkularra eta baliabideekin eraginkorra Europan.

5. Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu eta lan duina guztientzat.

6. Elikagaien hornidura-katean balio jasangarria sortzeko kooperazioa.

7. Hornidura jasangarria elikagaien hornidura-katearen barnean.

Osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko 10 konpromisoetan aurrera egingo dugu

Espiritu horrekin berarekin, eta sortzetik beretik geure buruari jarri genion asmoari jarraituz, modu integrarean txertatzen ditugu garapen jasangarriko printzipio horiek gure erakunde, eta gure plan estrategikokoak eta kudeaketa planak bideratu egiten ditugu eragin kaltegarriak murriztera eta onuragarriak sustatzera. Horregatik, 2018. Urtean EROSKIn

10 Konpromisoak landu genituen Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde, 8.000 pertsonarekin baino gehiagorekin lankidetzan, eta horiek dira gure iparra eta gure ibilbide orria kontsumitzaileen eta gizartearen eskari eta itxaropenei egoki erantzuteko; 2019an, CAPRABOk ere bat egin zuen konpromiso horiekin.

I 10 Konpromiso Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde

Konpromisoak Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde	Aurrerapen aipagarriak	GJH	EB-ren Jokabide Kodearen helburu partekatutak
1 Elikagaien segurtasunean inplikatzeko gara Konpromisoa dugu elikadura arloko segurtasunarekin, eta prebentziozko kalitate plan bat egiten dugu horretarako, kontrolatu egiten dugu produktuen trazabilitatea eta elikagai freskoen hotz katea.	■ 22.906 kontrol analitiko produktuei eta zerbitzuei. ■ 343 ikuskapen. ■ 938 ikuskapen salitokiei.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 8 LANBIDEA ETA LANBIDEAREN 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 4. Balio kate eraginkorra eta zirkularra
2 Elikadura orekatua sustatzen dugu Sustatu egiten dugu modu orekatuan elikatzeko behar ditugun elikagaien kontsumoa, murritu egiten ditugu gehiegizko kopuruetan osasunari kalte egiten dioten mantenugaiak eta hobetu egiten dugu gantz saturatuen kalitatea.	■ 308 produktu birformulatu ditugu gure markakoen artean, horien. ■ %100 desagerraraztea palma gantz gure markatik.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 4 KALIBRATZIOA 8 LANBIDEA ETA LANBIDEAREN 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 4. Balio kate eraginkorra eta zirkularra 7. Hornidura jasangarria
3 Haurren gizentasunari aurrea hartzen diogu Lanean ari gara haurren gizentasunari aurrea hartzeko, eta elikadura orekatua sustatzen dugu haurtzarorako, lehenetsuna ematen diogu haurtzaroko gure produktuen nutrizio kalitateari, eta bi milioi haur eta haien familiak trebatuko ditugu bizi ohitura osasungarrietan 2025erako.	■ 126.839 ikasleri eta haien familiei eman diegu heziketa 2021an Elikadurari eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programaren bitartez.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 6. Kooperazioa
4 Beharrei erantzuten diegu Nutrizio espezifikoak Behar espezifikoak dituzten pertsonen gure dendetan elikatzeko behar duten guztia aurki dezaten lan egiten dugu, eskaintzaren aniztasuna handituz eta gure enkargu-zerbitzua edo online denda bezalako alternatibak eskainiz.	■ 2.700 produktu dira glutenik gabeak gure dendetan, eta 550 baino gehiago gure markakoak. ■ Euskadiko, Nafarroako, Kataluniako eta Erioxako zeliakoen elkarreketako 2.200 bazkidek baino gehiagok eskuratu dituzte %20ko deskontuak glutenik gabeko 200 produktu espezifikotan.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 6. Kooperazioa
5 Kontsumo arduratsua bultzatzen dugu Elikadura jasangarria errazten dugu, gure prozesu, denda eta produktuen ingurumen-irratia murrituz. Gainera, produktu ekologikoak eta ekoizpen-prozesu iraunkoragoetatik datozenak sustatzen ditugu, bai eta gehigarri artifizialen murritzeta eta animalien ongizatea ere.	■ %18 murritu ditugu CO₂ isuriak 2020arekin alderatuta. ■ 73 ontzi eta bilgari baino gehiago ekoizten ditugu. ■ 17 milioi otordu baino gehiago eman dizkiegu gizarte erakundeei Zero Hondakin programaren bid.	1 POPULAZIOA 2 OSASUNA 3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 4 KALIBRATZIOA 5 GIZARTIA 6 OSASUNA 7 OSASUNA 8 LANBIDEA ETA LANBIDEAREN 9 OSASUNA 10 OSASUNA 11 OSASUNA 12 OSASUNA 13 OSASUNA 14 OSASUNA 15 OSASUNA 16 OSASUNA 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 2. Elikagaiak alferrik ez gaitzea 3. Neutralidad climática de la cadena de valor 4. Balio kate eraginkorra eta zirkularra 6. Kooperazioa 7. Hornidura jasangarria

Konpromisoak Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde	Aurrerapen aipagarriak	GJH	EB-ren Jokabide Kodearen helburu partekatutak
6 Tokiko produktu gehiago eskaintzen ditugu Gure denden ingurune sozial eta ekonomikoa garatzen laguntzen dugu, eta kultura eta tokiko garapena sustatzen ditugu komunitatean, ekitaldi gastronomikoen bidez, produkzio-instalazioetara bisitatuz eta sustrai eta tradizio handieneko jaietan lagunduz.	■ 1.797 produktu berri tokian-tokian ekoiztuz tokiko ekoizle txikiak lankidetzan. ■ 13 milioi euro baino gehiago bideratu ditugu gizarte ekintzetara jarduten dugun inguruetan. ■ Elkartasun Zentimok programa berriak milioi bat euro baino gehiago bildu ditu.	10 OSASUNA 12 OSASUNA 13 OSASUNA 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	3. Neutralidad climática de la cadena de valor 4. Balio kate eraginkorra eta zirkularra 5. Hazkunde ekonomikoa 6. Kooperazioa 7. Hornidura jasangarria
7 Ongi eta merke jatea errazten dugu Prezioak hobetu egin ditugu modu orekatu eta arduratsuan elikatzeko beharrezkoak diren produktuetan, eta aurrezteko proposamen pertsonalizatuak egiten dizkiegu gure Bazkide Bezeroei.	■ 347 milioi euro transferitu dizkiegu aurrezki gisa bezeroei, eskaintzen, sustapenen eta beste kanpaina batzuen bidez.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 8 LANBIDEA ETA LANBIDEAREN 12 OSASUNA 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak
8 Entzun egiten dugu, eta garbi eta garden jokatzen dugu Modu garbi eta gardenean jokatzen dugu, eta parte hartzeko bideak irekitzen dizkiegu Bazkideei langileei eta Bazkide bezeroei, eta baita intereseko beste talde batzuei ere. Gainera, ahal den argiena eta gardenena izaten saiatzen gara ontzietan ematen den informazioan.	■ 152.000 Bazkide Bezeroak parte hartu dute entzute saioetan. ■ Gure markako produktuen %100ek daukate Nutri-Score nutrizio etiketa aurreratu dendetan, 1.700ek baino gehiagok berezko ontzian. ■ 2022ko Elkartasun Plana, 12.400 pertsonaren eta 289 gizarte erakunderen ekarpenak entzunda.	16 BAZKIDE BEZEROAK	1. Dieta osasungarriak 6. Kooperazioa
9 Geure burua zaintzen dugu langile garen aldetik Osasunaren, ongizatearen eta kontsumo arduratsuen arloko prestakuntza sustatzen dugu, xede jakin batekin: gure langileen bizi kalitatea hobetzea, prestakuntza eskainiz haiei eta haien familiei, baita aholkularitza, jarduerak, programak eta tresnak ere.	■ EROSKIko 457 langilek parte hartu dute elikadura orekatuari eta osasunari buruz eman ditugun formazioetan. ■ 176.297 formazio ordu eman dizkiegu guztira langileei.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 5 GIZARTIA 8 LANBIDEA ETA LANBIDEAREN 12 OSASUNA 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	5. Hazkunde ekonomikoa
10 Bizimodu osasungarriagoa bultzatzen dugu Osasunaren eta jasangarritasunaren gaitzeko kalitatezko informazioa bultzatzen dugu zenbait kanalen bitartez, hala nola CONSUMER EROSKI aldizkaria eta www.consumer.es webgunea. Horretaz gain, aholkularitza programa pertsonalizatua eskaintzen diegu EROSKI clubeko Bazkideei.	■ 50 milioi bisita www.consumer.es webgunean. ■ 38.000 Bazkide Bezeroak baino gehiagok parte hartu dute modu aktiboan elikadura osasungarriarekin zerikusia duten erronketan. ■ 29.000 Bazkide Bezeroak baino gehiagok jaso dituzte Eklilibria programako txostenak hilerak.	3 OSASUNA ETA OSASUNAREN 4 KALIBRATZIOA 12 OSASUNA 17 HELBURUAK LANTZARTEAN	1. Dieta osasungarriak 6. Kooperazioa

Gobernu korporatiboa

102-16

EROSKIn Kontseilu Errektoreak hartzen ditu konpainiari dagozkion erabakiak, eta Zuzendaritza Kontseiluak ere bai, lehenbizikoak haren gain uzten dituen arloetan. Gure gobernantza ereduaren ezaugarria da egitura oso ongi zehaztua eta berezia duela erabakiak hartzeko, eta bermatu egiten du kudeaketa eraginkorra izango dela, alde guztiak koordinatuta baitaude.

Taldea osatzen duten sozietate guztiek bete egiten dituzte EROSKI Koop. E-en Gobernu Korporatiboak ezartzen dituen jarraibideak.

Estatutu Sozialek (2020ko uztaillean eguneratu eta onartu ziren) biltzen dute zer-nolako bateraezintasunak dauden Kontseilu Errektorearen eta Zuzendaritza Kontseiluaren artean besteak beste, eta webgune korporatiboan ikus daitezke (<https://www.eroski.es/gobierno-corporativo>). 2020an berritu egin zen Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza Kontseilu berria izendatu zen. Bi horiek indarrean jarraitu dute 2021ean.

Kontseilu Errektorea

Kideak		Vocales	
	Leire Mugerza Gárate Bazkide Kontsumitzailea (independentea) Lehendakaria		Oskar Goitia Zubizarreta Bazkide Kontsumitzailea (independentea)
	Nerea Esturo Altube Bazkide Langilea		Javier Pascual Sánchez Bazkide Langilea
	Iñigo Arias Ajarrista Bazkide Langilea Lehendakariordea		Lander Beloki Mendizabal Bazkide Kontsumitzailea (independentea)
	Mª Carmen Iñurria Landeras Bazkide Kontsumitzailea (independentea)		Ana Isabel Zariquiegui Asiain Bazkide Langilea
	Sonia Ortubai Balanzategui Bazkide Kontsumitzailea (independentea) Idazkaria		Edorta Juaristi Altuna Bazkide Langilea
	Mª Asunción Bastida Sagarazu Bazkide Langilea		Eduardo Herce Susperregui Bazkide Kontsumitzailea (independentea)


Zuzendaritza Batzordea



Gobernu Egitura

Kontseilu Errektoreari dagokio jasangarritasunaren arloan erabaki estrategikoak hartzea eta onartzea, Batzar Nagusiak ezartzen dituen politika orokorrak oinarritzat hartuta, eta Zuzendaritza Kontseiluaren esku uzten ditu egoki ikusten diren funtzioak.

Gainera, organo kolegiatu gisa barnean sortuta dauden batzordeak honako hauek dira: Auditoretza eta Betetze Batzordea, zeinak gainbegiratu egiten dituen barne kontrolaren eraginkortasuna, arriskua kudeatzeko sistemak eta gobernu korporatiboaren politikak eta horien bete maila; Izendapen eta Ordainsarien Batzordea, zeina arduratzen den interes gatazkak eragozteaz eta kontuan hartzen ditu genero aniztasunaren inguruko gaiak; eta Batzorde Beteazalea.



VEGALSA-EROSKIren gobernu egitura

Vegonsa Agrupación Alimentaria, S.A. (VEGALSA) sozietatean %50eko partaidetza du EROSKI, eta horregatik, gobernu eredu korporatibo desberdina dauka gai batzuetan. EROSKI Taldeko kidea da 1998az geroztik eta banaketa komertzialaren erreferentzia da Galizian. Harekin mugakide diren bi erkidegotan ere jarduten du gaur egun, Asturiasen eta Gaztela eta Leonen. Sendo errotuta dago lurralde horietan, eta beste izen batzuekin ere baditu saltokiak EROSKIz gain, adibidez FAMILIA eta ONDA.

EROSKI Taldearen gobernantza onaren eredu darabil VEGALSA-EROSKI ere, baina baditu berezko ardura eta eskumen batzuk ere, Taldearekin adostuak eta bere kudeaketa organoen bidez lantzen dituenak:

Administrazio Kontseilua VEGALSA-EROSKI-k erabakiak hartzeko duen organo gorena
Osaera 4 kide - Javier Amezaga. Presidentea - Rosa Carabel. Bokala - Jorge González. Bokala - José Alonso. Bokala
Funtzionamendua Hilero biltzen da ohiko deialdi bidez.
Eskumenak - Establezimendu komertzialak irekitzeari, itxeari eta lekuz aldatzeari buruzko erabakiak baimentzea. - Inbertsio garrantzitsuak baimentzea. - Zuzendaritza taldean aldaketak onartzea. - Kudeaketa Planeko jarraibideak ezartzea. - Urteko aurrekontu ekonomikoa lantzea

Zuzendaritza Batzordea VEGALSA-EROSKIren kudeaketaz arduratzen den organoa.
Osaera 16 kide
Funtzionamendua Hilero biltzen da ohiko deialdi bidez.
Eskumenak - Administrazio Kontseiluak haren esku uzten dituen gaiak. - Plan estrategikoak eta kudeaketaren gainekoak prestatzea. - Exekuzio planak onartzea eta garatzea. - Ekintzen jarraipena eta kontrola egitea. - Erakundearen kultura kooperatiboari bultzada ematea.

SUPRATUC2020 S.L-ren gobernu egitura

SUPRATUC2020 S.L sozietatean %50eko partaidetza dute EROSKI NEWCOBECO S.L.U-k eta EP BidCo, A.S-k. Hori dela eta, gobernu korporatiboaren eredu desberdina da zenbait alderditan. EP Talde Korporatiboak, Global Commerce EP-k eta Equity Investment EP-k (kapital inbertsioa) inbertsio dibertsifikatuen zorro zabal bat dute, gutxi gorabehera 17 bilioi euroren balio enpresarialekoa.

SUPRATUC2020 S.L-k %100eko partaidetza du honako sozietate hauekin: CECOSA Supermercados S.L, zeinak Balearretan diharduen, eta CAPRABO S.A, zeinak nagusiki Katalunian diharduen.

EROSKI Taldearen gobernantza onaren eredu darabil SUPRATUC2020 S.L-k ere, baina baditu berezko ardura eta eskumen batzuk ere, Taldearekin adostuak eta bere kudeaketa organoen bidez lantzen dituenak:

Administrazio Kontseilua SUPRATUC2020 S.L.-k erabakiak hartzeko duen organo gorena.
Osaera 4 kide - Javier Amezaga. Presidentea - Rosa Carabel. Bokala - Marco Arcelli. Idazkaria - Roman Silha. Bokala
Funtzionamendua Hilero biltzen da ohiko deialdi bidez.
Eskumenak - Establezimendu komertzialak irekitzeari, itxeari eta lekuz aldatzeari buruzko erabakiak baimentzea. - Inbertsio garrantzitsuak baimentzea. - Zuzendaritza taldean aldaketak onartzea. - Kudeaketa Planeko jarraibideak ezartzea. - Urteko aurrekontu ekonomikoa lantzea.

Zuzendaritza bat dator EROSKI Taldeak duenarekin, eta koordinazioan aritzen da CAPRABO S.A.-ko eta CECOSA Supermercados S.L.-ko zuzendari nagusiekin. Era berean, SUPRATUC2020 S.L.-k Finantza Zuzendaritza espezifikoa dauka.

2021eko ekitaldiaren bukaeran, bere kode etikoa zehazten ari zen SUPRATUC2020, eta 2022an prest egongo da.

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa

102-11 102-16

Konpromisoa dugu gure jarduerak modu etiko eta arduratsuan kudeatzeko. Horretarako, gure araudiak ezartzen du zein diren zuzemen arauen mekanismo egokiak gure jarduerak legearen barnean gauzatu daitezen eta printzipio etikoekin eta gizarte erantzukizunarekin bat egin dezaten.

Jardunbide arduratsua eta kudeaketa mekanismoak

Gure kulturarekin bat eginez, eta printzipio etikoetan oinarritzen den kudeaketa moduarekin dugun konpromisoaren barnean, bete beharreko erreferentziazko marko bat ezartzen da EROSKI osatzen duten pertsona guztientzat edo gurekin harremanetan daudenentzat.

Marko horretan, gure Jokabide Kodeak agintzen du, zeina 2011. urtean onartu zen lehenik eta 2018ko martxoan berriz, berrikusi ondoren; horren helburua da EROSKlren jarduerak eta harremanak zintzotasunez eta modu etikoan egingo direla bermatzea. Era berean, identifikatu egiten ditu printzipio eta konpromiso nagusiak eta agerian uzten du zein den erakundearen zuzemen arau egokia etikaren eta integritatearen arloan jokabide irregularrak prebenitu, antzeman eta desagerrarazteko.

Ezinbestean, giza eskubideak errespetatzeko jarrera ere barne hartzen du gure konpromisoak, gure jarduera guztietan gainera, nazioarteko araudiak eta neurriak oinarri hartuta, eta horrek bat egiten du askatasun publikoen errespetuarekin eta unean-unean indarrean dagoen legedia zorrotz betetzeko nahiarekin.

Hori dela eta, EROSKIIn aitortu egiten dugu Giza Eskubideen Nazioarteko Itunaren eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenen garrantzia eta eredutzat hartzen ditugu laneko jardunbideetan, eta ez ditugu onartzen hitzarmen horien aurka doazen jardunbideak. Gure hornitzaileetara ere zabaltzen da konpromiso hori eta, oro har, enpresa kolaboratzaileetara ere bai.

Bestalde, Jokabide Kodearen berri eman zaie gure langile, bazkide eta hornitzaileei, eta, beraz, jabetuta daude zer-nolako konpromisoen arabera jokatu behar duten. Horretaz gain, Salaketa kanal bat ere badaukagu gure printzipio etikoen eta bete beharreko araudien aurkako jokabideetarako. Horren funtzionamendua arautzen duen araudia 2011. urtean onartu zen lehen aldiz, eta 2018ko martxoan berriz, berrikusi ondoren.

Kode Etikoa

Gure balioekin koherentzian, 2003ko maiatzean zehaztu genuen gure Kode Etikoa eta 2021eko otsailean berrikusi genuen. Haren bidez, konpromiso hauek hartu ditugu:

Gure kulturak aukera ematen digu maila guztietan modu estrategikoan lerrokatzeko gure jokabideen printzipioak, zeinak gure politika nagusietan bilduta dauden, eta gure jokamolde arduratsuan.

- Lan eta kooperatiba arloan indarrean dagoen legedia eta araudia betetzea, baita taldeak onartzen dituen konpromiso guztiak ere.

- Kudeaketa Sistema Etiko eraginkor bat ezartzea eta mantentzea, erakundeko kudeaketaren elementu integratzaile eta dinamizatzailea izan dadin.

- Hobekuntza jarraitua erakundearen jokabide etikoan.

- EROSKI taldearen proiektua eta haren ingurua osatzen duten pertsona guztien artean Gizarte Erantzukizuneko kultura bat lantzea.

- Nazioartean onartuta dauden Giza Eskubideak babestea eta errespetatzea.

Horiek dira eguneroko kudeaketaren ardatzak, eta praktikan honako lerro hauei jarraitzen die:

- Zuzendaritzaren helburu nagusien artean kudeaketa etikoa txertatzea.

- Bere gain hartzea eta laguntzea legerian jasotako gizarte erantzukizuneko mailak etengabe hobetzen.

- Adierazleen bitartez erakundearen jarrera etikoa egiaztatzea, alderdi hori hobetzeko premia duten jarduera eremuak zehazteko.

- Kudeaketa etikoaren aldetik hobekuntza helburuak finkatzea eta horiek lortzeko planak egitea edo hartzea.

- Kudeaketa sistemaren aplikazioan inplikaturik dauden pertsona guztiak behar bezala formatzea eta informatzea eta gizarte erantzukizunera begira jardunbide onak hartuko direla sustatzea.

- Hornitzaileak eta azpikonttratatuak Kode Etikoa buruz behar bezala informatzea eta gizarte erantzukizunari buruz jakintza transferitzeko mekanismoak sortzea.

- Gure portaera sozialaz galdetzen diguten eta kanpokoak diren alde interesdunei kasu egitea (kontsumitzaileak, etxejabe elkarteak, Administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, etab.)

- Gure Kode Etikoa, haren arauak eta helburuen betetze maila era irekian eta efikazean jakinaraztea gizarteari.

Ustelkeriaren eta interes gatazken aurkako borroka

205-1

EROSKIIn beharrezko diren mekanismoak ditugu gure printzipio etikoekin eta arautzaileekin bat ez datozen jokabideei aurre hartu eta horiek kudeatzeko.

Hori dela eta, lanean ari gara eta beharrezko bitartekoak jartzen ditugu gure printzipioekin bat egiten ez duten jarduerak eragozteko; legea zorrotz errespetatzen dugu gure jardunean eta baztertu egiten ditugu interes gatazken eragile izan litezkeen ekintzak. Era berean, zigorei dagokienez, EROSKI Koop. E.-en Barne Erregimeneko Araudia dugu, Talde osoari aplikagarri zaiona.

Bestalde, zehazki ustelkeriaren eta kapital zuritzearen aurkako borrokan, Compliance Politika eta Ustelkeriaren aurkako Politika betearaziz gauzatzen ditugu gure ekintzak (2018ko abenduan onartu genuen Ustelkeriaren aurkakoa).

Era berean, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko planak zehazten ditu prebentziozko politikaren nondik norakoak eta barne kontrolerako neurriak. Alde horretatik, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko Eskuliburua landu da (2017ko urrian onartu zen), honako alderdi hauekin:

- Taldeak noiz edo noiz izan ditzakeen arrisku egoerak zerrendatzea.

- Delitu arriskua izan dezaketen operazioetako jarduera protokoloa ezartzea.

- Delituei aurre hartzeko politika efikaz baten diseinurako beharrezkoak diren gomendioak formulatzea, non berebat definitzen baitira Taldeak zer-nolako ordezkaritza-eta kontrol-eredua izango duen honako alderdi hauei dagokienez: gorabeheren jakinarazpenak, neurrien ezarpena edo lehendik dauden hobekuntza, eta Administrazio Kontseiluarentzako delituzkoak diren jarrearen jakinarazpena.

Horrekin batean, kapital zuritzeari eta jarduera terroristari aurre hartzeko garaian, honako ekinaldi hauek egin dira 2021ean:

1. Eskuliburuaren bertsio berria lantzea, 2022an onartuko dena.

2. Dibertsifikatze negozioetan kapital zuritzeak eragozteko politikei jarraipena egitea.

3. Salaketa kanalaren araudia eguneratzea *whistleblowing* zuzentarauari dagokionez. Salaketa kanal eguneratua 2022an banatuko da.

4. Ikuskaritzak egiten jarraitzea frankizien negozioetan.

5. Kapital zuritzeen prebentzio protokoloa prestatzea Eran Fundazioan; 2022an onartuko da.

6. 2021. urteko Memoria lantzea, zeina 2022an onartu behar den.

7. Ezarrita dauden euskarriak mantentzea alderdi hauetan: gai bakoitzaren egiazko jabetza egoki kudeatzea (egiazko jabetza akta); negozio harremanak identifikatzea; bezeroen negozioari buruzko informazioa ematea, haren negozioaren jarraipenari buruzkoa, kanpo utzitako eragiketei buruzkoa; eragiketa susmagarrien azterketa fitxa egitea, alerta zerrenda eta bezeroen arrisku fitxa.

8. Kapital zuritzeen prebentzio ikuskaritza egitea VEGALSA-EROSKIIn.

Arriskuak kudeatzea

102-15; 102-29; 102-30; 102-31

Arriskuen kudeaketa funtsezkoa da EROSKI Taldean, eta bermatu egin nahi du ezarritako helburuak lortuko direla negozioaren maila guztietan; identifikatu egiten ditu helburu horiek lortzeko traba izan daitezkeen faktoreak eta, behar denean, mekanismo egokiak ezartzen ditu kontrako eraginak gutxitzeko.

Gure metodologia COSO txostenean oinarritzen da; Committee of Sponsoring Organizations of the Treadway Commission delakoak argitaratua da metodo hori eta oso onartua dago maila globalean, eta marko orokor bat ezartzen du arriskuak modu integralean administratzeko.

EROSKI Taldean araudia betetzeko markoa kode eta politika korporatiboek eta gainerako prozedurek osatzen dute, eta behar diren jarraibideak ezartzen ditu gure jarduerak berezko dituen arriskuak murrizteko eta horien eraginak arintzeko.

Arlo ekonomikoari, sozialari eta ingurumenari dagozkien inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu, ebaluatu eta kudeatzeko zeregina gure Auditoretza eta Betetze Batzordearena da nagusiki, eta zigor arriskuak daudenean, Barne Kontrolerako Organoarena 2021eko uztaila arte, eta egun horretatik aurrera, Araudia Betearazteko Batzordearena (CCN). Organo betearazle berri horrek bere gain hartu ditu, zigor arloan bete beharreko eskumenez gain, baita beste gai hauek ere: kapital zuritzeak, datuen babesa, jazarpena eta berdintasuna, eta salaketa kanala. Arlo protokolizatuak eta etorkizunean landu daitezkeen beste programa batzuk osorik betearazteko eratu da Batzorde hori.

Horien ardura da komeni denean Kontseilu Errekoteari

informazioa helaraztea, eta organo horrek zaintzen du erakundea mehatxatu dezaketen arrisku guztien kudeaketari dagozkion barne arauak egoki betetzen direla. Kontseilu Errektorea da arriskuak kudeatze- ko ardura duen azken organo betearazlea.

Auditoretza eta Betetze Batzordearen ardura da arriskuak kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna gainbegiratzea, zeinak aztertu egiten dituen barne kontrolerako sistemaren ahultasun nabarmenak eta zaindu egiten duen arrisku politiken eraginkortasuna, eta, era berean, erakundearen arrisku mapak landu eta berrikusten ditu.

Compliance penal arloko betebeharrak betetzeko ardura Araudia Betearazteko Batzordearena da (CCNN), zeina Auditoretza eta Betetze Batzordearen mende baitago. CCN-ren ardura da arrisku penalen prebentzioa eta kontrola egiteko neurriak lantzea, ezartzea, gauzatzea eta jarraipena egitea. Gainera, Betetze Bulegoaren bidez, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko Plana kudeatu eta betearazteaz arduratzen da.

Plan horrek identifikatu egiten ditu gure jardueretan gertagarrienak diren delituak. Identifikatu den arrisku potentzial bakoitzari dagozkion neurriak ezartzen dira prebentziorako, monitorizaziorako eta ekintzarako. EROSKI osoa harrapatzen du, VEGALSA-EROSKI izan ezik, hark bere plana du eta.

Prebentzio testuinguru honetan, Kontseilu Errektoreak urtero sakon aztertzen ditu korporazioaren arriskuak oro har. Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean (E atala) --eskura dago EROSKlren webgunean-- arriskuei buruzko informazioa dator (arriskuak kudeatzeko sistemaren irismena, arriskuak kudeatzeko sistemaz arduratzen diren organoak, gauzatu diren urteko arriskuak, etab.).

EROSKIn ezarritako sistemak barnean hartzen du gure Arriskuen Mapa lantzea eta aldian behin eguneratzea. 2020an txosten bat txertatu zen analisisian, ikusteko COVID-19aren pandemiak zer-nolako eragina izango ote zuen zigor arriskuak kudeatzeko gure sisteman. Analisisiak kontuan hartu zituen pandemiak zuzenean izandako eraginak eta baita araudi berriaren ondorioz sortuak ere.

Era berean, klima aldaketa dibertsifikatu ez daitekeen arrisku bat denez eta gaur egun dagoeneko mundu mailan eragina izaten ari denez eta etorkizunean larritu egingo direnez itxura guztien arabera, 2022an sakondu egingo dugu klima aldaketari atxikita dauden arriskuak identifikatzeko lana, gure jardueran eragin dezakeen neurrian, eta hor sartuko ditugu konpainiak izan ditzakeen arriskuak karbono gutxiko ekonomia baterantz jotzeko, eta bereziki aztertuko dugu arrisku horiek zenbateko eragina izan dezaketen finantza arloan eta zer-nolako neurriak hartuko diren arrisku horiei aurre egiteko. Analisi hori egiteko, kontuan hartuko dira Task Force on Climate-Related Financial Disclosures-ek ematen dituen gomendioak, eta horrekin, bete egingo ditugu Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legearen betekizunak.

EROSKlren arriskuen mapa konfidentziala da. Dena den, orain ageri den taulan laburbiltzen da sektoreko enpresek nolako arrisku generikoei egin behar dieten aurre eta EROSKlK zer-nolako mekanismoak dituen horiei erantzuteko.

COVID-19ari emandako erantzunak

Urte hau ere baldintzatu egin du COVID-19ak eragindako pandemiak, eta guk lanean jarraitzen dugu gure produktu eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko segurtasun osoz.

EROSKlK ondasunen eta zerbitzuen txikizkako banaketaren arloan dihardu, eta funtsezko zeregina eduki dugu sortu den krisiari erantzuteko eta irtenbideak emateko orduan, bai negoziolari eta antolamenduaren egokitzapenari dagokionez, eta bai gizarteari egindako ekarpenari eta emandako laguntzari dagokionez.

EROSKI osatzen duten pertsona guztiek barnean zeukaten onena eman dute gure produktuak eta zerbitzuak eskuragarri egon zitezen inguru seguru eta eroso batean.

Horren erakusgarri da 650 pertsonak baino gehiagok dendetan egin duten lana abenduan eta 2022ko urtarilean, seigarren olatuaren unerik txarrenetan. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiogu jende guztiari EROSKlrekin izan duten konpromisoarengatik. Alde batetik, gure gizatalde guztiari, ahalegin eta erabakitasun handiak agertu dituelako une bereziki garrantzitsuetan eta, bestetik, bezero guztiei, guganako konfiantza izaten jarraitu dutelako eta modu eredugarrian jokatu dutelako.

Sektoreko arriskuak eta EROSKlK dituen mekanismoak horiek kudeatzeko

Arriskua	Deskribapena Kudeaketa	Mekanismoak
Ekonomiaren eta merkatuaren bilakaera	Adierazle makroekonomikoen bilakaera: langabezia, kontsumoa, KPIa, interes tasak, truke tasa, etab, baita Ukrainako gatazka ere eta horrek eduki dezakeen eragina hornigaietan, kontsumo pribatuan eta konpainiaren salmentetan. Egungo testuinguru inflazionistan, joerak esaten du prezioak gero eta garrantzi handiagoa duela erosteko erabakietan.	"Zurekin" eredu a, zeinak indartu egiten duen bezeroen fidelizazioa EROSKI cluben bidez. (41. orr.) Eskaintza eta deskontu berezien kanpainak Urrezko Txartelarekin eta EROSKI erosketa txartelen jabeentzat. (41. orr.) Eskaintza komertziala eta zerbitzuak egokitzea berrizkuntza bidez. (52. orr.)
Elikagaien kalitatea eta segurtasuna eta osasuna	Pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jartzea gure produktu bat edo hirugarren batena kontsumitu duelako, arreta berezia jartzen zaiela produktu freskoei.	Kalitatea Kudeatzeko Eredu sendoa. Urtean 22.900 kontrol analitiko baino gehiago egiten ditugu, 900 ikuskatze baino gehiago saltokietan eta 300 ikuskatze hornitzaileei. (87. orr.)
Arauak betetzea eta arau aldaketak	Lege aldaketak eta betekizun eta araudi berriak zenbait arlotan: jasangarritasuna; gardentasuna; datu babesa; eta diru-zuritzea, iruzurra, ustelkeria eta antzeko delituen kontrako neurriak.	Kapital zuritzeari aurre hartzeko eskuliburua, Arrisku penalen plana, Ustelkeriaren aurkako politika (24. orr.) Ingurumen Politika (85. orr.) Kalitatezko enplegua sortzea (58. orr.-tik 65.-era) Ontzien eta bilgarrien ekodiseinua (Pág. 109-111) Hondakinen kudeaketa zirkularra (Pág. 117-120) Gardentasun konpromisoa Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure 10 Konpromisoetan (14. orr.)
Klima aldaketaren eragina balio katean	Hondamendi naturalak, ezbeharrak edo tenperatura aldaketak, eta horien ondorioz lehengaiak urritzea, zailtasuna sortzea produktu freskoak eskuratzeko eta/edo hornidurak mugatzea edo denda bat edo batzuk aldi batez ezin irekitzea, kostuak gehituz.	Compromiso Net Zero (99 orr.) Ingurumen Politika (98. orr.) eta Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoak. (16. orr.) Hurbileko kontsumoa eta ingurumen ziurtagiriak dituzten produktuak sustatzen dituen estrategia komertziala. (96. eta 106. orr.) Prozesuak eta instalazioak egokitzea ekoefizientzia handiago edukitzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko. (112. orr.)
Pertsonak eta lan baldintzak arduraz kudeatzea	Lan baldintza egokiak bermatzeko beharra, arreta berezia jartzen zaiola aukera berdintasunari eta diskriminazioaren aurkako borrokari.	Kode etikoa (24. orr.) Jokabide kodea (24. orr.) Salaketa kanala (28. orr.) Berdintasun Plana (69. orr.) Kalitatezko enplegua sortzea (58. orr.-tik 65.-era)
Langilearen osasuna eta segurtasuna	Lan inguru seguruak sortzeko beharra, baita osasunaren eta segurtasunaren kultura bat ere, negoziolari atxikita dauden lan arriskuak murrizteko.	LAPen formazioa jasotzeko planak (75. orr.) Laneko arriskuen prebentzio plan eta zerbitzuak (73. orr.) Barne auditoretzat (73. orr.) Larrialdi simulakroak (73. orr.)
Digitalizazioa	Igoera azkarra bezeroek kanal digitalen bidez egindako eskarrietan, eta horretara egokitu beharra. Telelana ezarri izanak areagotu egin du joera hori.	Omnikanaltasunerako estrategia eta proposamena. (40. orr.) Berrikuntza proiektuak digitalizazioan aurrera egiteko. (52. orr.)
Giza eskubideak balio katean	Hornitzaileek giza eskubideak eta lan eskubideak ez betetzeko arriskua.	Gure hornitzaile guztiei eskatzea sinatu dezatela gure kode etikoa. (48. orr.) Kanpo auditoretzen bidez jarraipena egitea arrisku gehien duten hornitzaileei: ehungintzako eta elikagaietatik kanpoko sektoreak Asiako herrialdeetan. (48. orr.)
COVID-19ak izandako ondorioen eta eraginaren jarraipena	Aldi baterako murrizketak hornigaietan edo dendak irekitzeko garaiak, pertsonen osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoelako, eta mugikortasuna mugatzea administrazioak hala erabaki duelako osasun krisia kontrolatu nahian.	Segurtasun neurriak egokitzea pandemiak duen bilakaeraren arabera.Segurtasun protokolo berriak dendetan eta lantokietan. (34. orr.) Omnikanaltasunerako estrategia eta proposamena. (40. orr.) Tokiko ekoizleak babestea (126. orr.) Inguru hurbilenari elkartasuna adierazteko ekintzak indartzea. (127. orr.-tik 134.-era).

VEGALSA-EROSKlren kudeaketa arduratsua

VEGALSA-EROSKIn Betetze Batzordearen ardura da araudia betetzen dela kontrolatzea, Kode Etikoa, politiketan eta prozeduretan ezartzen diren arauak eta jokabideak aintzat hartuz. VEGALSA-EROSKlren berezko organoa da batzorde hori.

Era berean, salaketa kanal bat ere badugu, non edozein erabiltzailek jakinaraz ditzakeen barneko marko etiko eta arautzailearen aurkakoa diren ekintzak, eta berdin indarrean den legediaren aurkakoa den ekintzaren bat gertatzen denean ere. 2021eko abenduaz geroztik salaketa anonimoak egin daitezke salaketa kanalaren bidez.

Kode Etikoa gain, zeina 2018ko maiatzean onartu zen eta 2019ko maiatzean sartu zen indarrean, bete beharreko arauak sei politikatan laburbiltzen dira VEGALSA-EROSKIn: pribatasuna eta konfidentziasuna; ustelkeriaren aurkakoa; interes gatazkak; erosketak eta kontratazioak; donazioak eta babesleak; eta eskaintzak eta opariak.

Kode Etikoa

Gure Kode Etikoa jasota daude gure jardueraren alor guztietan aplikatzen ditugun printzipio etikoak eta balioak, eta horren osagarri dira Betetze Politikak eta horiei dagozkien prozedurak.

- **Legezotasuna:** legea eta barne araudia zorrotz betetzea.
- Pertsonen **osasunaren eta segurtasunaren** aldeko konpromisoa.
- **Errespeturik handiena**, ekitatea eta duintasuna langile, kolaboratzaile, bazkide eta lehiakide guztientzat eta Sozietateari loturiko gainerakoentzat.
- **Irizpide objektiboak** langileak hautatzeko eta promoziorako.
- **Gardentasuna**, objektibotasuna eta profesionaltasuna jardura guztietan eta interes taldeekiko harremanetan.
- **Zentzuz eta egoki erabiltzea baliabide guztiak**, Sozietatearen aktiboak babestuz.
- Intimitatea, **datuen babesa** eta isileko informazioa.
- **Konpromisoa** ingurumenaren alde.

Arriskuak kudeatzea

VEGALSA-EROSKlko arriskuak kudeatzeko azken ardura Administrazio Kontseiluarena da. Bi sistema ditugu arriskuak kudeatzeko, bakoitza bere funtzionamendu bereziarekin baina koordinatuta daudenak.

Arrisku Korporatiboak Kudeatzeko Sistema da bat, eta Delituak-Arrisku Penalak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Programa bestea (Compliance). Sistema bakoitzak dauka bere egitura, bere kudeaketarekin eta kontrol organoekin.

Organo horiek dira, batetik, Arriskuen Analisisirako Batzordea, arrisku korporatiboaz arduratzen dena, eta Betetze Batzordea, bestetik, arrisku penalak kudeatzen dituenak.

Era berean, Administrazio Kontseiluak onartu ditu arauen prozesuei dagozkien arauak eta metodologia. Delituak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Eskuliburuan sartzen da Erabakiak hartzeko Protokolo bat, zeina kontuan hartu beharko luketen erabakitzeko boterea duten organo guztiek eta sozietatearen borondatea eratzeke garaietan funtzioaren bat dutenak.

Arriskuen Analisisirako Batzordeak urtean bitan berri ematen dio Administrazio Kontseiluari, eta Betetze Batzordeak urtean behin, arriskuen deskargua eginez eta intereseko gaien berri emanez. Sail Juridikoaren Betetze Atalak bi deskargu egiten ditu urtean, Betetze Batzordearen aurretik, zeinari informazioa bidaltzen dion anomaliaren bat antzematen duenean.



Kexa eta erreklamazioetarako mekanismo formalak

202-1

Kudeaketa etiko eta arduratsuekin dugun konpromisoaren barnean, zenbait kanal ezarri ditugu kexak eta erreklamazioak aurkezteko, eta aukera ematen digute ingurumen arloan, arlo sozialean edo gobernantza onaren arloan sor daitezkeen gorabeherak identifikatu eta kudeatzeko. Zehazki:

Bezeroak

EROSKlren bezeroaren arretarako telefonora jo dezakete 944 943 444, astelehenetik larunbatera, 09:00-22:00 ordutegian, edo honako webgune honetan eskuragarri dagoen formularioa bete: **www.eroski.es/contacto**. CAPRABOekin harremanetan jarri nahi izanez gero, 932 616 060 telefono zenbakia bidez egin daiteke, ordutegi berean, edo honako webgune honen bitartez: **www.miclubCAPRABO.com/atencion-cliente**. FORUM SPORTEk 944 286 618 telefono zenbakia jartzen du bezeroen eskura, ordutegi berarekin, eta honako helbide elektroniko hau: **forumsport@forumsport.es**.

Kanal horietako edozeinetan erregistra daiteke kexa edo erreklamazioa eta erakunde barruan dagozkien arduradunei helaraziko zaie, ahalik eta azkarren konponbide edo konpentsazio bat eskaini ahal izateko.

Kontratua edo legea betetzea

Arauak edo kontratuak ez betetzearekin lotutako jakinarazpenak edo errekerimenduak dagokion zentzura edo arlora bidaltzen dira, edo zuzenean EROSKlren sail juridikora. Azken kasu horretan, gaiaren arabera, sail juridikoak dagokion kudeaketa arlora bidaliko du erantzuna jasotzeko idazkia. Horen arabera egingo du erantzun idazkia, Administrazio Prozedurako Legearen arabera. Gainera, hala badagokio, erreklamazioa eragin zuen ez-betetzea konpontzeko ekintzak jarriko litarteke abian.

Langileak

Kudeaketa administratiboekin edo lanpostuarekin lotutako kexak edo erreklamazioak egiteko, langileek Departamentu Sozialarekin jar daitezke harremanetan, nagusiaren edo pertsonen eskualdeko arduradunaren bidez, edo Pertsona Administrazioaren arduradunarekin. Jokabide Kode Korporatiboa edo Arrisku Penalak Prebenitzeko Plana ez betetzearen inguruko salaketak egiteko, honako bide hauek ditugu: harremanetarako telefono zenbaki bat [94 621 12 34], postontzi elektroniko bat canaldenuncia@eroski.es; canalddenunciavegalsa@gmail.com] eta fisikoki entrega daitezkeen formulario bat. Beteazpen Bulegoko arduradunak Kontseilu Errektorearen Auditoretza eta Betetze Batzordeari emango dizkio salaketa kanalaren eta Arlo Sozialaren bidez jasotako salaketak. Auditoretza Batzordea arduratuko da kontsultak eta jakinarazpenak hartzeko ezarritako prozeduren funtzionamendua gainbegiratzeaz, eta emandako erantzunak balioztatuko ditu. Gainera, laneko sexu jazarpena eta sexuagatiko diskriminazioa tratatzeko protokolo espezifiko bat dugu. Ustezko biktimak esku-hartzea eskatzen duenean aktibatzen da protokolo hori; nagusiaren, pertsonen eskualdeko arduradunaren edo Gizarte Kontseiluko kide baten bidez egin dezake eskaera hori. Kasu horretan, Instrukzio Batzorde bat sortuko da, eta horrek dagokion isilpeko ikerketa espedienteari emango dio hasiera. Espedientea amaitutakoan, ondorioen txostena egin eta Pertsona Zuzendaritzara bidaliko da, roposatutako neurrietatik egokitzen hartzen dituenak martxan jar ditzan.

Enpresa hornitzaileak

Enpresa hornitzaileei arreta emateko zerbitzuak kontabilitatearen eta finantzen arloan ematen die zerbitzua.

Alegia, EROSKl jaulkitako fakturen, epemugen, ordainketen edo karguen egoera zein den. Enpresa hornitzaileek bide hori erabiltzen badute beste gai batzuei lotutako zalantzak edo arazoak helarazteko, gai bakoitzari dagokion pertsonarengana eta sailera bideratuko dira.

Merkataritza kudeatzaileen zalantzak ere argitzen ditu zerbitzu horrek, hornitzailearen batekin arazoren bat izan badute edo kontuaren egoerari buruzko informazioa behar badute. Enpresa hornitzaileak SIP Hornitzaileen Informazio Sistemarekin harremanetan jar daitezke, bai telefonoz (08:30etik 13:30era eta 15:00etatik 16:00etara), bai posta elektronikoz. Posta elektronikoa berrikusten eta kudeatzen joaten da, gehienez 2 eguneko atzerapenarekin, sasoiaren arabera (ordainketak egin aurreko egunak, etab.). Gainera, enpresa hornitzaileak doan atxiki daitezke eskura duten webgunera, eta, horren bitartez, fakturen egoera, karguak, 5 urte arteko mugimenduak eta abar kontsultatu ahal izango dituzte. 2020an, hainbat hobekuntza egin dira atarian: besteak beste, SAP inguruneetik jaulkitako karguen kopiak egiteko aukera nabarmentzen da, eta lehen hornitzaileek administrazioan eskatu behar izaten zituzten.

Zerbitzu horren eraginkortasuna baloratze aldera, hainbat estatistika egiten dira: urte sasoiaren eta ordu tartearen arabera jasotzen diren deiak, erantzundako deiak, erantzun ez diren deiak eta arreta orduetatik kanpo jasotako deiak. Gainera, jasotako mezu elektronikoen kopurua eta enpresa hornitzaileek mezuak bidaltzeko datak kontrolatzen dira, atzerapenik ez izateko. COVID-19ak areagotu egin du jasotako kontsulten kopurua, eta hornitzaileei prozesuetan izan diren aldaketan berri eman beharra eragin du, alarma egoeran hornikuntzan arinagoak izatearren. Hala ere, hornitzaile guztiei eman zaie zerbitzua, gorabehera handirik gabe, atariaren bidez edo telefonoz.

2

“Zurekin”
konprometitua
dagoen
negozio eredu
bat





Negozio eredu

102-2; 102-4; 102-6

Gure negozio eredu formatu askotariko enpresa baterantz doan eredu bat da, erantzuna emango diona gure bezeroei sortzen zaizkien behar desberdinei. Alde horretatik, izen sorta bat hartzen du gure negozio eredu nagusiak, hau da, elikadura, bidaia agentziak, gasolindegia, kirol dendak, optikak eta aseguruak.

Hori dela eta, askotariko sare komertzial eraginkor bat dugu, 1.646 saltoki fisiko osatua, 1,18 milioi m2 hartzen dutenak, non guregan konfiantza jartzen dutenen erosketa prozesuak

Elikagaien negozioak

CASH&CARRY

VEGALSA-EROSKIk 18 Cash&Carry ditu Cash Record izenarekin. Negozio horrek askotariko produktuak eskaintzen ditu, hala nola elikagaiak, drogeria, fresneria eta bodega HORECA sektorerako egokitutako formatuekin, eta, horretaz gainera, elikagaien arlokoa ez den atal bat. 2021ean, gainera, negozio horren aurreneko online denda inauguratu dute.

SUPERMERKATUAK

EROSKIk 1.336 supermerkatu ditu, 759 propio eta 577 frankiziatu. Supermerkatuek izen desberdinak dituzte, zein den eredu komertziala eta zein eskualdetan dauden. Hala, 599 EROSKI City ditugu, 296 CAPRABO, 166 EROSKI Center, 106 ALIPROX, 75 FAMILIA, 48 ONDA eta 46 RAPID.

HIPERMERKATUAK

EROSKIk tamaina askotako 36 hipermerkatu ditu iparraldean, batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan kontzentratuak. Denda horiek elikagaiak bezala eskaintzen dituzte elikagaien arlokoak ez diren gauzak ere (ehunak, bazarra, elektronika, etxetresna elektrikoak, liburuak, eta abar).

GASOLINDEGIAK

EROSKIk 2021. urte amaieran 38 gasolindegia zituen, bere hipermerkatuen eta supermerkatuen ondoan estrategikoki kokatuak. EROSKI gasolindegiek kooperatibaren politika bera dute, hau da, beren bezeroei ahalik eta preziorik onenak eskaintzea, ordaintzeko erraztasunak jartzea eta deskontuak egitea.

EROSKIk Bidaiak

EROSKIk bidaia agentzia (hor sartzen dira Viatges Caprabo, Katalunian, eta www.viajeseroski.es eta www.viatgescaprabo.com on line bulegoak).

Oporren sektorea ez ezik, enpresentzako zerbitzu esklusiboak ditu hiri handienetan (besteren artean, Madril eta Bartzelonan), eta dibisio berezi bat du konbentzioak eta biltzarren antolatze, Travel Air Events izenekoa. Travel Air, era berean, partaide da GEBTAn (Guild European Business Travel Agents) eta ITPn Internacional Travel Partnership).



1.390

Elikadurari lotutako establezimenduak



247

Bidaia-agentzien, gasolindegien, kirol-denden eta optiken artean dibertsifikatutako negozio-establezimenduak

EROSKIk Taldearen saltoki eta frankizia kopurua negozioaren arabera

1.646

Denda guztira

1.044

Denda propioa

602

Frankizia denda

Negozia	Propioak	Frankiziatuak	Guztira
Hipermerkatuak	36	0	36
Supermerkatuak	759	577	1.336
Cash&Carry	18	0	18
Gasolindegia	38	0	38
Optikak	11	0	11
Bidaia agentziak	106	24	130
FORUM SPORT kirol dendak	67	1	68
On line dendak	9	–	9
Guztira	1.044	602	1.646

EROSKIk Taldearen supermerkatu eta frankizia kopurua negozioaren arabera

1.336

Denda guztira

759

Denda propioa


577

Frankizia denda

Negozia	Propioak	Frankiziatuak	Guztira
EROSKIk City ¹	309	290	599
CAPRABO	210	86	296
EROSKIk Center	164	2	166
ALIPROX	0	106	106
FAMILIA	75	0	75
ONDA	0	48	48
RAPID	1	45	46
Guztira	759	577	1.336

¹EROSKIk/Cityren kopuruan sartzen dira MERCA saltokiak, aurreko urteetan desglosatuta agertzen zena.

I Banaketa, autonomia erkidegoen eta saltokien negozioen arabera



Denda seguru egiaztatuak

Pandemia hasi zenetik, lan nekaezina egin dugu EROSKIrekin lan harremanen bat edo harreman komertzialen bat duten pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko. Beharrezko neurri guztiak hartu ditugu gure bezeroen eta gure gizatalde osoaren osasuna eta segurtasuna zaintzeko.

EROSKik mantendu egin du Bureau Veritas-en Clean Site egiaztagiria CAPRABO eta EROSKI supermerkatu eta hipermerkatuetarako (VEGALSA-EROSKiren dendetarako izan ezik), zeinak bermatu

egiten duen behar bezala ezartzen direla garbitasun eta desinfektatze protokoloak, baita segurtasun neurri egokiak ere CO-VID-19aren aurrean, bai langileentzat eta bai bezeroentzat ere. Bureau Veritas-ek egiten duen ebaluazioak aztertu egiten ditu desinfektzioarekin, segurtasunarekin eta higie-nearekin zerikusia duten alderdiak, betiere kontuan hartuta pandemiarekin indarrean sartu den legedia eta osasun agintari baimenduek prebentzio arloan egin dituzten gomendioak.

	Establezimendu propioak							Establezimendu frankiziatuak					
	Elikagaien negozioa			Negozio dibertsifikatuak				Elikagaien negozioa		Negozio dibertsifikatuak			
	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Cash & Carry	Gasolindegia	Optikak	Bidala agentziak	Aisia- Kirola*	Propioak, guztira	Supermerkatuak	Bidala agentziak	Aisia- Kirola*	Frankiziatuak, guztira	Guztira
Andaluzia	2			1	1			4	51	1		52	56
Andorra								0	4			4	4
Aragoi		36		1		3	2	42	26			26	68
Asturias	1	11	1	2		4	7	26	2			2	28
Kantabria	1	8		1		5	5	20	9	3		12	32
Gaztela eta Leon	1	21		1		7	11	41	13	1	1	15	56
Gaztela Mantxa						2	0	2	7			7	9
Katalunia		210		2		1	1	214	88	1		89	303
Ceuta								0				0	0
Valentziako Erkidegoa							2	2	8			8	10
Estremadura						1		1	1			1	2
Galizia	6	144	17	3		4	2	176	121	4		125	301
Gibraltar								0	4			4	4
Uhartea balearikoak		107		3				110	71			71	181
Errioxa	1	10		1		5	3	20	8			8	28
Madril						2	1	3	20			20	23
Murtzia							1	1				0	1
Nafarroa	2	53		4	1	13	6	79	36	4		39	119
Euskal Autonomia Erkidegoa	22	159		19	9	59	26	294	108	10		119	412
Guztira	36	759	18	38	11	106	67	1.035	577	24	1	602	1.637


"Zurekin" eredu komertziala

102-2

Gure xedearekin bat etorritik, "zurekin" eredu komertzialaren asmoa da gure bezeroei kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea, haien espero duten hori betetzea eta hazten jarraitzea osasunaren eta jasangarritasunaren bultzadan oinarrituta.

Alde horretatik, Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun konpromisoak betetzen saiatzen gara, eredu estrategikoak diseinaturik. Eredu horiek modua ematen digute negozio unitateen garapenean txertatzeko ate baita gure bezeroen eta gainerako interes taldeen erlazioan.

"Zurekin" ereduaren ardatz estrategikoak



Balioa sorrazten dugu gure marken bitartez

Gure marka propioak produktu bereziak eta erreferentziazko kalitatea dutenak dira, baita prezio harreman bikainekoak ere. Gure helburu nagusia da bezeroei produkturik onena eskaintzea, haiek espero dutena betetzea eta alderdi onetik ezustekoa ematea gure saltokietara datozenean.

Kalitatezko produktuak eskaintzen jarraitzeko eta aldi berean gure bezeroen eskariak betetzeko, produktu berriak gaineratu ditugu gure markako produktu sailean, eta jarraitzen dugu gure EROSKI Bio eta EROSKI Natur Bio elikagai ekologikoen produktu markak sendotzen, baita EROSKI Eco drogeriako produktuak ere. 2021ean, 263 erreferentzia berri sartu ditugu marka propioan, eta jada 4.800 baino gehiago ditugu. Nabarmentzekoa da urteko mugari gisa gure markako produktu guztietatik palma gantzak kentzeko konpromisoa bete dugula.



"Salute to Excellence Awards" saria

2021ean, PLMAren "Salute to Excellence" nazioarteko hiru sari irabazi ditugu, marka propioko produktuen berrikuntza eta kalitatea aitortzen digutenak. EROSKlren disoluzio lasterreko komuneko papera, EROSKI BIO espagetiak eta EROSKlren grain free pentsua izan dira produktu sarituak.

Marka propioko produktu kopurua

		2021	2020	Deskribapena
	EROSKI SeleQtia	219	226	Onetan onena. Basque Culinary Centerrek egiaztatuta datozen produktuak.
	EROSKI	2.164	2.172	Gama zabala, behar duzun guztia, prezio-kalitate harremanik onena bermatuta.
	EROSKI Natur	430	457	Zapore guztia, trazabilitate osoa eta kalitate kontrolatua duten produktu freskoak, sorbururik onenetik eta unerik onenean ekarriak.
	EROSKI Bio y EROSKI Eco	95	68	2020an ateratako marka berria, ekologikoaren ziurtagiria duten ontziratutako elikagaietarako eta freskoetarako eta drogeriako produktuetarako, zeinak ekoitziak eta landuak izan baitira ingurumena babesteko baldintzarik onenetan.
	belle	424	437	Kosmetikako, higienerako eta zainketa pertsonalerako produktuak, parabenorik eta triklosanik gabeak, dermatologikoki testatuak eta preziorik onenean.
	EROSKI Basic	214	227	Diseinu propioko arropa eta oinetakoak eta kalitate/prezio onena.
	Visto Bueno	1.146	1.405	Diseinu propioko arropa eta oinetakoak eta kalitate/prezio onena.
	Romester	79	151	Kirol-arropa eta -ekipamendua, diseinu propioekin eta kalitateprezio erlaziorik onenarekin.
	Ecron	41	35	Diseinu propioko kiroltako arropa eta ekipamendua eta kalitate/prezio onena.

Belaunaldi berriko dendak

"Zurekin" eredu komertzialak gure belaunaldi berriko dendak definitzen ditu, sare komertziala eraldatuta gure saltokietan esperientziarik onena eskaintzeko helburuz. EROSKIk erantzuna eman nahi dio gizartean sortu diren eskariei jasangarritasunaren eta digitalizazioaren joera berrien barnean. EROSKlren belaunaldi berriko dendak iparraldeko eta Balearretako denden %80 baino gehiago dira eta CAPRABOn %70 baino gehiago. Denda hauek ekoeraginkorrakoak dira, eta energia aldetik zenbait neurri dakartzate, %35 gutxiago ere murrizten dutenak ohiko supermerkatu baten energia kontsumoa.

Belaunaldi berriko gure dendek irtenbide berritzaileak eta eraldatzaileak bultzatzen dituzte, nola eta formatu ugariako ereduak ezarriz eta saltoki eraginkorrakoak eginez; hala, tratu pertsonala eta hurbila uztartzen dugu autokudeaketarekin. Horretaz gainera, belaunaldi berriko denda horiek garrantzi handia ematen diete tokiko produktuei eta produktu freskoei. Alde horietatik, CAPRABOk proiektu pilotu bat abiatu du, zertarako eta Bartzelonan eta Gironan 700 m2 baino gutxiago duten dendetan produktu eta sorta kopurua milara handitzeko. EROSKlren noritasun ikurra izateaz gain, belaunaldi berriko denden bultzadaz, berme handiagoarekin bete ditzakegu gizartearen eskakizunak.

Irekierak eta eraldaketak

2021a berreskurapenaren urtea izan da, COVID-19aren ondorioz izandako geldialdiaren ondoren, eta gure saltokiak egokitu beharrean izan dira. Ekitaldi honetan, gure presentzia indartu dugu erreferente garen eskualdeetan, denda propio berriak irekita eta 65 frankizia inauguratuta (63 berriak eta bi propioetik frankiziara pasatuta). Horretaz gainera, 2021ean, beste 114 denda eraldatu ditugu "Zurekin" eredu komertzialera.

CAPRABOk 1959an bere jarduera abiatu zuen supermerkatua izan da belaunaldi berriko eredu eraldatu den gunetako bat. Bartzelonako Sant Marti barrutian dagoen denda aitzindari hau berrituta, espazioak zabaldu dituzte, produktu fresko ekologikoei edo tokikoei protagonismo handiagoa eman diete eta argiztapen sistema hobetuak jarri dituzte, energia aurrezteko modua ematen dutenak. Horretaz gainera, 77 denda berri ireki dituzte (hamalau propio eta 63 frankiziatu), erreferentziazko 14 garen eskualdeetan gure presentzia indartzeko planaren barnean. Era berean, 53 denda itxi ditugu (32 propio eta 21 frankiziatu), negozio egitura inguruneke behar berrietara egokitzeko helburuarekin.

EROSKlren hazkuntza bultzatu dugu iparraldean, denda garrantzitsuak irekita. Esaterako, gure lehen hipermerkatua Galizian bost urte honetan; denda sareko saltokirik jasangarriena Gasteizen; CAPRABOren denda eredugarri bat Sitgesen eta zenbait eskualderen aldeko apustua indartzen duten irekierak Miranda Ebron, Mallorcako Incan eta Zaragozako Florian Reyren handitzea.

Horretaz gainera, aurreko urteetako frankizien erritmoari eutsi diogu, eta handitu egin gara erreferentziazkoak garen

eskualdeetan, batik bat Katalunian eta EAEn.

2021a sendotze urtea izan da halaber EROSKlren RAPID formatuarentzat, bikoiztu egin baitu irekiera erritmoa. Gaur egun, 46 supermerkatu ditu RAPID izenarekin; horietatik hogeia iz inauguratuak. Hortaz, urte horretan bultzada argia jaso zuen formatu ultrahurbilak. Oso eredu komertzial lehiakorra da, eta gutxi gorabehera 150 metro karratuko denda txikiek osatzen dute. Nabarmentzekoa da erosteko orduan ematen dituen erraztasuna eta azkartasuna.



Indartu egin dugu gure posizio omnikanala. EROSKI lehen baino digitalago

2021 honetan, gure estrategia omnikanala sendotu dugu; hala, gure bezeroei esperientzia bakarra eta berezia eskaintzen diegu erosteko erabiltzen duten kanala gorabehera. Alde horretatik, lanean jarraitu dugu gure kanal digitalen posizionamendua bultzatzeko; kanalok, denda fisikoek bezala, aukeraren erosotasuna eskaintzen diete bezeroei, eta behar duten horretara egokitzen dira, erosketari esperientzia hobea emanez eta online-offline muga ezabatuz.

Kanalak gorako bultzadari eta joerari eutsi dio pandemia dela-eta 2020an online negoziaren jarduerak igoera gogorra izan ondofik, non EROSKI Onlinek laukoiztu ere egin baitzituen kanal horren bitartez egindako salmentak. Aurreko ekitaldian eboluzioa normalizatu egin da, baina COVID-19a agertu aurreko adierazleak bikoizten jarraitu du.

Gure digitalizazio estrategia web plataformaren eta EROSKI aplikazioaren bitartez antolatzen da. Horretaz gainera, eskaintza ugaritzeko eta gure bezeroen erabilera aldaketetara eta beharretara egokitzeko kanalak ditugu, hala nola Click&Drive, Click&Collect eta armairu adimendunak.

Online supermerkatua

Online supermerkatuak bezeroen erosketari prozesua eta interakzioa errazten ditu, nola eta erosketak etxera eramateko aukera emanda, produktuen balorazioa egiteko modua emanda eta dendan edo armairu adimendunetan jasotzeko modua emanda; gainera, horien bitartez, bezeroek aukera dute egunean bertan doan jasotzeko online eskaria.

2021ean, zerbitzu berriak jarri ditugu martxan, esaterako, online eskarien jarraipena, etxera eramateko orduan itxaroten denbora gutxiago emateko. Bestalde, gure proposamen komertziala zabaltzeko dugu elikagaiak ez diren beste 3.000 artikulurekin baino gehiagorekin; hala, aukera handiagoa du orain bezeroak.

Era berean, etxera eramateko protokolo bat dugu, prebentzio neurri zorrotzak dituenak. Gainera, TLS Transport Layer Security protokoloaren bertsio aurreratua ezarri dugu. Horrek bermatzen du transmititzen den informazioa ez atzematea eta aldatzea baimenik ez duten elementuek. Hala, EROSKI online-k Qualysen segurtasun kalifikaziorik handiena lortu du (A+).

EROSKI aplikazioa

EROSKI aplikazioa gure bezeroekin harremana izateko dugun kanalik inportanteenetako bat da, bezeroek erosketari prozesuan gauzatzen dituzten ekintzetako asko errazten baititu (hala nola kontsiderazio fasea eta erosi ondoko fasea). Bezeroek erabiltzen dituzten funtzioei dagokienez, nabarmentzekoak dira: aurrezpen txartela, eskaintza pertsonalak, txartel digitala, tiket digitala, erosketari zerrenda eta diruzorro saldoaren kontsulta.

Aurten, 700.000 alditan baino gehiagotan deskargatu dute aplikazioa Android eta iOS sistemetan, eta aplikazioa hileroko erabiltzen dutenen kopurua %154 igo da.



Urteko Merkataritza Sariak

Bosgarrenez, Urteko WebShop saria eman digute Urteko Merkataritza Sarietan, online supermerkatuen kategorian.



Harremana Bazkide Bezeroekin

EROSKIIn ohitura osasungarriagoak eta jasangarriagoak sustatu, eta eskura jarri nahi dizkiegu bezeroei, elikaduratik hasi eta beren beharrak modu arduratsuagoan beteko dituzten zerbitzuetaraino.

Era berean, merezi duten arreta pertsonalizatua eskaintzen diegu, baita fidelizazio programak ere abantailak izan ditzaten eta beren eskarrietara hobeto doitzen diren erosketak egiteko modua izan dezaten.

EROSKI Club-a

EROSKI Club-a gure fidelizazio programa da, eta haren bitartez gure bazkideek eskaintza eskusiboak lor ditzakete. EROSKI Clubarekin gehiago aurrez dezakete eta erraztasun andiagoa izango dute erosketari prozesuetan. Gaur egun, sei milioi lagunek baino gehiagok dituzte EROSKIn, CAPRABOren eta FORUM SPORTen txartelak, eta salmenten %70 baino gehiago hartzen dituzte batez beste. 2021ean 200.000 bazkide baino gehiago atzeman ditugu.

- EROSKI Club-en Urrezko txartelak %4ko aurrezpen finkoa eta unibertala ematen du erosketari guztietan; dagoeneko 155.218 Bazkide Bezero ditu eta 34 enpresa, 3.700 langile biltzen dituztenak eta Urrezko Enpresa Bazkideak direnak.

Kalitatezko arreta pertsonala. Zurekin gaude

Bezeroarekin konfiantzazko harremana izatea "zurekin" ereduaren lehentasunetako bat da, eta hala jasota dator Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun 10 konpromisoetan.

Gure bezeroek dituzten itxaropenak eta beharrak asebetetzeko lanean dihardugu, eta behar duten unean laguntzeko prest izaten saiatzen gara. Gure bezeroei helarazi nahi diegu ondoan gauzkatela!

EROSKI bere proposamen komertzialaren aldetik apustu egiten ari da kontsumitzailea erdigunean jarri eta haren erosketari esperientziari lehentasuna emanez. Ikuspegi horrek bereizten gaitu, produktu freskoetan dugun espezializazioagatik eta mostradorean laguntzeko salmenta zerbitzua hobetzen jarraitzeagatik.

Alde horretatik, gure zutabeak dira langileen gaitasun profesionala eta prestakuntza tengabea, eta horren bitartez bihurtzen gara freskoen arloan are eta espezialistagoa.

EROSKI beren ohiko denda izatea aukeratu eta abantaila guztiak aprobetxatzen dituztenek 600 euro ere aurreztera iristen dira urtean, gure supermerkatu eta hipermerkatuetan. Orain, gainera, familiek %2 areagotu dezakete 0-12 familia planari esker.

- EROSKI Club-en ordainketa txartelak EROSKI Club programaren abantaila guztiak batzen ditu, eta, gainera, EROSKItik kanpo erositakoaren %1 bueltan jasotzeko modua ematen du, diru hori EROSKI Club txartel elkartuan sartuta; dagoeneko, 306.700 titular ditu.

- EROSKI Club-eko gure bazkideek, gainera, informazio xehea jasotzen dute era pertsonalizatuan, baita eskaintza bereziak ere, hala nola Euskaltekin 2021 ean iritsi dugun hitzarmena, zeinak modua ematen baitie EROSKI Club txartela duten bazkideei Euskaltekin edo Virgin Telcorekin kontratatzeko beren telekomunikazio zerbitzua eta hileko fakturan %4ko aurrezpen gehigarria sorrarazteko.

Bezeroari erantzuteko zerbitzua

Bezeroari erantzuteko zerbitzuak aukera ematen digu EROSKIrengan konfiantza jarri dutenengandik hurbil egoteko. 2021ean, 550.093 lagunek jo dute guregana bezeroari erantzuteko zerbitzuaren bitartez, eta erreklamazio guzti-guztiei eman diegu irtenbidea, horietatik %87,8ri aurreneko kontaktuan. EROSKIIn, betetzen dugu zalantza guztiak berehala argitzeko eta iradokizunei eta erreklamazioei laster batean erantzuteko konpromisoa, eta, kudeaketaren bat egin behar baldin bada, gehienez ere 24 orduan erantzuten dugu.

EROSKIren Bezeroari Erantzuteko Zerbitzuak lau hizkuntzatan hartzen ditu kontsumitzaileak, euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz; zerbitzu hori, gainera, bai telefonoz eta bai posta elektronikoz ematen du, baita webgunetik ere: www.eroski.es. Gainera, beste webgune batzuk ditugu Taldearen beste negozio eta sozietateetarako, eta, horretaz gainera, geure sare sozialak.



Sotto Tempo Advertising saria

Sotto Tempo Advertising aholkularitza enpresaren sarietan parte hartu duten kontsumitzaileek hamaikagarrenez jarraian aitortu dute banaketa handiko enpresetatik gurea dela bezeroari erantzuteko zerbitzurik onena.

Gure bezeroen entzute aktiboa

Kolektibo askotarikoen kezka aintzat hartzeko eta garden-tasunarekin dugun konpromisoa betetzen jarraitzeko helburuz, komunikazio kanal gehigarriak ditugu haiekin guztiekin. Hala, 2021an, bezeroei entzuteko 30 saio baino gehiago egin genituen, eta 152.200 lagunek parte hartu zuten, dela bezero, dela kontsumitzaile eta dela hornitzaile; hala, gure eskaintza komertziala eta gure dendak hobetzeko balio duten iritzia, iradokizunak eta gomendioak jaso genituen.

Gainera, EROSKI 21 Batzorde Kontsumerista ditu Bazkide Bezeroen parte hartzea egituratzeko; horiek eztabaidatu egiten dute, jarrerak hartu eta jarraibideak finkatzen dituzte belaraldi berriko dendak hobetzeko.

Era berean, 2021an, sare sozialetan 3,3 milioi truke baino gehiago izan ditugu erabiltzaileekin eta 453,3 milioi iritzi baino gehiago.



Twitter
59.641
jarraitzaileak



Instagram
49.835
jarraitzaileak



Facebook
230.370
jarraitzaileak




LinkedIn
76.095
jarraitzaileak

Datuen babesa

EROSKI kontsumo kooperatiba bat da; hortaz, interes bereziz zaintzen ditu bezeroen eskubideak. Horietako bat datuen babesa da, eta Etengabe Hobetzeko Plan baten gisa kudeatzen dugu. 2007an, RLOPD onartzearekin batera (1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoaren garapen araudia onartzen duena), Datuak Babesteko Kudeaketa Sistema sortu genuen, metodologia propioa aplikatuta, arriskuaren analisia eta kudeaketa eginez bera betetzen dela zaintzeko.

2018an, Datuak Babesteko gure Sistema lerrokatu egin zen bezeroen datuak babestearen arloan aplikatzekoak diren erregelamendu eta arau berri guztiekin. Datuak Babesteko Ordezkararen eta haren lantaldearen bitartez egiten dugu hori. Erakundearen barnean jarduten da honako hauekin lankidetzan: zuzendaritza, arloetako eta sail-etako arduradunak, sistemen administrazioa, sistemen erabiltzaileak, kontsultoreak eta kanpo aholkulariak.

Etengabeko hobekuntza plan hori lotu-lotu dago erantzukizun proaktiboaren printzipioari. 2021ean, ekintza sail bat planteatu dugu, datorren urtean saltokia ikuskatzeko modua emango duena; era berean, Tratamenduaren jardueraren erregistroa eguneratzen hasi gara, eta datuen gaineko eskubideak erabiltzeko prozedura berregituratu dugu, oro har eta datuen ezabatzea, zehazki.



Balio kate eraginkorra eta kolaboratiboa

201-1; 203-2

"Zurekin" denda eredu, gure saltokietan eta gure bezeroekin harremanetan egoteko modu berri batean islatzen den estrategia izateaz gain, berrikuntza integralaren eta balio katearen optimizazioaren aldeko apustua ere bada.

Geroz eta zabalagoa eta pertsonalizatuagoa den eta aurrezteko aukera handiagoa ematen duen produktu sorta

bat lortzeko, balio kate bat dugu, gure marka propioari, beste marka batzuei eta tokiko ekoizpeneko elikagaien askotariko tasunari irekia, gure denda bakoitzetik gertu. Gainera, harreman komertzial onenak mantentzen ditugu kontsumitzaileei egiten diegun proposamena hobetzeko, prezioari dagokionez.

Hauek dira gure merkataritza lehiakortasuna hobetzeko gakoak:



Optimizazioa

salmenta eta hornikuntza prozesuan, balio kate osoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.



Berrikuntza

enpresa hornitzaileekiko eta elikaduran erreferentzia diren erakundeekiko lankidetzaren esparruan.



Prezioak

egoki eta lehiakorragoak, merkataritza itunei eta promozio eta eskaintza pertsonalizatuen kudeaketari esker.



Aniztasuna

nekazaritzako elikagaien ehunaren ekoizpena, tokiko ekoizle txikiak sustatuz.




Erantzukizuna

gizarte eta ingurumen enpresa hornitzaileak aukeratzeko irizpide gisa.



Hornitzailea



Gure inguruan aberastasuna sortzen dugu

201-1; 203-2; 413-1





Gure balio kate irekiak modua ematen digu nekazaritzako elikagaien ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzeko gure inguruan, zertarako eta tokian tokiko sektore jasagarria erdiesteko eta gure bezeroei - prezioen eta kalitatearen aldeko apustua egiten baitute - produktu sorta zabal bat eskura jartzeko.

Gauzak egiteko modu horrek modua ematen digu aberastasuna zuzenean sorrarazteko balio kateko aktore askotari-koetan.

- bezeroetan, eskaintza pertsonalen, kanpainen eta susta-
penen bidez;

- gure hornitzaileetan, harreman komertzialengatik egin-
dako erosketen bidez eta gure erosketa etahornidura po-
litikaren bidez nekazaritzako elikagaien sektore jasagarri
bat bultzatzea bilatzen baitu;
- langileetan, beren zereginengatik ordainaren eta beste
ekarpen batzuen bidez;
- Estatuan, ekarpen sozialen, zergen, irabazien gaine- ko
ekarpenen eta beste tributu batzuen bidez;
- gizartean, Taldeak eta EROSKI Fundazioak xede sozialekin
egindako jardueren bidez eta ingurume na babesteko
garatzen ditugun ekintzen bide.

EROSKIk gure interes taldeei banatutako aberastasuna (milioi eurotan)



Gure hornitzaileak

204-1

EROSKIn, 9.800 merkataritza eta zerbitzu enpresa hornitzaile baino gehiagorekin egiten dugu lan. Eta haiekin, 2021an, 3.700 milioi eurotik gorako transakzio ekonomikoak egin genituen. Beste era batean esanda, azken ekitaldian 132.000 produktu baino gehiago saldu genituen.

Gure enpresa hornitzaileak gure lankide nagusiak dira, eta laguntzen digute elkarrekin eraikitzen gure enpresa ikuspegia eta estrategia. Hiru ardatzen bitartez bultzatzen dugu

lankidetzak. Ardatz horiek gure bezeroen beharretan eta eraginkortasun logistikokoan jartzen dute fokua.

Konpromiso nabarmena dugu Espainiako ekoizpen ehunarekin; izan ere, enpresa hornitzaileei egiten diegun gastuaren % 98 baino gehiago Espainiako lurraldeko enpresei dagokie. Gainera, hurbileko kontsumoa sustatzen saiatzen gara. Horretarako, gure merkataritza hornikuntzako katearen % 58tik gora tokiko eta eskualdeko enpresa hornitzaileak dira.

Merkataritza eta zerbitzu hornitzaileak herrialdeka

Alemania	30	Finlandia	1	Pakistan	2
Andorra	3	Frantzia	42	Polonia	1
Austria	1	Grezia	2	Portugal	46
Bangladesh	3	Holanda	17	Erresuma Batua	23
Belgika	17	India	1	Singapur	1
Kanada	1	Indonesia	1	Suedia	3
Txina	38	Irlanda	16	Suitza	5
Kroazia	1	Israel	2	Thailandia	2
Hego Korea	1	Italia	14	Taiwan	1
Danimarka	8	Luxenburgo	2	Turkia	1
AEB	16	Norvegia	5	Vietnam	2
Espainia	9.493	Zeelanda Berria	1		

Enpresa hornitzaileak guztira **9.803**

AGECORE, Europako negoziazio gunea

Ingurune oso lehiakor batean, non, lehengaien merkatuak globalak diren eta marka lider handiak mundu mailakoak diren, EROSKIn indartu egin ditugu nazioarteko merkatuan ditugun aliantzak. Elementu erabakigarriak dira, gure lehiakortasunaren oinarri direnak eta kontsumitzaileei aurrezteko aukera berriak eskaintzeko aukera ematen dutenak. Europako erosketen gunea da AGECORE, EROSKIk eratua Belgikako COLRUYTEKn, Italiako CONADEkin eta

Gure hornitzaileen gizarte erantzukizuna

201-1; 203-2; 413-1

Gure balio katearen ezinbesteko zati gisa, jasangarritasunari buruz ditugun gure konpromiso guztiak aplikatzen dizkiegu enpresa hornitzaileei, langileen kudeaketa arduratsua eskatuta eta ingurumen kudeaketarako sistemak ezartzen dituzten enpresak sustatuta.

Suitzako COOPekin batera. Enpresa independenteak gara, luzera begirako estrategiak partekatzen dugunak.

Bere helburua da Europako kontsumitzaileei produktu sorta zabalagoa eskaintzea, aukeratzeko askatasun handiagoa izateko eta prezio onenak eskuratzeko. Era berean, gure enpresa hornitzaileei negoziorako aukerak zabaltzen dizkie.

Lan eta giza eskubideen arloetan eskatzen ditugun oinarrizko eskubideak Nazioarteko Lan Erakundeak eta Nazio Batuen Mundu Itunean (2002az geroztik haren parte gara) ezarritako eskakizunetan oinarrituta daude. Hauek dira:

Oinarrizko printzipioak:	1. Haur lana baztertzea eta ez erabiltzea.	2. Derrigorrezko eta nahiaezko lana baztertzea eta ez erabiltzea.	3. Lan giro segurua eta osasungarria sortzea.	4. Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatze.
5. Edozer kausarengatiko diskriminazioa baztertzea eta ez gauzatzea.	6. Gorputz zigorrak, hertsadura mentala edo fisikoa, edo hitzeko abusuak baztertzea eta ez erabiltzea langileek.	7. Lanorduei eta jaiegunei buruzko legeak betetzen direla bermatze.	8. Ordainsariak sektore bakoitzeko legezko araudiaren arabera izatea, langileen oinarrizko premiak betetzen direla eta bestelako gastu batzuetarako ahalmena ere izango dutela bermatuz.	9. Arauen printzipioak betetzen direla eta erakunde baruan haien berri ematen dela bermatzen duen kudeaketa sistema bat ezartze.

Gure enpresa hornitzaileen eta frankiziatuen % 100 ek eskakizun horiek bete behar dituzte, eta haiekiko merkataritza harremanak bere horretan jarraitzeko, giza eta lan eskubideak bete behar dituzte. Jarraipen berezia egiten diegu arrisku handieneko enpresa hornitzaileei; hau da, Asian dauden ehungintza sektoreko eta elikagaiak ez diren produktuen sektoreko enpresei. Era berean, barne araudi bat dugu jarduera ustelak prebenitzeko neurriak sustatzeko, hornitzaileak eta kontratak kudeatzean.

Horretaz gainera, gizarte erantzukizunaren GRASP moduluarekin ziurtatuta dauzkagu GlobalG.A.P. zigilua duten EROSKI Natur fruta, barazki eta akuikulturako hornitzaile guztiak. Estandar horrek jardunbide onak bermatzen ditu lan eta giza eskubideen arloan, eta bat egiten du lehendik marka propioko elikagai freskoen arloan dagoeneko bazituen kalitate eta ingurumen eskakizunik handienekin.

Bidezko merkataritza

EROSKI Espainiako merkataritza eskaintzan bidezko merkataritzako produktuak sartu zituen lehen banaketa enpresa izan zen. Gainera, Fairtrade International erakundeak produktu horiek inportatzeko eta gure merkataritza markarekin banatzeko legitimatutako eragile gisa aitortu gaitu. Hauek dira saltzen ditugun bidezko merkataritzako produktuak: kafea, kakaoa, tea eta azukrea, baita ziurtatutako ehungintzako zenbait produktu ere. Zigilu horrek bidezko merkataritzaren irizpide sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak betetzen direla bermatzen du.

Logistika eraginkorra

Gure logistika sarea berezko 22 plataformaz osatuta dago. Edonola ere, Taldeko saltoki guztiak hornitzeko, gure kamioiek 33 plataforma erabiltzen dituzte, tartean, kanpoko enpresa batzuenak ere. Guztira, biltegiek 337.000 m² -tik gorako azalera dute eta, haietatik, milioi bat kaxa inguru banatzen ditugu egunero.

2021 ean produktu freskoen plataforma mapa birdiseinatzea bilatzen duen proiektu globala garatzen jarraitu dugu, fokua modernizazioan eta gure balio katearen eraginkortasunaren hobekuntzan jarrita. Instalazio berrien estrategia nagusia berrikuntza fisikoa da. Puntako teknologia ezarriz, modua izango da produktu fresko bakoitzaren tratamendu optimoa egiteko, eta, hala, tenperatura, manipulazio eta biltegiratze baldintza optimoak bermatuko dira. Horretaz gainera, hazkuntza gaitasun handiagoa bilatzen dugu, eta jatorritik gure bezeroetara igarotzen diren denborak murriztea. Hala, sendotu egingo dugu kalitaterik oneneko produktu freskoak eskaintzearen inguruko espezializazioa eta konpromisoa, eta horrekin batera tokiko produktuen sortarik zabalenarena.

Instalazio moderno eta eraginkor berri horiek, gainera, bezeroen etorkizuneko eskaerei erantzuteko prest egoteko aukera ematen digute (irekierak, gama zabaltzeak, online merkataritza, tokiko produktu gehiago, etab.). Produktu galkorretarako logistikaren modernizazioari, ingurumena gehiago errespetatzen duten instalazioak, hotz ganbera eraginkorragoekin teknologia eguneratzea eta plataforman lan egiten duen giza taldearen laneko erosotasuna eta segurtasuna areagotzea gehitu behar zaizkie. Higiezinak ekoeraginkortasun eta jasangarritasun estandar zorrotzei jarraituz eraikita daude.

Sare logistikoaren eraldaketari dagokionez, 2021 ean mugarri gertatu da freskoak banatzeko plataforma berria, jasangarritasunean puntakoa dena. 17.600 metro karratu baino gehiago ditu, eta Jundizen dago (Gasteizen). Hogei milioi euroko inbertsio izan du, eta 150 bat langile izango ditu, modua emango dutenak EAEko 300 dendatik gora hornitzeko. Banaketa zentral berri horrek EAEn genituen bi instalazio txikiago ordezkatu ditu (Bekolarrekoa eta Jundizkoa berekoa).

Horretaz gainera, lan baldintzak eta plataformen eraginkortasuna hobetzeko helburuz, EROSKIk automatizatu egin du Sigueiroko instalazioa (Coruña), eta lehendik jada bazituen automatizatuta produktu lehorrak Elorrioko (Bizkaia) eta Abererako (Bartzelona) instalazioetan, baita fruta eta berdura eskariak prestatzeko prozesuak ere Madrilgo, Zaragozako eta Mallorcako plataformetan.

Era berean, iazko ekitaldian amaitu ziren VEGALSA-EROSKIren freskoen plataforma berria eraikitzeko obrak. Sigueiroko industrialdean, berriz, lehendik zuen instalazioa egina. Instalaziook gehiago errespetatzen dute ingurumena, eta CO₂ transkritikoaren hozte sistema bat hautatu dute freoia ordeztu duena; izan ere, CO₂ hozte naturalak ez dio ozono geruzari eragiten. Martxan jartzen denean, 2022ko bigarren hiruhilekoan, konpainiak azpiegitura logistikorik handiena izango du Galiziako elikagaien sektorean, 51.000 m².

Azkenik, Zornotzako plataforma berregituratuta, handitu egin nahi ditu espazioen, eraginkortasun operazionalaren, energiaren eta hobekuntza sozialaren erabilera eta errentagarritasuna.



I EROSKI Taldeak erabiltzen dituen plataforma logistikoa nagusien map



Ekoeraginkortasuna ziurtatzen duten plataforma berriak

Eroski Taldearen zentro logistikoen irekiera berriei LEED Gold ingurumen ziurtagiria eskuratu dute. Ziurtagiri horrek nazioartean aitortzen du zein diren eraikin liderrak energia alorreko eraginkortasunean. LEED Goldek eraikuntza irizpide batzuk ditu, hala nola ur kontsumoa aurrezteak, energia fotoboltaikoa ekoiztea eta ur bero sanitarioa sorraraztea. Hala berean, monitorizatu egiten ditu besteak beste kontsumoak, hozgarri ekologikoak, espezie

autoktonoz osaturiko lorategiak eta eraikuntzan erabiltzen diren material birziklatuak. Ziurtagiria daukate CAPRABOren zentro logistikoak — Prat de Llobregateko ZAL Porten, zeinetan kudeatzen baita produktu fresko guztia—, CAPRABOacaren plataformak eta egoitza nagusi berriak (2020an inauguratuak) eta Jundiz Berria plataformak (2021ean Gasteizen inauguratuak).

Logistika jasangarria

2020an, lehenengoz lortu genuen Lean&Green izarra AECOC Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartearen eskutik; horretarako, 5 urtean %20 gutxienez jaitsi behar genuen gure jardura logistikoko igortzen duten CO₂-a. Gure ekintza planarekin, ordea, lau urtez bakarrik, %25 baino gehiago

murriztea lortu dugu 2015aren aldean. Hori lortuta, xede gisa jarri dugu 2022an egiaztatzea 2015etik 2021era %30 jaisten direla berotegi efektuko gasen emisioak, eta beraz Lean&Greenen bigarren izarra jasotzea.

Aurreneko ekintza planaren aldean, %10eko gehigarri hori murrizteko helburua erdiesteko, honako ekimen hauek garatu ditugu:

Horniketa efizienteagoa

- Logistikaren berrantolaketa: 2020an, ZAL plataforma berriak irekitzea; 2021ean, Jundiz Berria amaitzea; eta, 2022an freskoen banaketa berria egitea VEGALSA-EROSKIn.
- Efizientzia prozesuak hobetzea, kamioiak gehiago betetzeko eta kilometroak murrizteko.
- Hornitzaileekin kolaboratzea ibilbideak optimizatzeko

Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak eta gidaritza

- Ibilgailuak berritzea, pixkanaka kamioi zaharrenak kenduz.
- Ibilgailu elektrikoak sartzea.
- Erregai alternatiboak darabilten ibilgailuak jartzea, hala nola gas natural likidotuta eta konprimatuta.
- Errepideko garraioaz arduratzen diren gidariei modu ekologikoan gidatzen irakastea.

Plataforma jasangarriagoak

- Energia berdea erostea.
- LED argiak, mugimendu detektatzaileak eta tenperatura robotak erabiltzea eta argi naturalaz baliatzea, plataformetako energia efizientzia hobetzeko.
- Eguzki plakak instalatzea ingurumenean inpaktu txikiagoa izango duen argindarraz hornitzeko.
- Bilgarrietarako erabiltzeko material kopurua gutxitzea.

Alderantzizko logistika

- Dendetan sortutako hondakinak kudeatzea eta balorizatzea. Horretarako, plataformara itzultzen diren kamioi berberak erabiliko dira, haien inpaktua garraioan txikituz. Neurri hori zero hondakinak sortzeko gure helburuaren barruan sartzen da; izan ere, azpiproductu organiko eta ez-organiko guztiak biltzea eta tratatzea ahalbidetzen du, bai eta behar bezala birziklatzea ere.

Hiri logistika optimizatzea

- Hiri logistika optimizatzeko lanean jarraitzen dugu. Zenbait udalekin jardun gara zama-lanen protokoloak adosteko eta hiri ingurunean mugikortasuna hobetzen duten baimenak balidatzeko.

Soinu kutsadura dela eta, gaueko banaketa ereduak, kamioi ekoeraginkoragoak jarri ditugu Madril, Mallorcan eta Caprabon. Ibilgailu horiek CO₂-a eta beste partikula batzuk murrizteaz gain, soinu emisioaren mailak gutxitzen dituzte. Bestalde, Zaragozan eta Bilbo Handian laguntzaileak ezarri ditugu zama-lanak errazteko eta arintzeko.

Soinuaren emisio mailak estuagoak dira gauez egunez baino. Zama-lanak egitean maila horiek bermatzeko, banaketa ereduak eremuz eremuko zenbait neurri hartzea pentsatu dago. Alde batetik, lokalari dagokionez, hura egokitzea dago iragarria plan-teaturiko operatibaren harira: ixte sistemak, alarma sektoretatuak, isolamendu akustikoa... Era berean, behar den ekipamendua hartzen da kontuan, eskorgak, traspaleak isilik eta zintarriak gainditzekoak. Beste alde batetik, dagokien langileak formatu eta informatuko dira dauden isileko lan protokoloen inguruan, eta lanpostu bakoitzeko protokoloak bereiziko dira: egunez aritzen diren langileak, gaueko laguntzaileak eta banatzaileak. Azkenik, desbideratzeak zuzentzeko, barne ikuskaritzako prozesuak ezarriko dira, horiek detektatzeko eta saltoki operatiboetako lan protokoloetan datorrena betetzen dela egiaztatzeko. Neurri horietako asko udalekin batera landuko dira beren egokitasuna bermatzeko.

Azken miliaren garraioa dela eta, ibilbideak optimizatzeko sistema bat txertatu dugu eraginkoragoak eta jasangarriagoak izan gaitzen.

Sektoreko joera berrietara egokitzeko berrikuntza

2021ean, ikusi dugu nola sendotu diren 2020an pandemia-ekin bizkortu ziren joerak. Hori dela eta, EROSKI egokitu egin gara sektoreak identifikatu dituen joeretara eta kontuan hartzen ditugu gure erabaki estrategikoetan, baita gure posizionamenduan eta eguneroko erabakietan ere eta gure interes taldeei erantzuteko eran.

- **Zerbitzuak digitalizatzea.**
Aurrera egin dugu hazkunde organikoarekin, baina bultzada handiagoa izan du COVID-19aren eraginez. Laneari ari gara kontaktu fisiko gutxiagoko zerbitzuak eskaintzeko, eta handitu egin ditugu on-line salmentak.
- **Irigarritasunaren garrantzia eta senior kolektiborako egokitzapena.**
Joera horrek indarra hartu du 2021ean kolektiboak beste sektore batzuetan egindako eskariak direla eta.
- **Eragin soziala**
eta zeresan handiagoa tokiko komunitateen garapenean.
- **Hornidura katea**
sendoagoak, seguruagoak, arinagoak eta hobeto egokitzen direnak eskaria bat-batean aldatzen bada edo stocka puskatzen bada.
- **Sustapenak eta prezio estrategiak.**
Bezera konturatzen da produktu jakin batzuen prezioa igo egin dela eta aintzat hartzen ditu sustapenak eta prezio-kalitatea egokitzen duten estrategiak.
- **Etxeko kontsumoa handitzea.**
HORECA kanaleko kontsumoa apaltzearen ondorioz; horren eraginez, apalategietan egokitu egin behar izan dira zenbait produktu, baina ezin izaten da ziur jakin zenbat denboran mantendu behar den.
- **Kontsumitzaileek gehiago hautatu dituzte produktu freskoak eta tokikoak.**
eta arreta gehiago jarri diote elikadura osasungarriagoarekin eta jasangarriagoarekin zerikusia duten gaiak.
- **Hurbil erosteko ohitura**
joan-etorri txikiagoekin.

EROSKIk eskari horiei erantzuten die 2019an martxan jarritako EKINN berrikuntza ereduarekin. Metodo, tresna eta dinamika multzo bat da, berrikuntza eran emana eta erakundearen integratua bere posizionamendu diferentzialari bultzada emateko. EROSKI, gainera, berrikuntza irekiaren alde apustu egiten dugu, erakundearen aldaketa motor nagusi gisa, eta startup-ekin, zentro teknologikoekin, unibertsitateekin, hornitzaileekin eta bezeroekin jardutea funtsezkoa da gure lan egiteko moduan. 2021ean, EROSKIk 7,5 milioi euro baino gehiago bideratu ditu berrikuntza eta garapen proiektuetara, eta lankidetzak erako 16 berrikuntza ekimenetan baino gehiagotan parte hartu du; horietako bost Europako lankidetzak proiektuak izan dira 130 eragilerekin baino gehiagorekin gauzatuak, hala nola enpresak, gune teknologikoak, unibertsitateak eta startup-ak.



2021ean nabarmendu diren berrikuntza proiektuak

Zerbitzuak digitalizatzea

- **Scanner App.** Diseinu eta prototipatu aurreratuko tresnak txertatzea EROSKIn aplikazioan elikagai buruzko informazioa bisualizatzeko.
- **Digital.** Ahotsaren ezagupen automatikoa (analitika teknologia aurreratuarekin), bezeroari erantzuteko zerbitzurako.
- **Artificial Intelligence Talentum.** Sakelakoan oinarritutako aplikazio baten garapena, adimen artifizialean oinarritzen dena eta modua ematen duena elikadura sistemako arlo askotarikoei heltzeko. EIT Fooden sustatutako ekimena da, eta Artificial Intelligence Talentum (AI Talentum) Espainiako berrikuntza eta garapen laborategia da liderra. EROSKIk gainera, ART21 (Lituania) ere lankidetzat du; enpresa hori nekazaritzako eta elikadurako sektoreetan berrikuntza sartzen jarduten da.
- **Berrikuntza irekia.** 2021ean, bereziki sakondu dugu nola maximizatu EROSKIk ekintzailatza berritzailearen arloarekin egindako kolaborazioetatik sorrarazitako aukerak.

Balio katearen eraginkortasuna

- **Eraginkortasun Lab denda.** Saltokian eraginkortasunaren erronketarako irtenbide arinak pentsatzeko laborategi denda.
- **Saltokietako prozesuak industrializatzea eta eskalatzea.** Denda sare osoko prozesuetan aldaketa arin eta laster zabaltea.



Eskaintza komertziala egokitzea

- **Sorta Berritzeko Zelula.** EROSKI eskaintza berritzailea egiteagatik aitortutako marka bihurtuko duen sorta garatzea.
- **Iman berriak.** Politika komertzialean imantatzat jotzen diren kategorien berrikuntza eta berrebaluazioa.

Ingurua eta jasangarritasuna garatzea

- **FUSILLI.** Horizon 2020 proiektua, hirietako elikagai sistemaren eraldaketa bultzatzeko berrikuntza living lab-ak ezarriz (egiazko proba bankuak).
- **FoodRUs.** Horizon 2020 proiektua, nekazaritzako elikagaien kateko hondakinak eta galerrak gutxitzeko sistema kolaboratzaile zirkular berritzaile baten bitartez.
- **SISTERS.** Proyecto Green Deal elikagaien iraupenerako erabilitako ontzien jasangarritasuna hobetzeko eta inpaktu ezkorrak gutxitzeko.
- **ZeroWaste.** Proyecto Green Deal, Systemic Innovation Living Labs (SILLs) balio katean ezartzeko eta luzera begira balio katean ingurumen jasangarritasuna eta jasangarritasun ekonomikoa lortzeko.

Partaidetza aliantzetan eta elkarreetan

102-13

EROSKIn sinesten dugu gizarte eragile guztiekin lankidetzan jardun behar dugula batera aurreratzeko gure konpromisoetan eta balioa elkarrekin emateko gure interes taldeei. Helburu horrekin, era aktiboan dihardugu

aliantzetan eta elkarreetan, luzera begirako inplikazioa eta kolaborazioarekiko konpromisoa sustatuz. Nagusiki elkarre hauen dago Eroski Taldea

Kooperatiba eta kontsumitzaile elkarre gisa

- MONDRAGON kooperatiba taldea.
- KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
- KOONFEKOOPeko kide garenez, honako hauetako kide ere bagara:
 - Elkar-lan S.Coop. – Kooperatibak Sustatzeko.
 - Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutua.
 - Goren-kontseilua (CSCE-EKGK)
- Worklan (Gizarte ekonomiko enpresak sustatzeko irabazi asmorik gabeko elkarre).
- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioa (HISPACOO). HISPACOOeko kide garenez, honako hauetako kide ere bagara:
 - Gizarte Ekonomiako Enpresen Espainiako Konfederazioa (CEPES), eta Mondragon Taldeko partaide garelako ere badugu ordezkari bera.
 - Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (CES).
 - Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua.
 - Kontsumoaren, Elikagaien Seguratasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren (AESAN) Aholku Batzordea.
 - European Community of Consumer Cooperatives (Euro Coop).



Enpresa arloa

- Banaketako Enpresa Handien Espainiako Elkarre (ANGED).
- A Coruña Enpresarien Konfederazioa (CEC).
- A Coruña Ostalaritzako Enpresen Elkarre.
- Abadía de Montserrat fundazioa. ADP.
- AGRELA Enpresarien Elkarre.
- Arabako Merkataritza Ganbera.
- AZTI fundazioa.
- Balear Uharteetako elikadura arloko Merkataritzen Elkarre (ACAIB).
- Balearretako Enpresarien Elkarreen Konfederazioa (CAEB).
- Balearretako Merkataritza Konfederazioa (CBC).
- Balearretako Merkataritza Taldea (ABACO).
- Balearretako Merkataritzako Enpresarien Federazio Patronala (AFEDECO).
- Bartzelonako Merkataritza Ganbera.
- Basque Culinary Center fundazioa.
- Basque Ecodesign Center (BEC).
- Basque Ecodesign Center.
- Bermeo Tuna World Capital.
- Bermeo Tuna World Capital.
- Bilboko Merkataritza Ganbera.
- Ceako Industrialdearen Elkarre (Lugo).
- Coruña Finantza Kluba (Club Financiero Atlántico).
- EAEko Familiako Nekazaritzaren eskualde batzordea.
- EAEko nekazaritzako elikagaien klusterra.
- ECOEMBES.
- Enpresarien Asturiasko Federazioa (FADE).
- ESADE (Ramon Llull unibertsitatea).
- Escodi (Bartzelonako unibertsitatea).
- Komunikazioko Zuzendarien Elkarre / DirCom.
- Espainiako Ganberaren Merkataritza Batzordea (Mondragonen ordezkari)
- Ferrolterra, Eume eta Ortegaleko Enpresarien Konfederazioa.
- Foment del Treball Nacional.
- Galiziako Enpresarien Konfederazioa (CEG).
- Galiziako nekazaritzako elikagaien klusterra.
- Galiziako Saude klusterra (CSG).
- Herrialdeko Adiskideen Bartzelonako Elkarre Ekonomikoa (SEBAP).
- Hospitaleko eta Llobregat Behereko Enpresen Elkarre (AEBALL).
- IESE (Nafarroako Unibertsitatea).
- Impulsa Balears fundazioa.
- Jasangarritasun Zuzendaritzen Espainiako Elkarre (DIRSE).
- Kodifikatze Komertzialerako Espainiako Elkarre (AECOC).
- LEARTIKER ikerketa gunea.
- LEARTIKER ikerketa zentroa.
- Mallorcako Merkataritza Ganbera.
- Menorcako Saltzaileen Enpresa Elkarre (ASCOME).
- Mundu Itunaren Espainiako Sarea.
- Nafarroako Enpresarien Konfederazioa (CEN).
- Nafarroako nekazaritzako elikagaien klusterra.
- Ourenseko Enpresarien Konfederazioa (CEO).
- Retail Forum for Sustainability. Jasangarritasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarre (IZAITE).
- Saboiako Industrialdeko Enpresarien Elkarre – Arteixo.
- Sport Cultura Barcelona.
- Supermerkatu Kateen Espainiako Elkarre (ACES).
- Vigoko Finantza Kluba (Galiziako Enpresarien Zirkulua).
- Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkarre (APD Norte).
- 5 al día.

3

Konpromisoa
gure
profesionalekiko





Konpromisoaren kultura

102-8

Pandemiak 2020an eragin zuen salbuespenezko egoeraren ondoren pixkanaka normaltasunera itzultzen ari garen arren, 2021ean krisi soziosanitarioko egoeran jarraitu dugu. Egoera horretan, EROSKI osatzen dugun guztiok buru-belarri aritu gara oztopoak gainditzeko, gure bezeroei hornidura eta zerbitzua bermatzeko ahalik eta baldintza onenetan.

Gure kultura kooperatiboari eta gure profesionalen konpromisoari esker, erronkak gainditu ahal izan ditugu, eta, gainera, osasunarekiko eta jasangarritasunarekiko gure konpromisoak areagotzen jarraitu du.

Kooperatiban egiten dugun lanaren funtsezko 10 balioek markatzen dute kultura hori:

1. Parte hartzea sustatzen dugu.
2. Garapen pertsonala eta profesionala sustatzen ditugu, ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak hobetuz.
3. Kide izatearen sentimendua: EROSKiko kide izateaz harro gaude, eta hobekuntza arloak bilatzen ditugu.
4. Informazioa eta komunikazioa sustatzen ditugu erakundearen barruan, bi noranzkoetan.
5. Barne elkartasunari esker, kolektiboa indibidualari nagusitzen zaio, eta epe luzea epe laburrari.
6. Dinamismoa, aldaketara egokitzeko eta berrikuntza bultzatzeko.
7. Bezeroa aintzat hartzen dugu, haren beharretara egokitzeko eta aurea hartzeko.
8. Lan baldintzak etengabe hobetzen ditugu, bizi kalitate egokia bermatzeko.
9. Kanpoko elkartasuna, gizarteari ematen diguna itzultzeko.
10. Kooperatiban lan egiten dugun pertsonok ahalik eta profesionalizazio mailarik handiena lortu nahi dugu.

Kalitatezko enplegua

102-7; 102-8; 102-41; 401-1

EROSKlrentzat, gizarte erantzukizuna erakunde osoak partekatzen duen balioa da, eta haren kudeaketa Presidentetzaren erantzukizun zuzena da. Gure Estatutu Sozialetan, Barne Araudi Kooperatiboan eta Kudeaketa Etikoko Eskuliburuan lan gaitako gure konpromisoak biltzen dira, bai gure langileentzat, bai azpikotrata eta hornitzaileentzat.

Gure erakundeko pertsonen kudeaketaren ezaugarri nagusia da langileak garela, baina baita jabeak ere: EROSKlren plantillako 9.058 pertsona (guztizkoaren % 32) bazkide langileak gara; horrek esan nahi du enpresaren kudeaketa kooperatiboan parte hartzen dugula.


Ezaugarri horrek beste banaketa enpresetatik bereizten du EROSKI Taldea: jarrera proaktibo bat eta proiektuarekiko konpromiso maila handia, eta hori jardunean islatzen da erakundearen maila guztietan.

Sortzen dugun enpleguak gure kudeaketa ereduari eta plantilla, bezero eta gizartearekin dugun konpromisoari erantzuten dio; horregatik ahalegintzen gara, hain zuzen, egonkorra eta kalitatezkoa izan dadin. Hala, EROSKik 2021ean sorturiko enpleguaren % 78 baino gehiago finkoa izan dela azpimarratu beharra dago. Bazkide kooperatibista ez diren 19.295 pertsonen % 100 hitzarmen kolektibo baten babespean daude (plantillaren guztizkoaren % 68).


EROSKIn, gure giza taldearen kudeaketaren oinarriak dira erantzukizun partekatua eta lan ingurune ireki eta askotariko bat eratzea, pertsonak beren potentziala garatu eta lana eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko. Hona hemen gure kudeaketaren ardatzak:

- Soldata mailako elkartasuna.
- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Lana eta familia bateragarri egitea.
- Laneko osasuna eta segurtasuna.
- Garapen profesionala.
- Lan munduan txertatzea eta gizarte berri kuntza


I Langile kopurua, guztira



I Langile kopurua kontratu motaren eta autonomia erkidegoaren arabera




Langile kopurua kontratu motaren, generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera



Langileen urteko batez bestekoa, kontratu motaren, generoaren eta lan sailkapenaren arabera




Generoaren arabera



Lan sailkapenaren arabera

Zuzendaria	74	%0,3
Kudeatzailea	295	%1,4
Agintaria	1.139	%5,2
Profesionala	16.454	%75,8
Arduraduna	2.724	%12,5
Teknikaria	1.035	%4,8

Generoaren arabera




Lan sailkapenaren arabera

Zuzendaria	1	%0
Kudeatzailea	1	%0
Agintaria	16	%0,2
Profesionala	6.984	%98,0
Arduraduna	65	%0,9
Teknikaria	63	%0,9

Langileen urteko batez bestekoa, lanaldi motaren, generoaren eta lan sailkapenaren arabera




Generoaren arabera



Lan sailkapenaren arabera

Zuzendaria	74	%0,4
Kudeatzailea	293	%1,6
Agintaria	1.119	%6,0
Profesionala	13.665	%73,2
Arduraduna	2.538	%13,6
Teknikaria	978	%5,2


Generoaren arabera




Lan sailkapenaren arabera

Zuzendaria	1	%0
Kudeatzailea	3	%0
Agintaria	36	%0,4
Profesionala	9.773	%96,0
Arduraduna	251	%2,5
Teknikaria	120	%1,2


I Kontratazioen kopurua eta indizea, generoaren eta adin tartearen arabera




I Kontratazio kopurua autonomia erkidegoaren arabera



I Txandakatze kopurua eta indizea (borondatezko joatea, kaleratzea, erretiroa edo heriotza) generoaren eta adin tartearen arabera



I Txandakatze kopurua autonomia erkidegoaren arabera



I Kaleratze kopurua generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera, eta 2021eko datuen gaineko %-a

Sexuaren arabera



Adin taldearen arabera

< 30 urte	42	%9,9
30 - 50 urte	265	%62,2
> 50 urte	119	%27,9

Lan sailkapenaren arabera

Zuzendaria	0	%0,0
Kudeatzailea	7	%1,6
Agintaria	26	%6,1
Profesionala	318	%74,7
Arduraduna	57	%13,4
Teknikaria	18	%4,2

Soldata mailako elkartasuna

102-35; 102-36; 102-37; 102-38; 102-39; 202-1; 405-2

Soldata mailako elkartasunaren printzipioa erakunde osoan aplikatzen dugu, gure balioei jarraiki, eta gure kultura korporatiboa egunez egun jarduteko gure moduarekin bat dator. Ildo horretan, barne mailan, horrek esan nahi du erantzukizun txikieneko postuen eta goi zuzendaritzako postuen arteko soldata aldea txikia dela: zehazki, EROSKI Koop. Elkartean 2021eko soldata aldea 8,38 izan zen. Horrela, bada, ordainsari handiena jasotzen duen pertsonaren guztizko ordainaren eta gainerako langileen ordainaren medianaren arteko erlazioa 6,49 da Kooperatibari. Ratio hori askoz txikiagoa da IBEX 35eko enpresetakoena baino; haietan, eta 2019ko datuei erreparatuta, goi exekutiboan batez besteko ordainsaria 118 aldiz handiagoa da gainerako langileen batez besteko soldata baino. Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak izendatzen duten Balorazio Batzordeak du Kooperatibako ordainsari maila zehazteko ardura, lanpostu bakoitzean egin beharreko lanak eta horretarako beharrezkoak diren ahalmen eta gaitasunak aztertu ostean. Bestalde, izendapen eta Ordainsarien Batzordeak proposatzen dio Kontseilu Errektoreari goi zuzendaritzarako ordainsari politika. EROSKIko ordainsariak publikoak dira, berdinak gizon eta emakumeentzat, eta lanpostuaren araberrakoa, ez beste faktore batzuen araberrakoa, hala nola antzintasuna edo

banakako negoziatzea. Gainera, beharrezko giza baliabideak erakartzeko eta atxikitze, kanpoko lehiakortasunaren printzipioa erabiltzen da; alegia, sektoreko enpresetako ordainsarien maila orokortuenak hartzen dira aintzat ordainsariak zehazteko garaian. Hortaz, supermerkatuen hitzarmenari erreparatuta, gutxieneko oinarritzako soldata %4,6 handiagoa da Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldatarekin alderatuta. Bestalde, kanpo mailan, ordainsari mailako elkartasunak honako hau dakar berekin: Zuzendaritza Kontseiluaren ordainsaria merkatuko balioa baino % 65etik % 75era bitarte txikiagoa da. Hala, 2021. urte osoan, presidentearen eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen ordainsariaren guztizkoa, oro har, 1.117.921 euro izan zen, merkatuarekin alderatuta. Horrek ez dauka inolako zerikusirik IBEX 35eko enpresen errealitatearekin; izan ere, enpresa horietan, kontseilarien batez besteko ordainsaria EROSKIko Zuzendaritza Kontseiluko kide batek batez beste jasotzen duena baino 6 aldiz handiagoa da. Orobat, gure gobernu organo gorena den Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari finkorik edo aldakorrik jasotzen lan horren ordaintan (organo horren bileretara joateko gastuak izan ezik).

	EROSKI Koop. E.	Gainerako sozietateak
Soldata aldea	8,38	8,22
Erakundearen gehien irabazten duenaren urteko guztizko ordainaren eta gainerako langileen urteko guztizko ordainaren medianaren arteko ratioa	6,49	6,84
Urteko guztizko ordainaren igoeraren ratioa 2020tik 2021era	% 0,42 eta % 1,02 artean (gainera, urteko egutegian 61 ordu murriztu dira)	%1
Erakundearen gehien irabazten duenaren urteko guztizko ordainaren hazkundearen eta gainerako langileen urteko guztizko ordainaren medianaren arteko ratioa	0,99	1
Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta zuzendarien eta gainerako langileen batez besteko ordainsariaren arteko ratioa	3,48	4,41
Oinarritzako soldataren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko ratioa	+%28,1	+%4,6
Soldata arrakala haztatua, lan kategoriatan bakoitzak langileen guztizkoan duen garrantziaren arabera	%7,3	%6,5

Lanbide kategoriaren araberrako erreferentziazko ordainsaria berdintzea da kooperatibako gizonen eta emakumeen artean. Soldata arrakalaren arrazoiertako bat da lanbide kategoriatan beraren barruan emakumeen eta gizonen banaketa ez dela orekatua erantzukizun maila ezberdinen artean; bestea, ordainsarien indizeen bilakaera

historikoa da. Espero dugu soldata arrakala pixkanaka-pixkanaka murrizten joango dela kooperatiba barruko langileen berritze naturalaren ondorioz eta emakumeek lanbide kategoriatan beraren barruko erantzukizun handiagoko postuetan presentzia handiagoa izatearen ondorioz.

Berdintasunarekiko dugun konpromisoaren erakusgarri, azpimarratu nahi dugu gure langileen % 77 emakumeak direla eta, 2021eko datuen arabera, emakumeek erantzukizuneko lanpostuen % 74 betetzen dituztela. Ehuneko hori sektoreko batezbestekoa baino askoz handiagoa da.

Halaber, gobernu korporatiboko organoetako kide gehienak emakumeak dira. 2018an parekidetasuna lortu zen EROSKI Koop. E.-ren organo gorenean: Kontseilu Errektorean. 2021az geroztik, EROSKIren zuzendari nagusia emakumea da, Rosa Carabel, eta Prensa Ibérica Taldeak nabarmendu duenez, aldaketa gidatuko duten Espainiako emakumezko 20 zuzendarietako bat da.




**Konfekoop-en
"Kooperatiba+,
Berdintasun+" saria**

EROSKIk "Kooperatiba+, Berdintasun+" saria jaso du, mende erdiz zeharkako konpromisoa agertu izateagatik berdintasunaren alde. Sariaren helburua da emakumeak bistan jartzen dituzten kooperatibei aitorpena egitea, eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (Konfekoop) 2021ean lehen aldiz banatu du.



I Langileen banaketa generoaren eta lan kategoriaren arabera



Lana eta familia bateragarri egitea

401-3

Gure Berdintasun Planaren lan arloetako bat lana eta familia bizitza bateragarri egitea da. Arlo horretan, EROSKik beste baimen batzuk ditu legeek ezartzen dituztenez gain, eta bizitza pertsonala eta profesionala orekatzea ahalbidetzen duten laneko inguruneak eta ordutegiak bultzatzen ditu. Horrela, senitartekoak zaintzeagatik edo legezko zaintzagatik eszedentziak hartzeko edo lanaldia murrizteko aukera izateaz gain, EROSKik langileen beste proiektu pertsonal batzuen berezitasunak ere hartzen ditu aintzat, eta hala, aukera ematen die ageriko kausarik gabe lanaldia murrizteko,

murrizketa aldia amaitutakoan lanaldi osoa berreskuratzeko eskubideari eutsita, gainera. Bestela, borondatezko aldi baterako eszedentziak ematen ditu, lanpostuak gordeta, GKEekin lankidetzat proiektuak edo garapen pertsonaleko beste plan batzuk gauzatzeko.

Esaterako, 2021eko ekitaldian, 3.948 pertsonak (plantillaren % 14) baliatu dute lanaldi murrizketa edo eszedentzia.

I Guraso baimenen banaketa, generoaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2021an guraso baimena baliatu duten pertsonak, guztira	320	244	564
2021an guraso baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren pertsonak, guztira	176	163	339
Tasa de regreso al trabajo (porcentaje de personas que regresaron tras finalizar su permiso en 2021)	%79,6	%85,8	%82,5
2020an guraso baimen batetik itzuli eta 12 hilabeteren ondoren EROSKin jarraitzen duten pertsonak	243	135	378
Atxikipen tasa (12 hilabete geroago EROSKin jarraitzen duten pertsonen ehunekoa)	%91,0	%84,4	%88,5

I Lanaldi murrizketa duten langileak, generoaren eta kausaren arabera

	Emakumeak		Gizonak		Guztira
Legezko zaintzagatik lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	2.336	%97,3	66	%2,7	2.402
Senideak zaintzeko lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	278	%94,2	17	%5,8	295
Borondatezko lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	56	%94,9	3	%5,1	59

I Eszedentzian diren langileak, generoaren eta kausaren arabera

	Emakumeak		Gizonak		Guztira
Legezko zaintzagatik lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	215	%94,7	12	%5,3	227
Senideak zaintzeko lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	53	%98,1	1	%1,9	54
Borondatezko lanaldi murrizketa duten pertsonen kop.	654	%71,8	257	%28,2	911

Laneko osasuna eta segurtasuna

403-1; 403-2

EROSKIn lan proaktiboa egiten dugu, langile guztien segurtasuna eta osasuna babesteko eta hobetzeko konpromisoa gauzatzearren.

Laneko arriskuen prebentzioaren eta osasunaren arloko prestakuntzaren eta sustapenaren arloetan jarduten dugu, eta etengabe hobetzen ditugu laneko arriskuak prebenitzeko gure sistemak, eta enpresaren kudeaketa orokorrean txertatzen ditugu.

Laneko arriskuak prebenitzea

403-1; 403-2; 403-4; 403-5; 403-7

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzu propioa dugu, mankomunatuta, Taldeko sozietate guztietarako. Honako espezialitate hauetaz arduratzen da: laneko segurtasuna, industria higiena eta ergonomia, eta psikologia aplikatua. Osasunaren zaintza kanpoko prebentzio zerbitzuen bitartez egiten da.

Gainera, langileok arriskuak eta hobekuntzak identifikatzen parte hartzen dugu, eta proposamenak egiten dizkiogu aginte kateari eta Osasun eta Segurtasun Batzordeei (hainbat arlotan jarduten dute), baita sozietate ordezkaritzako beste organo batzuei ere (haietan, EROSKiko langile guztiak daude ordezkaturak). Horrela, laneko osasun eta segurtasunarekin lotutako gaien % 100 jorratzen dira.

2021ean plantillaren laneko arriskuak prebenitzeko ekintzak gauzatu dira. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Arauzko kanpo auditoretzak negozio guztietan.
- Taldeko negozioen prebentzio planak berrikustea eta eguneratzea, baita arriskuen ebaluazio orokorrak eta lanpostu edo zereginen ebaluazio ergonomikoak ere.
- Prebentzioko barne auditoretzak eta ikuskapen programatuak. Azken horiek zentroetako ikuskaritza taldeek egiten dituzte, eta ondoren, antzemandako akatsak murrizteko eta hobetzeko proposaturiko neurrien jarraipena egiten dute.
- Larrialdietako simulakroak, languneetan bertan, ebakuatuz edo ebakuatu gabe.

- Ingurumen baldintzen neurketak, argiztapenagatik, tenperaturagatik edo hezetasunagatik arazoak antzeman diren zentroetan.
- Prestakuntza. Prebentzioari buruzko oinarritzko ikastaroak eta lanpostuko arriskuei edo larrialdietako jardueri buruzko trebakuntza espezifikoak eskaini dira.
- Istripu arriskuaren jarraipena egitea eta neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Norbera Babesteko Ekipoak (NBE) berrikustea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko sentsibilizazio kanpainak.

I Laneko istripuen tasa, motaren arabera

Istripu erregistragarriak

25,9
Baja eragin duten laneko istripu erregistragarrien tasa (arinak eta larriak), lan egindako milioi bat ordu bakoitzeko



Istripu arinak

25,8 Baja eragin duten laneko istripu arinen tasa, lan egindako milioi bat ordu bakoitzeko



Laneko istripuen kausak:

- %35,6**
Gehiegizko esfortzua
- %14,3**
Langileen erorikoak, maila berera edo desberdinera
- %14,5**
Ebakiak
- %35,6**
Beste kausa batzuk

Eragile materiala:

- %39,0**
Elikagaiak, beirak, plastikoak edo ontziratutak
- %9,5**
Metalezko produktuak eta tresnak
- %6,6**
Orgatilak edo antzekoak.
- %44,9**
Otro agentes materiales


Istripu larriak

0,1 Baja eragin duten laneko istripu larrien tasa, lan egindako milioi bat ordu bakoitzeko



0 in itinere istripu, erakundeak kudeatutako garraioan


0 heriotza laneko istripuen edo gaixotasun profesionalen ondorioz



I Bajadun istripu arinen banaketa, autonomia erkidegoaren arabera

Istripu arinak

1.172
Erregistratutako istripu arinak.



Baja eragin duten lau istripu larriak Coruñan, Bizkaian, Nafarroan eta Zaragozan gertatu dira.

I Laneko arriskuei aurea hartzeko prestakuntza tasa

Prestakuntza motak	
Hasierakoa edo lanpostuko arriskuei buruzko espezifikoa	%70,7
Oinarrizkoa LAP	%18,5
Laneko ekipamenduen erabilera	%5,3
Laneko jarraitbideak	%0,4
Bestelako prestakuntza programa batzuk	%5,1

43.329
Prestakuntza-ordu laneko arriskuen prebentzioari buruz

1,5
Langile bakoitzeko batez besteko prestakuntza orduak

Osasunaren zaintza

403-3; 403-9; 403-10


EROSKIn kanpoko prebentzio zerbitzu bat dugu hitzartuta osasunaren zaintzaren espezialitaterako. Zerbitzu horrek honako mediku azterketa hauek egiten ditu: ospitaleratzeak; aldizkakoak, lanpostuaren arriskuaren arabera; iraupen luzeko bajen ostekoak; lanpostu zehatzetako nahitaezkoak; haurdunaldietan; eta langile sentikorren balioespen medikoak.

Bestalde, eta kontingentzia profesionalari dagokionez, mutualitatearekin berrikusi eta koordinatzen ditu gaixotasun profesionaltzat jotako kasu guztiak.

I Gaixotasun profesionalen tasa

1,2

Baja eragin duten gaixotasun profesionalak, lan egindako milioi ordu bakoitzeko




I Laneko absentismo tasa

%8,3

Laneko absentismo tasa (gaixotasunagatiko, gaixotasun profesionalagatiko eta laneko istripuagatiko absentzia orduaren ehunekoa/lanordu teorikoak)

3.790.640

Absentismo orduak



Gure lantokietako prebentzio eta babes neurriak, COVID-19agatik

2021ean ere pandemia egoeran jarraitu dugu, nahiz eta gaitzaren eragina txikiagoa izan, eta, zentzu horretan, gure kezka nagusia beti izan da gure taldeen eta bezeroen osasuna eta segurtasuna bermatzea. Horregatik, COVID-19aren osasun krisia dela eta, honako jarduerak hauek egin ditugu, besteak beste, gure langileak babesteko:

- 2020an egindako jarduketako protokoloak mantentzea, eta Osasun Ministeriotik eta erakunde autonomikoetatik une bakoitzean helarazi denaren arabera aplikatzea.
- Gaixotasunaren sintomak dituzten pertsonen kasuan eta koronabirusaren kasu positibo baten aurrean jarduteko protokoloari jarraitzea.
- Lantokietan babes neurri fisikoak eta seinaleak mantentzea, baita kutsatzea prebenitzeko higieine neurriak ere.
- Egunero garbitzea birusen kontrako produktuekin, eta, langileren batek positibo emanez gero, garbiketa zuzentzaileak egitea.
- Osasuna zaintzeko kontratatutako kanpoko prebentzio zerbitzuaren osasun arloari jakinaraztea COVID-19aren kasu positibo baieztatuak eta horiek izan ditzaketen kontaktu zuzenak, ikertzeko (2022ko urtarilaren 1era arte).

Garapen profesionala

404-1; 404-2

EROSKIn gure profesionalen garapenarekin konprometituta gaude, bai dendetan, bai egitura, plataforma edo bestelako negozio dibertsifikatuetan.

Garapenaren eta Prestakuntzaren ikuspegia txertatzen dugu pertsonen plangintza estrategikoaren testuinguruan eta erakundearen estrategiaren beraren esparruan. Gure helburu estrategikoa bideragarria izateko, ezinbestekoa da EROSKI osatzen duten pertsonen trebakuntza izatea, erakundea eta haren merkatuak ulertzea, eta taktikak ezagutzea eta erabiltzen jakitea. Pertsonen talentuak estrategia ahalbidetzen du.

Eta hori egitean, barne talentua garatzeko eta kudeatzeko konpromisoa hartzen dugu oinarri, horixe baita hazteko eta txandakatzea ahalbidetzeko bide nagusia. Pertsonen ahalik eta gehien garatzen eta hazkunde profesional handiena lortzen laguntzen die, ikaskuntzako ekosistema askotariko bat buitzatzen du, eta pertsona prestatu egiten du, bere hazkunde profesionalaren ardura bere gain hartzeko eta lanpostura etengabe egokitzeko.

Horretarako, ebaluazio eta garapen ekintzak egiten dira, norberaren aurrerapenen eta erakundearen karrera planen arteko koherentziari eutsiz, pertsonen ahalik eta ekarpenik handiena egin diezaioten erakundearen egungo eta etorkizuneko estrategiari.

2021ean, 1.581.909 euro bideratu dira prestakuntza programetara (hau da, 2020an baino % 77 gehiago), eta guztira 176.297 ordu izan ditugu gure langileak trebatzeko; hau da, batez beste 6,11 ordu langile bakoitzeko.

Prestakuntza orduen kopurua % 60,9 handitu da 2020arekin alderatuta (66.748 ordu gehiago). Garapen profesionala pandemia betean landu behar izan dugun bigarren urtea izan da 2021a, eta gure eritimoa normalizatuz joan da, aurreko urteekin alderatuta. Horretarako, gure ikaskuntza eredu metodo berrietara egokitzen jarraitu dugu, modalitate ez-presentzialetan urrutitik irakasteko aukera izateko, eta tresna teknologikoak eta digitalak eta lotutako ikaskuntza baliabideak egokitu ditugu.

2021ean, 43.686 prestakuntza ordu egin dira online prestakuntza kanalen bidez (2020an modalitate horretan emandako orduen bikoitza). Online emandako prestakuntza orduak urteko prestakuntza ordu guztien % 25 izan dira. Hala eta guztiz ere, prestakuntza saio presentzialak egokitzen jarraitu dugu, betiere segurtasun neurriak betez eta pandemiaren fase bakoitzean dagozkion murrizketak eginez. Horrela, ordu presentzialetan % 51eko igoera lortu ahal izan dugu 2020arekin alderatuta.



2021eko prestakuntza programa nagusiak

403-3; 403-9; 403-10

ORAIN prestakuntza ekintza EROSKlren egoitzetan

ORAIN es la denominación de acción formativa que se despliega en las sedes del Grupo. Integra formaciones presenciales y *online* a todos los colectivos y en muy diferentes ámbitos de conocimientos. Es un programa que viene siendo referente de la formación en sedes durante muchos años consecutivos.

Zuzendaritza Garapena eta Talentuaren Kudeaketa

Talentuaren kudeaketan jartzen dugu arreta; izan ere, horri esker, EROSKl pertsona eta talde egokiak dauzka eta gaitasun egokiak bermatzen ditu, egungo eta etorkizuneko estrategia betetzeko, eta, talentua zuzendaritza posizioetan txertatuz eta garatuz, lehiakortasuna bermatzeko. Zuzendaritza eginkizunak dituzten 63 pertsonarekin banaka lan egiten dugu, eta 20 pertsona baino gehiagorekin Potentzialen pool batean; 1.370 prestakuntza ordu guztira.

Zuzendaritza Batzordeei akonpainamedua

2021ean, Elorrioko egoitzan egindako bost Zuzendaritza Batzordetan kanpoko akonpainamendua izan dugu, lan dinamikak monitorizatzeko eta hobetzeko. Hurrengo urteetan ere berdin egiten jarraituko dugu.

Summa EROSKlren egoitzan eta Retail Espezializazioa CAPRABOren egoitzan

Bi programa horien bidez, profil teknikoko pertsonak prestatu nahi dira, kudeaketa funtzioetan jarduteko. Ikaskuntza prozesuan intentsitatea eta ahalegina uztartzen dira, arlo bakoitzean aukeratutako pertsonen parte hartzearekin eta konpromisoarekin. 2021ean, 25 pertsonak ikasgelako 958 prestakuntza ordu eta proiektuen bidezko 60 prestakuntza ordu egin dituzte.

Eredu kooperatiboari buruzko prestakuntza

Zenbait prestakuntzaren bidez gure eredu kooperatiboa eta lortu nahi dugun zuzendaritza estiloa lantzen ditugu. Nabarmentzekoak dira Kontseilu Sozialak Kooperatiban dituen ordezkariak prestatzeko programak, bazkide berriei harrera egiteko prestakuntza programa ("Berezia" izenekoa), Kontseilu Sozialeko eta Kontseilu Errektoreko kideentzako prestakuntzak, eta "Sozietate lidergoa" izeneko programa, helburu duena testuinguru egokiak sortzea Kooperatibaren jabe diren pertsona horiek modu nabarmenean eta arduratsuan jardun daitezen. Eremu horietan, 3.813 prestakuntza ordu egiten ditugu.


Produktu freskoen eskolak salmenta puntuan

2021ean, dendan produktu freskoekin lan egiten duten profesionalentzako eskolak egiten jarraitu dugu. Produktu freskoen sekzio guztietarako planteatzen dira eskolak, bai eta hainbat mailatan ere (Fresh Master espezialistak gehiago profesionalizatzen dituen eskola da, nor bere sekzioan benetako aditua izan dadin).

Salmenta puntuko agintarientzako Goazen programa

Goazen programa produktu freskoen eta elikagaien arloko eta supermerkatuko kutxen arduradun berriei zuzenduta dago, funtzio berri horretarako behar dituzten ezagutzak eskuratu ditzaten. 2021eko deialdietan 32 pertsonak parte hartu dute.

Batez besteko prestakuntza orduak, generoaren eta lan kategoria-



Langileen prestakuntza orduak, generoaren eta lan kategoriaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaria	259	1.112	1.370
Kudeatzailea	1.518	1.951	3.469
Agintaria	11.649	7.121	18.769
Profesionala	88.591	27.554	116.144
Arduraduna	13.813	4.358	18.171
Teknikaria	10.685	7.690	18.375
Guztira	126.514	49.783	176.297

Sustapen profesionala

404-3

Lanpostuz igotzeko aukera prozesu naturalizat hartzen dugu gure langileen bizitza profesionalean, eta gaikuntza profesionalean eta jardueraren kalitatean oinarritzen da. lido

horretan, 2021an, gure langileen % 0,9 igo da mailaz; hau da, 257 pertsona, eta horietatik % 72 emakumeak.

Jardunaren eta garapen profesionalaren aldiari behingo ebaluazioa egiten zaien pertsonen kopurua eta ehunekoa

13.961
Ebaluatutako pertsonak

11.135 (%79,8)
Emakumeak

2.826 (%20,2)
Gizonak

%80
Ebaluatutako pertsonen %-a, ebaluaziopekoet dagokienez

%81,1
Emakumeak

%75,2
Gizonak

%49
Ebaluatutako pertsonen %-a, langileen guztizkoari dagokienez

50,8
Emakumeak

43,8
Gizonak

Ebaluatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa langile guztiei dagokienez, lan kategoriaren eta generoaren arabera

44
Zuzendaria

15 (%83,3)
Emakumeak

29 (%76,3)
Gizonak

10.035
Profesionala

8.371 (%46,8)
Emakumeak

1.664 (%35,2)
Gizonak

216
Kudeatzailea

98 (%79,0)
Emakumeak

118 (%67,4)
Gizonak

1.980
Arduraduna

1.601 (%69,2)
Emakumeak

379 (%78,3)
Gizonak

942
Agintaria

635 (%66,7)
Emakumeak

307 (%57,6)
Gizonak

744
Teknikaria

415 (%67,8)
Emakumeak

329 (%66,9)
Gizonak

Krea: berrikuntzaren eta autogestioaren kultura kooperatiboa

Errekonozimendu Korporatiboko Krea Sariak EROSKI Taldeko negozio guztietako taldeen asmatena eta ekimen berrikuntzaileak saritzen dituzte.

Zortzi urteko ibilbidearen ondoren, ideia disruptiboak hazitegi bihurtu dira Krea Sariak, irtenbide berriak sustatzeko gaitasuna eta erakunde osora zabaltzeko bokazioa duten ideien hazitegi. Saritutako ideiak indarrean dagoen esparru estrategikoarekiko koherenteak izaten dira, eta gure erakundearen nortasuna eta sektorean lortu nahi dugun posizionamendua hobekien definitzen duten printzipioak eta zutabeak sendotzen laguntzen dute.

2021eko edizioan, pandemiak eragindako zailtasunak gorabehera, parte hartzea Covid-19aren aurreko mailan mantendu da, kantitateari eta kalitateari dagokienez.

Sariak hiru kategoriatan egituratzen dira (Elkarrekin, Bezeroak eta Denda Segurua), eta orain arteko ibilbidean dagoeneko 1.300 hautagaitza baino gehiago egon dira. Denbora horretan guztian, hautagaitza irabazleentako askok jatorrizko dendaren eremua gainditu dute, eta denda sare osoan ezarri dira azkenean.

Ekintzaile frankiziadunak

Beren EROSKI supermerkatua izan nahi duten langile bazkideek Frankiziako "Zurekin" programari heltzeko aukera dute. Bertan, baldintza bereziak, supermerkatu bat (giltza eskura), prestakuntza espezializatua, eta zerbitzu zein abantaila pertsonalizatuak eskainiko dizkiegu, baita dendak kudeatzeko tresna aurreratuak ere. Gainera, konfiantzazko marka baten babesa izango dute: EROSKI. Horrez gain, finantzaketa erakundeekin eta Enpresaburu Gazteen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) akordioak ditugu, behar duten babesa emateko eta ekintzaileak sustatzeko.

2021ean 65 frankizia inauguratu dira, eta horietatik erdia baino gehiago gurekin dendak zituzten frankiziadunak izan dira. Horrek agerian uzten du EROSKiren denda frankiziatuen egonkortasuna eta sendotasuna. Gure frankiziadunen % 96 gomendatu egiten gaituzte eta gure ekipoen bidez emandako aholkularitza eta laguntza eskertzen dituzte.



Lan munduan txertatzea eta gizarte berrikuntza

406

EROSKIn, kolektibo guztiak lan merkatuan txertatzearen aldekoak gara eta horrekin konprometituta gaude. Enplegu publikoko zerbitzuekin eta Hezkuntza Ministerioaren sareko zentroekin elkarlanean jarduten dugu eta, hartara, lanerako prestakuntzaren bitartez, langabezian dauden ikasle gazteak eta gizartean bazterfuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan munduan txertatzen dira.

Nazioan, besteak beste, Gurutze Gorriarekin, Cáritas edo la Caixaen Incorpora fundazioarekin lan egiten dugu. Eta Autonomia Erkidegoari dagokionez, besteak beste, Gureak, Erroak-Sartu eta Ilundain erakundeekin.

2021ean, lan munduan txertatzeko programa hauek nabarmentzen dira:

■ **Produktu freskoetan espezializatzeko programa, retail sektorean**

Programa hau 2018an sortu zen, produktu freskoen arloetan langile espezializatuak behar zirelako eta gure Plan Estrategikoaren erronkei erantzun ahal izateko. Ikasleak hainbat Ostalaritza Eskolatak Sukaldaritzako eta Gastronomiako Erdi Mailako Ziklokoak dira. Programa 2020ko ekainaren 7an hasi zen, eta 2021eko ekainaren 30ean amaitu. Guztira 1.535 prestakuntza ordu eman dira. Parte hartu duten 14 ikasleetatik %67k lan kontratua lortu dute EROSKIn.

■ **Enplegarritasun programa**

Programaren helburua da langabeen garapen pertsonalean eta profesionalean lagunduko duen prestakuntza bultzatzea eta egitea, gure enpresan haien enplegarritasuna hobetzeko eta lanpostuz igotzeko aukera emateko. Ikastaroak arrandegi, harategi eta urdaitegi sailatarako dira, eta, amaitzean, ikasleek titulu homologatua lortzen dute. 2021ean 6.000 prestakuntza ordu eman dizkiegu 50 ikasleri, eta horietatik % 58k gure enpresan lanean hastea lortu dute.

Supermerkatu inklusiboak

EROSKik desgaitasuna duten pertsonentzako enplegarritasun eredu zabalitzen jarraitu du; 2015ean Gureak-ekin, 2017an CAPRABOn Ampans-ekin eta 2019an VEGALSA-EROSKIn Soltra-rekin hasitako eredu zabalitzen, alegia. Ekimenaren bitartez, lan munduan txertatzeko aukera berriak eskaini nahi dizkiegu bestelako gaitasunak dituzten pertsonari. 2021. urtean, sarean ditugun sei supermerkatu inklusibo frankiziadunei eutsi diegu.

Era berean, gizarteratzea sustatzen dugu gure balio katean. Horregatik, hornitzaileekin lankidetzan aritzen gara, hala nola Freshcut Galizian (Galifresh markaren fabrikatzailea), eta Ampans fundazioa Katalunian (Muntanyola gaztak merkaturatzen ditu); adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten eta egoera ahulean dauden pertsonen laneratzea sustatzen dute. VEGALSA-EROSKik Mulleres Col·leites Kooperatibarekin sinatutako lankidetz hitzarmenari eutsi dio; hitzarmenari esker, Coruña-ko establezimendu sarean erabilitako olio bildu eta kudeatzen da, ingurumena babesten eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden emakumeak laneratzen laguntzeko.

Desgaitasuna duten langileen banaketa generoaren eta lan kategoriaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Desgaitasuna duten pertsona guztiekiko (%)
Zuzendaria	0	1	1	%0,3
Kudeatzailea	0	2	2	%0,6
Agintaria	9	5	14	%3,9
Profesionala	202	111	313	%87,2
Arduraduna	17	6	23	%6,4
Teknikaria	4	2	6	%1,7
Guztira	232	127	359	

Irisgarritasuna gure supermerkatuetan

Bezeroek gure supermerkatuetan duten irisgarritasunari dagokionez, gure establezimenduek arlo horretan indarrean dauden legeak betetzen dituzte. Dendak irekitzeko eta zaharberritzeko proiektu guztiak agintaritza eskudunek egiaztatu ondoren onartzen dira. Era berean, mugikortasun urriko pertsonari zuzendutako zenbait hobekuntza sartzen dira gure ereduari: fruta pisatzeko balantzak baxuago jartzea, garaiera murriztua duten informazio mahaiak, eta orga bereziak.

2021ean aurrera jarraitu dugu, ikusmen urritasuna duten pertsonentzat erosketak inklusibo bermatzearen gure zentroetan. EROSKI Inclusive programaren esparruan, eta ONCE Fundazioaren laguntzarekin, VEGALSA-EROSKiko langileek prestakuntza espezializatua jaso dute kolektibo horri arreta emateko. Gainera, "Ikusmen desgaitasuna duen bezeroaren arretarako gida" argitaratu da, dendako taldeei ikusmen desgaitasuna duten bezeroei beharrezko laguntza emateko oinarritzko jarraibideak emateko. Gainera, Malagako Diputazioaren Oztoporik Gabeko Guneen Sarea programarekin bat egin dugu, autismoa eta beste behar kognitibo batzuk dituzten pertsonentzako espazio irisgarriak sortzeko.

Aipatzekoa da, halaber, VEGALSA-EROSKiren Pérez Cepeda zentroko "Zure ordua" berrikuntza ekimena, gure Krea Saria irabazi duena. Ekimen horren helburua da autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen kolektiboaren behar bereziei erantzutea eta eguneko epe jakin batean dendako instalazioak modu seguruan erosi ahal izateko egokitzea. Astean bi egunetan, ordubetez, estimuluen karga sensoriala murrizten da (besteak beste, megafonia, musika, argi intentsitatea eta kuxxako soinua). Gainera, piktogramak jarri dira, autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonari irudiek zenbait dinamika ulertzen laguntzen dietelako (besteak beste, fruta poltsetan sartzeko edo korridoreetan produktuak aurkitzeko).

4

Kalitatearen
eta
osasunaren
aldeko
konpromisoa





Osasuna gure eskaintza komertzialetik

416-1

Erakunde gisa, gure helburu nagusia da kontsumitzaile guztiei elikadura osasungarria eta orekatua ematea. Ez diegu soilik era aktiboan entzuten; horretaz gainera, zenbait jardura gauzatzen ditugu gure produktu guzti-guztien kalitatea ziurtatzeko, baita prebentzioaren arloan hezteko ere jateko ohiturei loturiko osasun arazo jakinen inguruan; besteak beste, pisu gehiegia eta gizentasuna, batik bat haurrena.

EROSKIn, apustu egiten dugu elikadura orekatua eta segurua bermatzeko gai diren produktuetan oinarritutako eskaintza komertzialaren alde, eta eskaintza horretan sartzen da behar espezifikoak dituzten kolektiboen nutrizio arloko beharrianak estaltzea; esaterako, gaixotasun zeliakoa dutenena.

Era berean, osasunaren eta elikaduraren inguruan egiten ditugun proposamenak bat datoz komunitate zientifikokoak aipatzen dituen behar eta lehentasunekin. Horretarako, EROSKI Fundazioaren Batzorde Zientifikoa dago, osasun arloko profesional independente espezializatuz osatua eta 2020an berritua. Batzorde horrek epe erdira eta luzera begirako estrategia zehazten digu, elikadura osasungarriaren arloan hartua dugun konpromisoa bete dezagun. Urtean behin elkartzen da gutxienez, eta laguntzen digu arrakasta berme handiagoarekin heltzen datozen urteetan Osasunaren eta Jasangarritasunaren arloan jarraituko diogun estrategiari.

Batzorde Zientifikoko kideak

- Marta Arroyo doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia eta Elikagaien Zientzia Sailekoa.
- Juan Carlos del Olmo, WWFko idazkari nagusia.
- Jordi Salas doktorea (URV), itzal handiko irakaslea eta Biokimika eta Bioteknologia Sailaren Nutrizio Unitateko zuzendaria Rovira i Virgili Unibertsitatean, Gizentasun Morbidoaren Unitateko koordinatzailea Reusko Sant Joan Unibertsitate Ospitalean, Nutrizio Programako ikertzaile nagusia Karlos III.a Institutuan eta zuzendaria Ikerketa Katalanen Institutuko Zentro Katalanean.
- Bittor Rodriguez doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia eta Elikagaien Zientzia Sailekoa.

2021ean, gainera, Batzordeak ingurumen jasangarritasunari buruz egindako bileretan izan dira Celsa Peiteado (WWFren Elikagai Programako arduraduna) eta Felipe Fuentelsaz (WWFren Ekoizpen Agroalimentarioko Nekazaritza eta Estantarrak Proiektuen koordinatzailea).



Elikadura arloko kalitatea eta segurtasuna

102-11, 416-1

EROSKI Taldearen Kalitatea Kudeatzeko Eredua prozesu giltzarria da bezeroei produktu segurua bermatzeko orduan. Zenbait arau, prozesu, prozedura, tresna eta definizioen arabera egituratzen da. Elementu horiek elkarri loturik doaz balio kate guztian, eta bermatzen dute merkaturatzen

ditugun produktuek berme guztiak betetzen dituztela elikagaien segurtasunaren aldetik.

2021ean, ikuskaritza planean eta produktuaren kontrolerako planean zetozen jarduerak bete ditugu.

Ikuskapenak saltokiei eta plataformei

Kalitatea eta higiena zaintzen ditugu gure saltoki eta plataforma logistiko guztietan, eta, hori bermatzeko, ikuskapen protokolo exhaustibo bat dugu. 2021eko ekitaldian, 938 ikuskapen egin zituzte gure saltoki eta plataformetan, eta honako alderdi hauek kontrolatu zituzte:

- Hotz katearen mantenimendua eta hornidura katearen kalitatea.
- Egoitzen higiena eta garbiketa.
- Trazabilitate sistemak produktu guztientzat.
- Produktuen kalitate mikrobiologikoa.
- Elikadura alertak kudeatzeko sistema eta produktuak kentzea.
- Kalitatea kontrolatzeko sistemak eta tresnak.

Auditoretzetan gorabeheraren bat antzemanaz gero, hura arintzeko beharrezkoak diren ekintza zuzentzaileak eta jarraipen-planak ezarriko ditugu.

Ikuskapenak hornitzaileei

Gure balio katearen parte da hornitzaileei ere helaraztea gure kalitate estandarrak eta produktuen eskakizunak:

- Europa mailako kalitate eta segurtasun estandarrak bultzatzen ditugu, hala nola International Food Standard Ziurtagiria (IFS).
- Produktu freskoetan, eskakizun zorrotzagoak jartzen ditugu, garrantzitsua baita horiek nola ekoizten, kontserbatzen eta garraiatzen diren.
- Ikuskatzeak egiten ditugu, eta behar diren ekintza planak ezartzen ditugu ez-konformetasunak detektatuz gero. Erremediatu direnean eta dagokien ikuskaritza gainditu dutenean, hornitzaileak homologatu egin daitezke.

- 2018tik ikuskapen programa espezifiko bat dugu lehen sektorerako (haragiaren, baratzezaintzaren eta arrainaren sektoreetarako).

2021ean, 343 ikuskapen egin genizkien marka propioko hornitzaileen ekoizguneei. Ikuskaturiko hornitzaile guztien %87k ondo gainditu zuten azterketa. Gainerakoek neurri zuzentzaileak aplikatu zituzten, edo utzi egin zioten EROSKIn hornitzaile homologatu izateari. Horretaz gainera, beste marka batzuetako hornitzaileen 46 ekoizgune ikuskatu genituen, eta %61ek gainditu zituzten.

Produktuen eta zerbitzuen kontrol analitikoak

Gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea birritan bermatzen dugu, hornitzaileek eta fabrikatzaileek egiten dituzten kontrolez gain guk geuk egiten ditugulako kontrol analitiko exhaustiboak. 2021ean, 22.906 lagin analizatu genituen, eta horietatik %98k lotu zuten emaitza egokia. Hiru analisi mota egiten ditugu:

- **Kimikoa:** osasunerako eta segurtasunerako esanguratsua den substantziarik ez dagoela edo kopuru egokietan dagoela bermatzen dugu.
- **Mikrobiologikoa:** ez dagoela patogenorik eta egoitzen higieneari eta freskotasunari eusten zaiela bermatzen dugu.
- **Genetikoa:** animalia eta landare espezieak identifikatzen ditugu, eta genetikoki eraldatuta dauden organismoak detektatu.

I Laginak programa analitikoaren arabera, 2021ean egindako analisietan

Programa analitikoak	Analitika kopurua
Olioak	135
Trans erako gantz azidoak	10
Akrlamida	156
Ura	100
Alergenoak	486
Analisi sentorial konparatiboak Fruta	594
Erregaiak	170
OCU konparatiboak	12
Kutsatzaileak	69
Listeriaren kontrola zoruetan	2.712
Zoruen kontrola dendetan	5.650
Drogeria eta kosmetika	203
Ontziratze propioak	397
Erreklamazioen azterketa	12
Bizitza erabilgarriaren gaineko azterketak	962
Fruta Natur Fisiko-kimikoak	371
Izotza	183
Histamina	33
Arrautzak	63
Hezetasuna urdaiazpikoetan	8
Espezieen identifikazioa	64
Esnea	39
Listeria	195
Arriskua duten lokalak	1.207
Eskuztatuak	514

Programa analitikoak	Analitika kopurua
Eskuztatuak Harategia	536
Manipulados Urdaitegia	2.170
Maskarak	5
Metal astunak	103
Mikotoxinak	65
Mikrobiologia gaztetan	22
Mikrobiologia orokorra PATOGENOAK eta HIGIENEA	268
Eztia	12
Ontzien migrazioa	18
Maskor biko moluskuak	16
Elikadurakoak ez direnak	714
OGEak	36
Gantz motaren soslaiak	140
Haragi/janari prestatuak	1.879
Hondakin fitosanitarioak	698
Haragi-arrainetako medikamentu hondakinak	229
Salmonella	385
MGF Fruta eta Barazkien jarraipena	22
Standis Sushi	114
Turroiak	62
Fitxa Teknikoaren egiaztapena	712
Zukuak	355
Guztira	22.906
Ondo atera EZ diren analitikak guztira	440
Ondo atera EZ diren analitiken ehunekoa	%2

Elikadura osasungarria eta orekatua

416-1

Osasunarekin dugun konpromiso ukazina dela eta, saltzen ditugun produktuen elikagaien segurtasuna bermatu baino gehiago egiten dugu. Kontsumo aukera orekatsuagoak eta osasuntsuagoak eskaini nahi ditugu. Alde horretatik,

etengabe berrikusi eta hobetzen ditugu haien fitxa teknikoak, osasun adituek emandako gomendioei jarraituz.

Produktuaren hobekuntza nutrizio aldetik

EROSKIn gure produktu guztien osagaietan lan egiten dugu nutrizio aldetik duten soslaiak etengabe hobetzeko.

2021ean, nabarmentzekoa da palma gantza ezabatu izana gure markako produktu guztietan. Helburu hori betetzeko, lau urtean jardun gara lanean ehun lagun baino gehiago, eta 308 produktu birformulatu ditugu 43 ekoizlerekin elkarlanean.

Lehenengo goxotasunari, harrotasunari eta samurtasunari eustea izan da erronka, baina osasungarriagoak eginez, esaterako oleiko ugariak ekilore olioaren erabilera. Denbora honetan guztian, hainbat eta hainbat proba egin ditugu zenbait gantz eta osagai proportzio jakinetan erabilera, eta entsegu eta dastatze saio zorrotzak ere egin ditugu adituekin. Lan handia eta sendoa izan da, eta eskuz esku aritu gara EROSKIn teknikariekin eta gure hornitzaileen I+G, Kalitate eta Ekoizpen arloekin.

Landare jatorriko beste olio batzuek ez bezala, palma olioak ugari ditu gantz azido saturatuak: ia %50; oliba olioak, berriz: %16. Eta gantz saturatu ugariak dieta egiteak lotura dauka bihotz-hodietako gaixotasunekin. Bestalde, palmondoaren monolaborantza hedatzen ari da, palma olioaren lortzeko hain zuzen, eta hori kalte handia egiten ari zaio ingurumenari. Askotan inolako kontrolik gabe egiten da monolaborantza intentsibo hori, ingurua zaintzeko inolako neuririk hartu

gabe, eta horrek deforestazioa eta bioaniztasunaren galera eragiten ditu (oso agerikoa Indonesian eta Malaysian).

Palma olioaren ezabatu ez ezik, beste ekintza lerro batzuk ere garatu ditugu gure produktuak nutrizio aldetik hobetzeko:

- Gure gizarteko patologia orokorrenak (bihotz-biriketako gaixotasunak eta gizentasuna) sorrarazten dituzten mantenuak gutxitzea. 2021ean, gure markako gamaren %73k baino gehiagok A, B edo C balorazioa lortu dute Nutri-Scoreren eskalan.
- Nutrizio aldetik marka propioan kalitate handiagoa (aurrealdeko Nutri-Score etiketaren bitartez adierazia) duten produktuen salmentak sustatzea. A, B eta C izan dira saldatutako unitateen %81, eta Nutri-Score duten produktuen salmenten gutxiak %72koa izan da; horrek esan nahi du 2020ko datuekin alderatuta 2,13 eta 1,44 puntuko igoera izan dutela hurrenez hurren.

2021an, 106 produktu izan ditugu gantz gutxiak, 66 azukre gutxiak, 30 gatz gutxiak eta 103 zuntz askok.

Menu osasungarriak

Elikadura osasungarria pertsona guztientzat eskuragarria egiteko dugun konpromisoaren garapenera begira, 2021ean, ekimen bat atera genuen, kontsumitzaileei eskaintzen diena menu osasungarria eramateko plana pertsonako euro bat gastatuz. Dieta mediterraneoan oinarritutako elikadura ereduaren egituratuta daude menu horiek, eta gure dietan ohikoak izan behar duten elikagai-taldeetako produktu fresko ugari osatuta daude. Elikagai prozesatuen kasuan, Nutri-Scoren A eta B kalifikazioak dituzten produktuak dira guztiak. Bi astez eguneko lau otorduetan jan beharrekoaren plangintza dakarte, baita errezetak ere, pausoz pauso azalduak proposatutako plateretako batzuetarako.



Produktuek nutrizio eta oreka aldetik dakarten informazioa

417-1

EROSKIn konturatzen gara kontsumitzaileei ematen diegun informazioa zein garrantzitsua den haien interesak zaindu eta babesteko; izan ere, horrela bakarrik har ditzakete beren beharren arabera erabakiak. Hori dela eta, informazio zabala, osoa eta egiaztetako eskaintzen dugu haren edukiaz eta elikadura osasungarria edukitzearen garrantziaz.

Aldi oro, produktu bakoitzaren etiketen arloan dagoen legedia betetzen dugu, baita geure markari jartzen dizkiogun eskakizunak ere; gainera, informazio gehigarria ematen dugu alergenok identifikatzea errazten duten piktogramekin eta nutrizio arloko informazio sistemekin, dela Semaforo Nutrizionala eta dela Nutri-Score. Baldin eta, ekoizpen kateko hutsigiteren bategatik, erroren bat izango balitz produktuaren segurtasunean edo ontziak dakarren informazioan, produktua berehala kenduko genuke apaletatik

gure protokolo zorrotzaren medioz. Ikuskarpen horiek eginda eta kontsumitzaileei entzunda, etiketan informazioa nola eman optimiza dezakegu, errazago ulertzeko modukoa izan dadin.

Etiketez gain, lan egiten dugu eskuorrietan, dendako karteletan eta webgunean datorren informazioa hobetzeko ere. Hala, haurrentzako produktuen publizitatea egokitu egin dugu PAOS Koder (adingabeentzako elikagaien Autoarautze Kodea eta Gizentasunaren eta Osasunaren Prebentzioa), zeina Elikaduraren Nutrizioaren Espainiako Agentziaren NAOS estrategian datorren.

EROSKIn nutrizio arloko informazio sistema aurreratua: Nutri-Score eta Semaforo Nutrizionala

2018an, 10.000 laguni baino gehiagori entzunda, aitzindariak izan ginen Nutri-Score etiketa txertatzen, eta 2021 honetan burutu dugu prozesua. Guztira, marka propioko 1.900 produktuk dute etiketa hori, eta marka propioan hura eraman behar luketen ontzi guztietan dago jarrita.

Horretaz gainera, nutrizio arloko etiketa ezartzen bi urte pasa eman dugun honetan, horren gainean egindako analisia publikatu dugu aurten. 2.000 produktu inguru aztertu ditugu 1.300 saltokitan baino gehiagotan, eta egiaztatzen dugu Nutri-Scorek era baikorrean eragiten duela elikadura ontziratutako osasungarriagoak hautatzeko orduan, produktu freskoen kategorian atzerakorik sorrazi gabe.

Nutri-Scoren etiketa, Kontsumo Ministerioaren balidazioa duena, grafiko edo semaforo moduko bat da, elikagai ontziratutak sailkatzen dituena bost letrarekin eta koloreekin, nutrizio aldetik nola osatua dagoen, A berde ilunetik B berde argira (osasungarrienak) eta D laranjaetik E gorria (nutrizio aldetik kalitate txikiagoa dutenak), tartean C horia dagoelarik, erdibideko lekuan. Horri esker, kontsumitzaileek erraz jakin dezakete nutrizio aldetik nolako balorazioa duen produktu bakoitzak, eta antzekoak diren beste batzuekin konparatuz onena aukeratu, semaforo nutrizionalak ematen duen informazioaren xehetasunik galdu gabe.



2007tik darabilgu semaforo nutrizionala marka propioko produktuetan, eta Nutri-Score haren osagarria izango da. Tresna horrek erraztu egiten du dietako kaloriak, gantzak, azukreak eta gantzak kontrolatzea premiaren bat badago osasun motiboren batengatik (diabetesa, hipertentsioa, pisu gehiegia...). Hala, elikagaiaren zati batek mantenugai jakin bat zenbateko kopuruan ematen duen ikus daiteke, eta erraz interpretatu kopuru txikia den, tartekoa edo handia. Nutri-Score bezala, kolore sistema hau beti dago ontziaren aurrealdean, eta informazioa dakar kalorien kopuruari buruz eta osasunarekin loturik diren mantenugai garrantzitsuenei buruz (gantza, gantz saturatua, azukrea eta gatz) kontsumo errazio bakoitzeko.

Nutrizio arloko informazioa erosketetan oinarriturik

EROSKI Clubek osasun arloko programa aurrendari bat du, eta doan eskaintzen ditu informazio pertsonalizatua eta pizgarriak, zertarako eta gure Bazkide Bezero guztiek elikadura eta erosketa osasungarriago eta orekatsuago bat eraman dezaten. 2021ean, 29.000 lagunek baino gehiagok erabili dute nutrizio arloko zerbitzua, EROSKI Club txartelean erregistratuta dituzten erosketetan oinarritzen dena.

Informazio horrek analisi xehe eta pertsonalizatu bat ematen du etxeko erosketa nola doitu dieta mediterraneora. Haren helburua da bezeroa orientatzea elikagaien buruz: zein kopurutan eta maiztasunekin erabili —bai berak eta bai etxeko gainerako kideek— elikadura orekatu bat eramateko. Ekilibria programari 2019an NAOS saria eman zion Elikadura

arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziak (AESAN), enpresak ekimenarekin elikadura osasungarriaren alde erakutsitako konpromisoagatik. Gainera, 2021ean, EROSKI Clubetik maiztasunez bidali zaizkie osasunari loturiko informazioa eta jarduerak 550.000 Bazkideri baino gehiagori, eta 38.000 lagunek baino gehiagok era aktiboan parte hartu dute elikadura osasungarriari loturiko erronketan. Era berean, ohitura osasungarriak sustatzeko ekimenetan lagundu izan dugu; esaterako, 2021eko FiraGranen, Kataluniako Adinekoren Aretoan, zeinetan CAPRABOk osasunaren eta ongizatearen aldeko ibilaldi handia babestu baitzuen ura eta fruta zatiak emanez partaideei, 60 urtetik gorako jendeari.

Nutrizio behar espezifikoak

Bereziki aintzat hartzen ditugu gaixotasunak direlaeta (hala nola zeliakia, alergia eta intolerantziak) sortzen diren elikadura behar espezifiko batzuk. Gaitz horiek pairatzen dituztenen alde dihar dugu, gure produktu eskaintza segurua izan dadin, segurua eta erosketa arrunt baterako behar bestekoa prezio egokian.

Alde horretatik, komunikazio arina dugu haiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin eta kolektiboekin; besteak beste, Espainiako Zeliakoen Elkarten Federazioa eta Diabetesaren Espainiako Federazioa; horrela, zuzenean jakin dezakegu nolako eskariak eta kezak dituzten, eta gure elikagaien gama zabaltzeko, beren eskariei arabera horretara erantzuteko. Horretaz gainera, zenbait entitateekin dihar dugu askotariko kanpainen haien gaixotasunak ikusarazteko eta jendea kontzientziatzeko.

2021ean, Lankidetzaren hitzarmenak berriro ditugu EAEko, Errioxako, Kataluniako eta Nafarroako zeliakoen elkarteekin. Guztira, 2021ean, lau elkarte horietako 2.200 bazkidek baino gehiagok jaso dute hitzarmenon onura; besteak beste, %20 ko deskontua espezifiko glutenik gabe ekoizti diren 200 erreferentzian baino gehiagotan.

Gaur egun, eta kolektibo horrek dituen behar espezifikoekin dugun konpromisoaren ondorio, jarraitzen dugu glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzeko lanean, bai geure markarekin eta bai fabrikatzaileenarekin. Hala, gaur egun 2.700 produktu baino gehiago ditugu glutenik gabe, horietatik 2.100 inguru marka askotakoak eta gure markako 550 baino gehiago glutenik ez dutela bermatutakoak.

Horretaz gainera, hamar urte baino gehiago dira alergenoen gaineko 2220/2004 Errege Dekretua bete ez ezik informazio gehigarria dakargula —aparte eta era ikusgarrian— ohararazteko alergenoen trazarak izan ote ditzaketen. 2021ean, 582 produktu zenbatu genituen marka propioan glutenik gabekoak, beste 110 produktu laktosarik gabekoak, 55 esnerik gabekoak eta 7 arrautzarik gabekoak



Osasunari eta jasangarritasunari buruzko informazioa

EROSKI Taldearen informazio proiektuak CONSUMER EROSKI du izena, eta harekin gure kontsumitzaileak formatuta eta informatuta eduki nahi ditugu; xedea da bizimodu osasun-garria eta jasangarria egiten erakustea informazio produktu egiantzeko, independente, praktikoa eta arinekin.


Papereko aldizkarian nahiz informazio atari digitalean ateratzen den argitalpen honetan (biak ere gaztelaniaz, katalanez, euskaraz nahiz galizieraz), gai askotarikoak lantzen ditugu, elikadurari, elikagaien segurtasunari eta osasunari loturik, baina baita gure kontsumitzaileen interesekoak diren beste gai batzuk ere: ingurumena, elkartasuna, maskotak, haurtxoen mundua eta aurrezpena eta etxeko ekonomia.

Edukiak prestatzeko, askotariko aditu profesionalen laguntza izaten dugu, baita zenbait erakunderena ere, hala nola Diabetikoen Espainiako Federazioa, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte, Zibersegurtasunaren Espainiako Institutua, UNICEF eta WWF.

Consumer.es edizio digitalaren adierazleak



EROSKI CONSUMER aldizkariaren edizio inprimatuaren adierazleak CONSUMER



Espainiako haurren obesitateari buruzko berezia

2021ean paper berezia izan du haurren obesitateak, eta horren inguruan CONSUMER EROSKIK ikerketa bat egin zuen

Espainiako haur-populazioaren egoera ezagutzeko datu publikoetatik abiatuta.



Elikadura eta ohitura osasungarriak haurretatik

413-1; 413-2

Elikadura Eskola

Informazioa eta formazioa funtsezko tresnak dira erabaki egokiak hartzeko elikaduraz denaz bezainbatean. Hori dela eta, haur gizentasunari aurre hartuko diogun elikadura sustatzen dugu, eta formazio tresnak eskaintzen ditugu haurrentzat, beren elikaduraz erabakirik onenak har ditzaten modu kontziente eta dibertigarri batean.

EROSKI Fundazioaren ekimen hau 2013an jaio zen, eta haren helburua da elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak sustatzea herritarrengan, baita topagune izatea ere osasunaren arloko profesionalentzat, hezitzaileentzat, gurasoentzat, ikasleentzat eta elikadura eta

ohiturak hobetzearekin konprometituta dauden gainerako herritarrentzat.

www.escueladealimentacion.es/eus

Kalitatezko informazioa ematen du, ezagutza zientifikoan eta berak landutako ikerketetan oinarritzen baita osasun arloko profesionalen bermatuta. Ekimenak aurrera eramateko, autonomia erkidegoetako gobernuekin jarduten da, eta osasunarekin eta kontsumo arduratsuekin erlazionatuta dauden erakundeekin.

EROSKI Taldearen Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programak

Eroski Taldeak era askotako heziketa programak garatzen ditu jendearen artean elikadura eta ohitura osasungarriak sustatzeko; batik bat, haurren artean.

EROSKI Taldearen heziketa programetako adierazle nagusiak 2020-2021eko ikasturterako

126.839
ikasle

1.616
Ikastetxe parte-hartzaileak

COVID-19aren pandemia dela eta, ez dugu izan aurrez aurreko bisita tailerrik egiterik ez dendetara, ez hornitzaileen-gana eta ez sukaldaritza ikasgeletara. Ekintza horiei 2021-2022eko ikasturtean berrekin zaie.

Hazteko Energia

Programak, haurren gizentasun tasa handiei aurre egiteko martxan jarri zutenak, hiru adin mailatarako ditu material didaktikoak: 3-6 urtekoentzat jokoak eta ipuinak; 6-8 urtekoentzat bost unitate didaktiko; eta 8-12 urtekoentzat hamar unitate didaktiko. Horretaz gainera, hiru tailer praktiko izaten ditu ikasgelatik kanpo (tokian tokiko ekoizleei egindako bisitak, dendei egindakoak eta sukaldaritzako ikasgela); 2020-2021eko ikasturtean, ezin izan dira gauzatu COVID-19 pandemia dela eta. Batzorde zientifiko batek landu ditu programaren edukiak, eta hainbat arlotako profesionalak bildu ditu: medikuntza, nutrizioa eta dietetika, psikopedagogia, pedagogia eta iraunkortasuna.

2021ean, erdi presentziala izan den formakuntza programaren lehen ikasturtea amaitu dugu, zeinak eduki digital gehiago izan baititu, erakargarriagoa, interaktiboagoa eta eraginkorragoa izan zedin.

www.energiaparacreceer.escueladealimentacion.es/eu

Imagine Fooden IV. aldia

Hazteko Energia heziketa programaren barnean, EROSKI bere laugarren Imagine Food lehiaketa antolatu du, haurrak eta familiak kontzientziatzeko zein garrantzitsua den dieta orekatu eta osasungarria bat eramatea. Aldi honetan, 6-12 urte arteko haurrek parte hartu dute bakoitzak bere errezeten marrazkiekin. Basque Culinary Centerrek beste urteetan bezala parte hartu du epaimahaikoa osatuz, eta aurten, gainera, sari gisa egonaldi bat eman du: asteburu pasa bat Donostian, irabazten duten familiek "BCCren zaleak" lehiaketan parte har dezaten. Horretaz gainera, liburu digital bat argitaratuko du finalera iritsitako 30 plateren bideoerrezetekin.

CAPRABOren Aukeratu Ona, Aukeratu Sanoa

Programa horrek, 2009an martxan jarriak, aurrez aurreko online formatua du, eta haren asmoa da haurrei (2-3 urtekoak barne) modu osasungarrian jaten erakustea eta jateko ohitura orekatsuk sustatzea, nutrizioaren arloko profesional baten laguntzarekin; eta, horrekin batera, besteak beste, garapen jasagarriaz, kontsumo arduratsuez eta gosea desagerrarazteaz kontzientziatzea.

2021 honetan, CAPRABOk, besteak beste, seigarrenez ospatu du Fruten eta Berduren Mundu Eguna. Horren helburua da familiak (batik bat haurrak) sentsibilizatzea elikadura osasungarriaren garrantziaz. Edizio honetan, sare sozialetan zabaldu dira aholkuak barazkiak beren propietateak galdu gabe egosteko eta garaiko fruta eta barazkien bilduma bat.

VEGALSA-EROSKI heziketa programak

VEGALSA-EROSKIk ere beste programa batzuk egiten ditu: Etorri Supermerkatura (ohitura osasungarriak eta erosketa arduratsua sustatzeko), Matematikak Supermerkaturan (dendara bisita eginez erosketak egiten ikasteko), Jan Gozo, Bizi Ondo —askotariko ekimenak batzen dituen proiektua (esaterako ikastetxeetako Sannifestas), zeina Gizentasunaren Prebentzioa, Arindu Zure Bizitza proiektu nazionalaren barnean sartzen baita eta Gizentasunaren Azterketarako Espainiako Elkarteak baitarama—.




Haurren gehiegizko pisuaren eta gizentasunaren gaineko azterketa

EROSKI Fundazioak eta CAPRABOk, ohitura osasungarriak sustatzen laguntzeko eta haurretan gehiegizko pisuari eta gizentasunari aurrea hartzeko helburu sendoz, ekimen bat jarri dute martxan 2021ean: fenomeno horiek Espainian duten prebalentzia aldian behin neurtzea eta horren segimendua egitea. Hauxe proiektuaren asmoa:

1. Gizartearen eskura adierazle dinamiko iraunkor bat jartzea ikusteko nolako prebalentzia duten gizentasunak eta gehiegizko pisuak autonomia erkidegoetan. Adierazle hori urtero berritu ahalko da, osasunaren gaineko arazo horien segimendua egiteko.


2. Ikastetxeei adierazle fidagarri bat eskura jartzea, modua izan dezaten ikasleetan fenomeno horiek nolako prebalentzia duten ikusteko eta hala hezkuntza arloko ekintzak sustatu eta haurren osasuna hobetzeko.

25 ikastetxetako 6-11 urteko 1.815 ikasleren gerrien eta al-daken buelta neurtuta, pisu gehiegia dutenen %22,31ko batezbesteko tasa aterata, eta %8,76koa gizentasunean. Aldeak daude autonomia erkidego batetik bestera, eta horrek erakusten du tokian-tokian ohitura osasungarrien gaineko heziketa programak behar direla haietan eragiteko.




5

Ingurumen
jasangarri-
tasunarekiko
konpromisoa



5

Ingurumen jasangarri- tasunarekiko konpromisoa





Ingurumen kudeaketa arduratsua

102-1; 102-2; 102-5; 102-7

EROSKIn, jabetu gara ezin dugula gizarte osasuntsu bat sustatu ez badugu gure natura ingurunea ere zaintzen. Gizartearekiko hartu dugun konpromisoaren barruan sartzen dira, ezinbestean, ingurumena errespetatzea eta natura leheneratzea.

Arlo horretan aplikatu beharreko legeak jarduketa eremu guztietan betetzen direla bermatzeko lan egiten dugu, baina, horretaz gain, etengabeko ahalegina egiten dugu

Ingurumen politika

Konpromiso hori zeharka sartzen da erakunde osoan, ingurumenarekiko errespetua eta gizarte ongizatea gure helburu estrategikoekin lerrokatzen dituen Ingurumen Politika baten bidez. Politika horrekin gure jarduerak klima aldaketaren gainean duen inpaktua minimizatu nahi dugu,

1. Jarrera proaktibo bat mantentzea, indarreko ingurumen araudia betetzen dela bermatzeaz gainera, gero eta konpromiso zorrotzagoak hartzera eramango gaituena.
2. Kutsadura prebenitzea gure ingurumen kudeaketaren sistematizazioaren bidez; hartara, gure jarduerari lotutako ingurumen inpaktua kontrolatu, neurtu, saihestu edo murriztu ahal izango dugu.
3. Ingurumena kudeatzeko sistema erakundearen alderdi garrantzitsuenen etengabeko hobekuntzan oinarritzea. Horretarako, helburu zenbagarriak finkatu, eta horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitzen ditugu.
4. Eskaintzen ditugun zerbitzu eta produktuen ikerketan eta garapenean ingurumen aldagaia sartzea, praktikan jartzen ditugun ekintzen errentagarritasuna bilatuz eta negozioazio aukera berriak identifikatuz.

gure jarduerak ingurumenean dituen inpaktu negatibo nagusiak identifikatu, karakterizatu eta minimizatzeko eta inpaktu positiboak optimizatzeko.

Ingurumenean eragiten ditugun inpaktuak murrizten jarraitzen dugu eta, horretarako, energia eraginkortasuneko neurriak ezarri, berriztagarriak ez diren materialen kontsumoa murriztu eta berotegi efektuko gasen isuriak gutxitzen ari gara.

natura baliabideak babestu eta modu jasangarrian erabili nahi ditugu, eta hondakinak kudeatu nahi ditugu, ekonomia zirkularreko eta biodibertsitatea kontserbatzeko ereduen bidez.

Gure politikaren oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

5. Guztion arteko lankidetzeta eta partaidetzeta jarrerak sustatzea, garapen jasangarria lortzeko. Horretarako ezinbestekoa da pertsonen prestakuntza eta informazioa, erakundearen maila guztietan.
6. Komunikazio bideak ezartzea agintariekin, tokiko komunitatearekin, erakunde sektorialekin, hornitzaileekin eta kontsumitzaileekin, gure jardueraren inpaktuen difusio iraunkorra eta gardena bermatzeko, baita horiek gutxitzeko erabiltzen ditugun baliabide eta teknologiena ere.

Helburu jasangarriak

102-11, 102-15; 201-2

2021.urtean ahalegin handiagoa egin dugu klima aldaketaren aurkako borrokaren esparruan, asmo handiko konpromiso berri bat hartuta. **EROSKIn konpromisoa hartu dugu 2050. urtean berotegi efektuko gasen zero isuri garbi dituen enpresa izateko.**

Izan ere, Europar Batasunak Bruselan aurkeztutako Elikagai negozio eta marketen praktika arduratsuei buruzko Jokabide Kodeari atxiki gatzakionez, atxikipen horren barruan sartzen da konpromiso hori, eta 2018an geure buruari ezarri genizkion Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoak berrikusi eta indartzea dakar; hala nola:

Gure CO₂ isuriak %25 murriztea 2025erako, gure jarduerak klima aldaketan duen inpaktua minimizatzeko. Horretarako, gure ekipo eta prozesuen eraginkortasuna hobetu, eta energia berriztagarrien erabilera areagotuko ditugu.

Merkaturatzen ditugun plastiko konbentzionaleko ontzien tonak %20 murriztea 2025ean, aterial horren bidez itsasoa eta lurra kutsatzeko egin dezakegun jarduera oro murriztu ahal izateko.

Gure prozesuak zero hondakinerantz bideratzea saltzen ez ditugun elikagaiak ematearen eta berrerabiltzearen bidez ingurumen- eta gizarte-eragin positiboa sortzeko.

Gure prozesuak ekonomia zirkularreko eredu baterantz bideratzea gure marka propioko ontzien ekodiseinuaren bidez, 2025ean %100 birziklagarriak izan daitezen, eta sortzen ditugun hondakinak birziklatuz eta baloratuz.

Ingurumena eta animaliak gehiago errespetatuz ekoizitako produktuak sustatzea, EROSKI Natur produktuen %100ean ingurumen-ziurtagiriak eskatuz eta produktu ekologikoen aukera zabalduz, animalien ongizate-zigiluekin, etab. Horrez gain, gure hornitzaileekin lankidetzan dihardugu hainbat proiektuen bidez, beren prozesuetan ingurumena hobetzeko irizpideak sar ditzaten bultzatzeko.

2021ean gure ibilbide orri berrian aurrera egin dugu; ibilbide orri horrek 2050. urtean karbonoari dagokionez neutral izatea eta jasangarritasunarekiko beste konpromiso batzuk indartzea ahalbidetuko digu, EBren Elikagai negozio eta marketen praktika arduratsuei buruzko Jokabide Kodearen esparruan.



Ingurumen arriskuen kudeaketa

102-11

Gure ustez, ingurumen arriskuak (klimaren arriskuak sartuta) eta horien finantza inpaktua identifikatzea eta behar bezala kudeatzea ezinbestekoa da gure konpainiaren bilakaera eta jardun egokia bermatzeko. Baliabide naturalen eta ingurumenaren aurkako delituei dagokienez, EROSKlren hainbat departamentutan egin litezkeen arrisku jarduera jakin batzuk aurreikusi dira, bai eta horiek saihesteko prebentzio neurriak eta ezarritako kontrol espezifikoak ere.

Ingurumen erantzukizuneko poliza bat dugu, estaldura guztietarako 10 milioi euroko muga metatua duena urtean, eta ezbehar bakoitzeko 5 milioi euroko muga estaldura guztietarako.

Klima aldaketarekin lotutako arrisku eta aukerak

EROSKI Taldeak konpromiso sendoa du jasangarritasunarekin, ingurumenarekiko errespetuarekin eta berotegi efektuko gasen isuriak murriztearekin. 2021. urtean, bere buruari karbono neutraltasunaren helburua ezarri zion lehen elikagaien banaketa katea izan ginen Espainian.

Ia sektore ekonomiko guztietan izango dute eragina klima aldaketaren inpaktuek. Hala ere, garrantzitsua da onartzea klima aldaketaren errealitateak aukera ematen diela erakundeei negozio eredu berrietan eta karbono gutxiko produktuetan berrikuntzak egiteko eta ekoizpen prozesuak deskarbonizatzeke.

EROSKIn oso kontziente gara egoera horretaz, eta lanean ari gara nazioarteko eta sektoreko gomendio nagusiekin bat egiteko, bai eta Espainiako Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legearen eskakizunak betetzen aurrera egiteko ere; izan ere, lege horren arabera, enpresek klima aldaketaren ondoriozko arriskuak eta aukerak (finantza inpaktua dutenak) aztertzen eta zabalitzen hasteko betebeharra dute. Ildo beretik, ekitaldi honetan Finantza Egonkortasuneko Kontseiluaren Task Force on Climate-Related Financial Disclosures (TFCD) ekimeneko arriskuak eta aukerak ezagutarazteko esparruaren arabera hasi gara lanean.

Klima-aldaketaren ondoriozko EROSKlren arriskuak eta aukerak identifikatzeko prozesuaren abiapuntua klima agertokien azterketa izan da, baita sor daitezkeen joerena ere, merkatuaren portaerari eta gure jarduera nahiz negozio unitateetan eragina izan dezaketen arauen eta energiaren esparruei dagokienez. Agertoki klimatikoak aztertzeko, proiektzio klimatikoei buruz eskuragarri dauden argitalpen zientifikoen azterketa bibliografikoa egiten ari da, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldearen (Intergovernmental Panel on Climate Change) RCP4.5 (agertoki moderatua) eta RCP8.5 (agertoki intentsiboa) isuri agertokiak hartuta erreferentziaztat.

Azterketan, kontuan hartzen dira bai unean uneko klima arrisku larriak (bero boladak, euri jasak eta uholdeak eta abar), bai arrisku klimatiko kronikoak (lehorte iraunkorrak, aldaketak tenperaturaren eta plubiometriaren patroietan eta abar). Era berean, deskarbonizatutako ekonomia baterako trantsizioaren arriskuak ere ebaluatzen dira, hau da, politiketan/legeetan, teknologietan, merkatuetan edo izen onean izan daitezkeen aldaketekin lotutakoak. Horretarako, besteak beste, EROSKIk bere barne azterketetan identifikatutako joerak, Energiaren Nazioarteko Agentziaren (IEA) prospektiba dokumentuak eta agertoki hauek aztertu ditugu:

- **STEPS (Stated Policies Scenario):** politikak gaur egun nola konfiguratzen diren adierazten du, indarrean dauden politika espezifikoak sektorez sektore ebaluatuta, baita mundu osoko gobernuek iragarri dituztenak ere.
- **SDS (Sustainable Development Scenario):** honako helburu hauek betetzeko bidea zehazten duen agertoki integratua: 2030erako energia zerbitzu eskuragarri, fidagarri, jasagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea (7. GJH); airearen kutsadura nabarmen murriztea (3.9 GJH); eta klima aldaketari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzea (13. GJH).
- **NZE2050 (Net Zero Emissions by 2050 Scenario):** agertoki honek bide estu baina egingarria ezartzen du energiaren sektore globalak 2050erako zero CO2 isuri garbi lortzeko. Helburuak lortzeko, ez da oinarritzen energiaren sektoretik kanpoko isurien murrizketan.

EROSKIn eragina izan dezaketen klima arriskuei –unean unekoak edo kronikoak– dagokienez, bereizi behar dira, alde batetik, gure eragiketa, azpiegitura eta langileengan zuzenean eragin dezaketenak, eta, bestetik, gure hornidura katean eta, bereziki, gure produktu freskoen hornitzaileengan eragina izan dezaketenak. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea konpainiak hornitzaile nazionalekin lan egiten duela gehienbat (% 97 produktu freskoen hornitzaileez ari bagara), eta, beraz, klima aldaketak Espainiatik kanpo izan ditzakeen ondorioen eragin handirik ez dugu izango eta, horregatik, inpaktu horiek dira, batez ere, Estatu mailan hartzen ditugu kontuan.

Oro har, klimaren inpaktuetan gorabehera handiak izan daitezke eskualde batetik bestera –eta, beraz, agian azterketa zehatzagoa egin beharko da EROSKIk bere eragiketak edo hornitzaileak blitzen dituen tokietan–, eta, era berean, mundua isuri ugariako agertoki baterantz edo agertoki deskarbonizatuago baterantz mugitzen den kontuan hartuta ere inpaktuak oso bestelakoak izan daitezkeen arren, Espainian, honako arrisku klimatiko garrantzitsu hauek identifikatzen ditugu gure jarduerarako, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Guía de escenarios regionalizados de cambio climático sobre España a partir de los resultados del IPCC-AR5 gidan oinarrituta:

EROSKlrentzat identifikatutako arrisku klimatikoen agertokiak

Mota	Gertaerak	Isuri handiko agertokia	Isuri txikiko agertokia
Unean unekoak	Euri jasak / uholdeak	Euri jasan eta uholdeen gertaerak areagotzea.	
	Muturreko haizea	Ez da aldaketa handirik hautematen, gertaera horien maiztasunean hazkunde txiki bat izan ezik (errepikatzearen balioa 50 urtera jaitea) penintsulako ipar-mendebaldean, udan, epe ertainean (2041-2070) eta luzean (2071-2100).	
	Bero boladak	Bero boladek iraupen eta maiztasun handiagoa. Aldaketa txikienak Galizian, Kantauriko kostaldeko erkidegoetan eta Errioxan izango lirateke, eta handienak Espainiako ekialdeko erkidegoetan, hala nola Murtziako Eskualdean, Balear Uharteetan eta, bereziki, Kanarietan.	
Kronikoak	Aldaketak lehorte eta prezipitazio patroian	Prezipitazioak gutxitu egiten dira Espainia ia osoan, eta jaitiera horiek handiagoak dira penintsulako hego-mendebaleko koadrantean eta artxipelagoetan.	
		Lehorraldia luzatzea (1-11 egun).	Lehorteeak maiztasun eta intentsitate handiagoa.
		Lehorteeak maiztasun eta intentsitate handiagoa.	
	Tenperatura aldaketak	Hazkundera nabarmena eta mailakatua da XXI. mende osoan, are handiagoa udan eta isuri handieneko klima aldaketaren agertokirako. Udako eta udazkeneko tenperatura maximo eta minimoak neguko eta udaberrikoak baino gehiago handitzen dira, eta penintsulako barneal-dean eta ekialdean berotzea handiagoa da iparraldean baino.	
		XXI. mendearen amaierarako, Espainia penintsularrean, egun beroen proportzioa ia % 50 igotzea espero da.	XXI. mendearen amaierarako, Espainia penintsularrean, egun beroen proportzioa % 24 inguru handitzea espero da.
		Mendearen erdialdean, tenperatura maximoa 2-3 °C igoko da, Andaluziako hego-ekialdean +3,5°C baino gehiago.	Mendearen erdialdean, tenperatura maximoak 1-2 °C igoko dira, igoera txikiagoa izanik kostaldean, eta handiagoa Andaluzia barnealdean, Gaztela-Mantxan, Aragoiko hegoaldean eta Madrilgo Erkidegoan.
		2100. urterako, igoera 4,2-6,4°C izan daiteke.	2100. urterako igoera 2-3,4°C izan daiteke.

Euri jasan eta uholdeen gertaerak eta muturreko beste fenomeno meteorologiko batzuk areagotzearen ondorioz, aseguru primak eta dendetan eta beste instalazio batzuetan izandako kalteen konponketa kostuak handitu daitezke.

Arrisku kronikoen artean, EROSKIn eragin zuzen handiena izan dezakeena tenperaturaren batez besteko igoera da (baita bero-boladetan ere); izan ere, litekeena da dendetan klimatizazio kostuak ez ezik, hotz kateari eusteko kostuak ere handitzea. Zentzu horretan, hainbat azterlanen arabera, hozte sistemarekin lotutako energia kontsumoa % 14 handituko da 2010-2049 aldiko hamarkada bakoitzean, hozteko gradu-egun bakoitzeko. Epe ertain edo luzera, horren ondorioz, baliteke inbertsioak egin behar izatea instalazioak eta dendak egokitzeko, klimatizazioari dagokionez eraginkorragoak izan daitezen, baina horrek aurrezteka ekarri beharko luke, energia kontsumoak txikiagoa izan beharko lukeelako.

Era berean, klimaren gertaera horiek gure hornitzaileengan eta produktuen banaketan eragin dezakete, bai ekoizpenari bai garraioari eragiten dietelako, eta horrek kostu handiagoak ekar ditzake produktuak erosteko garaian, baita beste hornitzaile batzuk bilatu behar izatea ere. Arrisku klimatiko horiek bereziki nekazaritzaren sektorean izango dute inpaktua, ziurrenik. Nekazaritza jardueraren gainerako inpaktu nagusien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Hainbat laboreren ekoizpena gutxitzea, tenperaturaren igoera dela eta, estres hidriko handiagoa sortuko baita.

- Aldaketak nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuen errendimenduan eta kalitatean, urtaroeetan izandako aldaketengatik eta klimaren aldakortasunagatik.

- Labore jakin batzuetarako erabil daitezkeen lurzoru egokia mugatzea, lurzoruaren degradazioagatik eta basamortutzeagatik.

- Izurrite eta gaixotasun gehiago izatea bai laboreetan, bai animalengan.

- Abeltzaintzako produktuen produktibitate txikiagoa, gehiegizko beroak animalien ongizatean duen eraginagatik edo larreen produktibitatea gutxitzeagatik.

- Kalteak arrantzako, itsaski bilketako eta akuikulturako baliabideetan.

**Hozteko gradu-eguna neurketa unitate bat da; erailkinak hozteko behar den energia eskaria kuantifikatzeko diseinatu da eta, oro har, honela definitzen da: eguneko batez besteko tenperaturaren 18° C-lik gora dagoen gradu kopurua*

Azkenik, Osasunaren Mundu Erakundea aspalditik ari da ohararazten klima aldaketak gaixotasun epidemiko berriak agertzea edo horien transmisioa areagotu dezakeela, gaixotasunak transmititzen dituzten sektoreen banaketan aldaketak gertatzeagatik, eta, COVID-19ak izan duen eragina ikusita, argi dago etorkizunean giza osasunak izan ditzakeen mehatxuen balizko eragina ere kontuan hartu behar dela,

nahiz eta oraindik zehatz-mehatz ez jakin zeintzuk diren.

Trantsizio arriskuei dagokienez (politiketan/legeetan, teknologietan, merkatuetan edo izen onean izan daitezkeenak), hauek identifikatu dira aldeztu aurretik, baina 2022an sakonago aztertuko dira.

Klima-aldaketaren arrisku trantsizionalak eta EROSKIrentzat izan dezakeen eragina

	Trantsizio arriskuak	Inpaktu potentziala
Politika/ Legeak	Gero eta erregulazio handiagoa dago eta sortzen ari da klimarekin lotuta.	Gero eta kontzientziazio maila eta kezka global handiagoa dago klima aldaketaren inpaktuari dagokionez, eta nazioarteko konpromisoek gero eta arau corpus handiagoa dakarte, jarduera sektore guztiei eragingo diena. Horrela, bada, Europar Batasunak 2050ean isurien neutraltasuna lortzeko eta 2030ean isuriak % 55 murrizteko konpromisoa hartu du. Horretarako, Europako Batzordeak «Fit For 55» atera du; trantsizio berdearen arloko legegintzako pakete handia da, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan eragina izango duena, eta 2050ean karbono neutraltasuna lortzeko EBk hamarkada honetan jarraitu beharko lukeen bidea egituratzeko balioko du. Estatuan, Klima aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 7/2021 Legean argi geratu da klima aldaketaren aurkako borrorak eta trantsizio energetikoak eraldaketa teknologikoak eta aldaketak ekarriko dituela industrian. Autonomia erkidegoetan ere gauza bera gertatzen da, gobernu asko klima aldaketari buruzko lege propioak onartzen ari baitira, lurraldearen arabera eskakizunak aldatuz. Horren guztiaren ondorioz, ziur inbertsioak egin beharko ditugula EROSKIren eta gure hornidura katearen deskarbonizaziorako, eta teknologietan eta prozesuetan aldaketak egiteko. Adibidez, supermerkatuetako hozkailuetako hozte ekipoen eta aire girotuko sistemetan gas fluordunak ezabatzeko Europako zuzentarauak bete beharko dira, eta 2030etik aurrera debekatuta egongo dira horrelako gasak. Gainera, arau horietako askok, ziurrenik, klima aldaketa arintzearekin eta klima aldaketara egokitzarekin zerikusia duten alorretan monitorizatzeko eta reporting-eko beharrak areagotzea ekarriko dute.
	Karbonoaren prezioak finkatzeko mekanismoak	Gaur egun, isurketa eskubideen merkataritzaren Europako araubidean EROSKI sartuta ez badago ere, gure jarduerekin zerikusia duten produktu edo zerbitzuei aplikatu beharreko karbono zergak sortuko balira, gure zuzeneko eta zeharkako kostuetan eragina izan lezakete. Adibidez, isuriak murrizteko CORSIA programen eraginpeko hegazkin txartelen prezioaren igoerak zeharka eragin dezake turismo paketeen kostuetan edo gure bidaiak agentziaren marjinetan. Era berean, EBk 2025etik aurrera ezarri nahi duen "karbonoaren muga zergak" izan dezakeen eragina aztertu behar da, Europakoak baino klima-arau lasaigoak dituzten herrialdeetatik inportatutako produktuei eragingo diena. Era berean, konpainia gisa 2050ean karbonoaren neutraltasunera iristeko helburua finkatu dugunez, gure isurien zati bat neutralizatzeko karbono proiektuetan inbertitu beharko dugu, ziur aski, trantsizioko aldiaren konpentsazio proiektuak erosi behar izatea baztertu gabe. Gaur egun, proiektu horien karbono tonako prezioan inflazio handia dago, eta litekeena da datozen urteetan gora egiten jarraitzea; beraz, konpainiaren karbono estrategia globalaren barruan kontuan hartu beharko da aldagai hori.

	Trantsizio arriskuak	Inpaktu potentziala
Politika/ Legeak	Hornigaien eta lehengaien kostuen igoera	Aztertutako etorkizuneko politiken agertokien (SDS) ereduetan, erregaien, elektrizitatearen eta uraren prezioa igotzea aurreikusten da. Izan ere, igoera horiek klima aldaketarekin lotutako arrazoiengatik gerta daitezke, baita tentsio geopolitikoengatik ere. Lehenengo kasuan, igoera horiek karbono zergen ondorio izan daitezke, edo karbonoa isurtzen duten energia iturrien kontsumoa baztertzera bultzatzeko edo baliabideen erabilera eraginkorra sustatzeko beste politika fiskal batzuen ondorio.Era berean, ekoizpeneko eta hornidurako azpiegitura egokitzearen ondoriozko kostuak kontsumitzaileari jasanarazteak eragina izango du kostuetan. Erregaiaren prezioen igoerak eragina izan dezake salgaien garraioaren kostuetan, eta elektrizitatearen kostuaren igoerak eragina izan dezake dendetako eta beste instalazio batzuetako eragiketen kostu zuzenetan. Bestalde, uraren prezioaren igoerak eragina izan dezake elikagai jakin batzuen eta beste produktu batzuen kostuetan. Antzeko eraginak gerta daitezke lehengai jakin batzuen edo nekazaritzako produktuen prezioen gorakadaren ondorioz.
	Teknologiak	Karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizio kostuak Legeak betetzeaz gain, karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioak negozioa birbideratzeko edo jarduerak dibertsifikatzeko beharra ekar dezake, esate baterako, erosketa esperientzia berriak –aurrez aurrekoa, birtuala edo hibridoa– garatuta. Aldaketa horiek, jakina, dendetan eta banaketa plataformetan inbertsioak eta aldaketak egitea eskatuko dute, baina, horrez gain, edozein berrikuntza ezartzearekin lotutako arriskua ere badute, berrikuntza horrek arrakasta izango ote duen ziurra ez denean. Halaber, deskarbonizaziorako joera globalaren eta hartutako konpromisoen ondorioz, baliteke gure instalazioetan egokitzapenak egin behar izatea. Esate baterako, mugikortasun modu berriei ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak gehitzea edo hidrogenoz hornitzeko "hidrogendegiak" sortzea eska dezakete, edo, bestalde, klimatizazio sistemak elektrifikatzea (galdaren ordeztu bero ponpak jarrita) edo energia biltegiratzeko sistemak ipintzea. Era berean, epe luzera bestelako berrikuntza edo behar teknologikoak sor daitezke, oraindik zehaztu gabe daudenak, eta epe ertainerako jada aurreikusten direnen antzeko eragina izan dezakete (adibidez, atmosferatik karbonoa zuzenean hartzeko teknologiak).
	Merkatua	Aldaketak kontsumitzailearen portaeran Gero eta azterlan gehiagotan agertzen da kontsumitzaileen joera nabarmena dela jasangarritasuneko balioak eta ezaugarriak dituzten konpainia eta markak gero eta gustukoago izatea. Zentzu horretan, espainiaren %72 prest egongo lirateke ingurumenarekiko errespetu handiagoa duen establezimendu batera aldatzeko, eta horrek argi uzten du arlo horretan behar beste aurrera ez egiteak eragin handia izan dezakeela. Kontsumitzaileek informazio gehiago eta gardentasun handiagoa ere eskatzen dizkiete markei, eta, horren ondorioz, neurketako eta reportingeko beharrak areagotu egiten dira, baita etiketatze eta komunikazio politikak aldatu ere, hala nola Nutri-score etiketak eta horren antzekoak, baina produktuak ingurumenean eragiten duen inpaktuaren mailari buruzko informazioa ere ematen dutenak. Bestalde, klima aldaketak aldaketa esanguratsuak ekar ditzake kontsumo ereduetan, eta enpresek eredu aldaketa horiei garaiz erantzuteko prestatuta egon behar dute. Horren adibide dira ordeztu proteinak kontsumitzeko interesaren gorakada edo, bidaien sektorearen kasuan, "hegan egiteko lotsa" eta horren antzeko joera berriak. Alderdi horiek guztiek inbertsioak egiteko beharra ekarriko dute, merkatu kuota ez gaitzearen.
Izen ona	Klima aldaketaren aurrean ezer ez egiteak izen onean eragina izatea	Kontsumitzaileek eta, oro har, beste interes talde batzuek gero eta gehiago hartzen dituzte kontuan eta gero eta gehiago zigortzen dituzte <i>greenwashing</i> edo <i>carbon washing</i> ekintzak, bai eta jasangarritasunarekin lotutako polemikak izaten dituzten konpainiak ere. Horrek eragina izan dezake bai EROSKI, bai banatzen ditugun produktuak fabrikatzen dituzten merketan, eta, horren ondorioz, gure dendetako eskaria murriztu daiteke. Horregatik, gure hornidura katean aplikatzen dugun jasangarritasunaren kudeaketa gure zuzeneko jardueretan aplikatzen duguna bezain garrantzitsua da. Horrez gain, inpaktua gerta daiteke, era berean, interes taldeek eta, bereziki, kontsumitzaileek hautematen badute ez gaitza behar bezalako edo behar besteko erantzuna ematen ari larrialdi klimatikoaren aurrean, dela geure eragiketa propioen bitartez, dela eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuen bitartez. Horrek gure marken izen onean izan dezakeen eraginaz gain, profesional onenak gure dendetara, banaketa zentroetara eta bulego nagusietara erakartzeko dugun gaitasunean ere eragin dezake.

Hala eta guztiz ere, EROSKIren negozio ereduak eta aspalditik garatzen ari garen ekimen askok arrisku horien aurrean dugun erresilientzia hobetu dezakete, baina horrek ez du esan nahi arriskuak arintzeko lanean jarraitu behar ez dugunik. Horrela, bada, konpainiaren hornitzaileen % 60 tokikoak direnez eta hornitzaile gehien-gehienak naziokoak direnez, gure eragiketak ez daude klima aldaketaren eraginari hain lotuta, agian ahulagoak diren beste herrialde batzuekin alderatuta. Gainera, banaketa zirkuitu laburrekin lan egiten dugu, eta gure zentro logistikoko handienak penintsularen iparraldean daude, arrisku klimatiko jakin batzuek intentsitate txikiagoa izan dezaketen tokian, eta aurrerapauso garrantzitsuak egin ditugu gure jarduera logistikoaren deskarbonizazioan; gure Lean & Green izarra da horren erakusgarri. Horretaz guztiaz gain, aipatu behar da aspaldidanik inbertsio garrantzitsuak egiten ari garela gure dendetan energia eraginkortasunaren arloan eta gure karbono aztarna korporatiboa murrizteko, eta ekimen ugari egiten ari garela gure ekoeraginkortasuna hobetzeko eta gure jasagarritasun politikak indartzeko. Era berean, konpromiso sendoa dugu gure bezeroekiko eta kontsumitzaileekiko

gardentasunarekin, konpromiso horren adierazgarri izanik nutrizio etiketetan eta ingurumen etiketetan egin ditugun aurrerapausoak, hala nola marka propioko elikagaien ingurumen adierazpenak argitaratzea 2020an; aitzindariak izan gara hori egiten. Bestalde, klima aldaketak aukerak ere ekar ditzake, dagoeneko errealitate den aldetik, eta errealitate horri buruzko zalan-tza nagusiak jada ez dira gertatuko den ala ez (gertatzen ari da), baizik eta zenbaterainoko intentsitatearekin gertatuko den eta nola eraldatuko dituen gure gizartea eta gure ekonomiaren eta kontsumoko ereduak. Hori horrela izanik, EROSKI-n, gaur egungo egoera aukeratzat ere hartzen dugu, gure eragiketen eraginkortasun energetikoko eta eraginkortasun logistikoko ekintzetan are gehiago sakontzeko, gure energia iturriak dibertsifikatzeko eta, batez ere, eskaintzen ditugun zerbitzu eta produktuetan berrikuntza eta dibertsifikazio handiagoa lortzeko. Horrek guztiak, zalan-tzarik gabe, klima aldaketarekin lotutako arriskuen aurrean dugun erresilientzia maila hobetzen lagunduko digu.

Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak - EROSKIren karbono aztarna

102-11 305-1 305-2 305-3 305-4 305-5

EROSKI-n lanean jarraitzen du bere konpromisoak eta klimarekin lotutako jarduerak gardenak izan daitezen, klima

aldaketaren ondorioei buruz eskuragarri dagoen informazioa hobetzeko eta beharrezko ekintzak egin ahal izateko.

Memoria honetan sartutako NEG isuri motak eta jatorrizko iturriak

Aintzat hartutako negutegi efektuko gasak
CO₂, CH₄, N₂O, HFC

Zuzeneko isuriak	Zeharkako isuriak	
1. irismena - Hozgarrien ihesak hotz sistemetan. - Gas naturalaren errekuntza instalazio propioetan.	2. irismena Energia erabilera propiorako sortzea.	3. irismena - Erregaiaren kontsumoa errepidez eta itsasoz eginiko garraio logistikoa. - Laneko bidaiak errepidez eta hegazkinez (erregai kontsumoa eta hoteletako gauak). - Errepideko garraioan kontsumitutako diesel produkzioa, logistikan eta laneko bidaietan. - Edateko uraren kontsumoa; paperaren kontsumoa egoitzan, publizitatean eta aldizkarietan.

Isurketak guztira
218.407
tona CO₂ eq.

-%18
2020arekiko **

³. irismeneko zeharkako isuriak EROSKIren jardueraren ondorio bat dira, baina EROSKI ez da haien jabea eta ez du haien gaineko kontrolik. Orotara, 15 kategoria daude (erositako artikulua eta zerbitzuak, sortutako hondakinak, saldutako produktuen erabilera, etab.), baina memoria honetan soilik horien zati txiki bat sartu da, datuen eskuragarritasuna dela eta. 2020an, itsas garraio logistikoa gehitu zaio 1. irismenari, eta laneko bidaietan hoteletan igarotako gauak, berriz, 3. irismenari. Datozen ekitaldietan EROSKIren karbono orratzaren 3. irismenean sartutako jardueren kopurua areagotzen jarraitzea aurreikusten dugu. ** Murrizketa gertatu da batez ere elektrizitate gutxiago kontsumitu delako eta elektrizitate hori neurri handiagoan iturri berriztagarrietatik datorrenez emisio faktoreak txiki-tu direlako; bai eta ere hozte ihesak gutxitu direlako eta hozteek berek berotegi globala eragiteko gaitasun txikiagoa dutelako

BEGen emisioak iturriaren arabera

BEG isuriak (tCO ₂ eq)	2021	%
Zuzeneko isuriak (1. irismena)	66.717	%31
Gas naturala	1.053	%2
Hozgarriak	65.664	%98
Elektrizitate kontsumoak eragindako zeharkako isuriak (2. irismena) Mix Merkaturatzaileak	63.730	%29
Hipermerkatuak	8.189	%13
Supermerkatuak	45.730	%72
Plataformak	6.600	%10
Beste negozio batzuk	3.211	%5
Zeharkako beste isuri batzuk 3. irismena	87.960	%40
Errepideko garraioa	61.989	%71
Itsas garraioa	1.902	%2
Lan bidaiak (erregaien isuriak)	3.505	%4
Hoteleko gualdiak lan bidaiagatik	230	%0
Diesel garraioa (putzutik tankera)	11.372	%13
Diesel lan bidaiak (putzutik tankera)	590	%1
Lan bidaiak trenan	7	%0
Ura	321	%0
EROSKIren egoitzan kontsumitutako papera, liburuxkak, aldizkariak eta tiketak	8.044	%9

BEG isurien intentsitatea

BEG isurien intentsitatea	
g CO ₂ eq/€ salmenta garbiak	48,1
kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	183,7
1. irismena	
g CO ₂ eq/€ salmenta garbiak	14,7
kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	56,1
2. irismena (mix merkaturatzaileak)	
g CO ₂ eq/€ salmenta garbiak	14
kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	53,6
3. irismena	
g CO ₂ eq/€ salmenta garbiak	19,4
kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	74,0
1+2 irismenak	
g CO ₂ eq/€ salmenta garbiak	28,7
kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	109,7

2. irismeneko isurketak kalkulatzeko, kontratatutako merkaturatzaileen isurketa faktorea erabili da. Mix nazionalarekin kalkulaturako isurketak Eranskineko 30. Taulan jaso dira, eta aurreko urteetako datuekin alderatu da.

Ingurumen jasangarritasuna indartzeko ekintzak

102-11 305-1 305-2 305-3 305-4 305-5

Ingurumen jasangarritasuna lankidetzaren ikuspegitik begiratuta indartzen dugu, gure ekoizpen ibilbide osoa kontuan hartuta eta gure erakundetik kanpoko eragileak ere inplikatzeko xede. Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure 10 Konpromisoekin bat etorritik, gure erakundearen bizi ziklo osoan hainbat jardun ildo lantzen ditugu, besteak beste, gure produktuak eta ontziak nola diseinatu eta ekoizten ditugun, gure jarduera logistikoak, gure dendak, hondakinen kudeaketa zirkularra eta kontsumitzaileen sentsibilizazioa kontuan hartuta.

Produktu jasangarriagoak

EROSKIn ezinbestekoa iruditzen zaigu garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa partekatzen duten enpresa hornitzaileekin lankidetzan aritzea, gure eskaintzan ingurumen faktorea txertatzeko. Prozesu guztiek, ekoizpenaren jatorritik hasi eta dendako eragiketetaraino, eraldaketa eta manipulazio guztiak barne hartuta, ingurumen inpaktua murrizten dutela zaintzen dugu. Horren barruan sartzen dira honako hauek: uza osteko tratamendu fitosanitarioak desagerraraztea, gure arrandegiak jasangarritasun zigiluarekin ziurtatzea, antibiotikoen erabilera kontrolatzea, animalien ongizatea bermatzeko jardunbideak txertatzea edo gama ekologikoak sustatzea.

Gure bezeroek ingurumen portaera hobea duten produktuez goza dezaten, funtsezko hiru lan ildotan jarduten dugu: produktuen jatorri jasangarria bermatzea, tokiko produktuak eta hurbileko kontsumoa sustatzea, eta gure marketako ontzien eta produktuen ekodiseinua.



Jatorri jasangarri ziurtatua

Badiara hamarkada batzuk kontsumitzaileei aukera osangarriagoak eta jasangarriagoak eskaintzeko lanean ari gara. Hala, hainbat ziurtagiri, etiketa eta marka ditugu, gure produktuen jatorri jasangarria ziurtatzen dutenak eta gure merkataritza eskaintzaren eraketan lurreko eta itsasoko biodibertsitatea babesteko helburua txertatzea ahalbidetzen digutenak.

- **1.600** produktu ekologiko

- **Arrantzako 461 salmahai eta 8 plataforma logistiko** MSCk eta GGNk ziurtatuta

- **Gure kontserbako atuna guztiak** Seafood Sustainability Foundation (ISSF) printzipioak betetzen ditu.

- **430 EROSKI NATUR produktu** hainbat ziurtagiri dituztenak, hala nola GlobalG.A.P., Ekoizpen Integratua, eta animalia ongizatea.

- **17 belle Natural produktu,** ECOCERTen COSMOS Natural ziurtagiria dutenak.

- **FSC®, PEFC, Oekotex** edo SFI zigilua duten 402 produktu.

Animalien ongizatearekiko konpromisoa

Elikadura jasangarria ahalbidetzeko konpromisoarekin bat etorritik, merkaturatzen ditugun produktueto animalien ongizate estandarretan aurrerapenak eta hobekuntzak egin ditugu. Esate baterako:

- Gure marka propioko produktu askotan Animalien Ongizateko Welfair zigilua eskuratu dugu:
 - Marka propioko gure haragi zuri guztietan (indioi-lar freskoa, untzia eta oilaskoa).
 - EROSKI Natur txerri haragia.
 - EROSKI Natur Aragoiko bildotsa.
 - EROSKIn tokiko esnea Euskadin, Nafarroan, Galizian eta Balearretan.
 - Lurreko oiloen EROSKI arrautzak eta EROSKI Natur markako tokiko baserriko arrautzak.

Welfair zigiluak animalien ongizatea sustatzen du, Welfare Quality eta AWIN® estandar europar zorrotzetan oinarrituta; izan ere, elikadura, ostatua, osasuna eta jokabide naturala ebaluatzen dituzte. Ziurtagiria lortzeko, animalien ongizateari dagozkion Europako protokoloetan adituak diren aztertzaileek urtero aztertzen eta ikuskatzen dituzte baserriak eta hiltegiak. Prestakuntza eta jarraipen hori IRTA (Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologiako Institutua) eta Neiker zentro teknologikoak egiten dute.

- Akuikulturako GlobalG.A.P. ziurtagiria ere badugu EROSKI Natur haztegiko arrainetan, eta baldintza zehatz eta zorrotzak bete behar ditu arrainen ongizateari dagokionez, bai hazkuntza garaian, bai garraioan eta sakrifikatze garaian.
- EROSKIn, kanpoko erreferentziako zigiluak txertatzeaz gain, konpromisoa hartu dugu 2024. urtean arrautzen % 100 kaiolatik kanpo hazitako oiloenak izan daitezen. 2021eko ekitaldiaren amaieran, lurrean hazitako oiloen arrautzen, landako arrautzen edo arrautza ekologikoen bolumena % 57 izan da, baina CAPRABOn, esaterako, % 100era iritsi gara dagoeneko.
- Aurtan, honako konpromisoa hau hartu dugu: ez ditugu kaiolatan dauden oiloen arrautzak erabiliko gure marka propioko produktuak egiteko osagai gisa 2025etik aurrera.
- EROSKI Natur gure oilaskoak European Chicken Commitment baldintzak betetzen ditu hazkunde moteleko espezieen erabilerari, ostatuaren ezaugarri eta sakrifizioari dagokienez. Gainera, EROSKI Natur baserriko oilaskoa ere badugu gure eskaintzan, eta are zorrotzagoa da animalien ongizateari dagozkion baldintzei dagokienez.

Produktu Ekologikoak

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko elikagaiak eskaintzen saiatzen gara, ingurumen jardunbide onenak aplikatzen dituen, eta biodibertsitatea eta natura baliabideak zaintzeaz gain, animalien ongizatea errespetatzea ere sustatzen duena. 2021ean produktu ekologiko berriak sartu genituen EROSKI Eco, EROSKI Bio eta EROSKI Natur Bio marka propioen barruan; beraz, gure eskaintza zabalduta ahal izan dugu. Guztira, 95 erreferentzia baino gehiago merkaturatzen ditugu geure marka propioetan, gehi gure dendetan saltzen ditugun beste marketako 1.600 erreferentzia baino gehiago, askotariko produktu ekologikoen aukera zabala osatuz.



Arrantza jasangarria EROSKIn

Ozeano eta itsasoetako bioaniztasunaren kontserbazioaren alde lanean jarraitzeko, itsas baliabideen aprobetxamendu arrazional baten bidez, 2017ko apirilean, EROSKIn Arrantza Jasangarriaren aldeko Politika onartu genuen.

Beste urte batez ongi gainditu dugu arrantzaleku jasangarrietatik datorren arrainerako Marine Stewardship Council-en (MSC) zaintza katearen ziurtagiriaren auditoria, eta, horrela, arrandegiko salmahai ziurtatuak dituen Espainiako txikizkako banatzaile handi bakarra izaten jarraitzen dugu. Era berean, hazkuntzako arrainerako akuikulturako GlobalG.A.P ziurtagiria mantendu dugu. 2021ean arrandegiko 461 salmahai eta 8 plataforma ziurtatu ditugu.

Ekitaldi honetan, jasangarritasun ziurtagiria duten 5.543 tona arrain erosi ditugu. Guztizko horretatik, 2.283 tona inguru Marine Stewardship Council (MSC) erakundeak ziurtatutako arrainak ziren, eta ziurtagiri horrek arrainak kala jasangarrietatik datozela bermatzen du; beste 1.762 tona arrain akuikulturakoak ziren, eta GGN (GLOBALG.A.P. Number) zigilua zuten; eta 1.498 tona Arrantza Arduratsuko Atuna (APR) izan ziren. Erosketetan % 11ko igoera izan dugu 2020. urtearekin alderatuta.

I Printzipioak eta konpromisoak EROSKIn Arrantza Jasangarriaren aldeko Politikan

Arrantza aparailu eta arrain jasangarriak gure merkataritza eskaintzan

- 1 Arrantza baliabideen jasangarritasuna aintzat hartzea, merkataritza eskaintza prestatzean.
- 2 Soilik baimendutako arrantzaleku eta pertzetako produktuak merkaturatzea.
- 3 Tamaina txikia dutenak errespetatzea eta gutxieneko tamainaren langa gorago ezartzearen alde egitea.
- 4 Hornitzaileen artean arrantza aparailu jasangarrien erabilera sustatzea.
- 5 Erauzketa arrantzarako MSC (Marine Stewardship Council) zigilua duten produktu jasangarriak sustatzea.

Hornidura katearen jasangarritasuna

- 6 Dendetatik hurbilen dauden kofradiak eta tokiko hornitzaileak bultzatzea.
- 7 Arrantza banatzeko jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzea.
- 8 Langileen oinarritzko eskubideak errespetatzen dituzten hornitzaileak aukeratzea, LANEren arrantza lanari buruzko 188. hitzarmena betez.

Horretaz gain, arrantza tresna jasangarriekin harrapatutako beste 3.213 tona atun kontserba aipatu behar ditugu, eta horiei MSC eta APR zigiludun atun kontserben tonak gehituta, EROSKIn kontserbetarako harrapatutako atun bolumenaren % 82 arrantza tresna arduratsuagoekin (kanaberaz egindako arrantza, APR, FAD helbururik gabe, MSC eta FIP) harrapatutakoa da. Gaur egun, arrain jasangarriaren 150 erreferentzia baino gehiago merkaturatzen ditugu: freskoak, izoztuak, kontserbak eta maskotentzako janaria.

EROSKIn, gure arrantza jasangarriaren politika sinatu duten hornitzaileekin soilik egiten dugu lan, eta ez dugu onartzen Europar Batasunak txartel horiz ohartarazi dituen herrialdeetatik datorren atunik; txartel horia ORPek onartutako neurriak ez betetzeagatik eta legez kanpoko arrantza desagerrarazteko neurriak ez ezartzeagatik ematen du EBk.

Gure Arrantza Jasangarriaren Politikak hamabi printzipio ditu, eta horren barruan sartzen dira bai egun martxan ditugun jardunbide egokiak, bai etorkizunerako ezarri ditugun erronkak.

Gardentasuna eta gobernantza

- 9 Etiketa eta komunikazio gardena kontsumitzaileekin.
- 10 Arrantza sektoreari eta gainerako interes taldeei entzutea, eta haiekin elkarlanean jardutea.
- 11 Kontsumitzaileei arrantza jasangarriari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- 12 Gobernantza sistema bat izatea kontrol neurri eficienteekin eta ikuskaritzekin; horrela, sendotu egingo da EROSKIn Arrantza Jasangarriaren Politika.

Tokiko produktua eta hurbileko erosketa

Gure merkataritza politikak tokiko produktuak bultzatzen ditu ahalik eta gehien, ingurunean aberastasuna sortuz eta nekazaritzako elikagaien, ekonomiaren eta gizartearen garapenean lagunduz. Gainera, tokiko hornitzaileei laguntzeko programa bat garatu dugu, haien

Ontzien eta bilgarrien ekodiseinua

301-1, 301-2, 301-3

EROSKIn kontziente gara gizartean handitzen doan kezkaz planeta plastikoekin kutsatzeagatik; are gehiago, urteak daramagu kutsadura murrizteko ekintzak bideratzen. Era berean, gure ontzien zirkulartasuna hobetu nahi dugu, eta erabili ondoren bigarren bizitza bat izango dutela bermatu.

Kutxako poltsak

EROSKIn badakigu poltsek ingurumen arazoa sortzen dutela, eta horiek berrerabiltzea sustatu behar dela; horregatik, urte batzuk daramatzagu lanean poltsen erabilera arduratsua sustatzeko. 2009. urtean, birziklatutako plastikoz egindako rafiazko poltsa berrerabilgarria atera genuen, eta 2010ean behin erabiltzeko poltsa kobratzen hasi ginen.

Apustu horrek berehalako eragina izan zuen: 2009. eta 2010. urteen artean soilik, poltsen kontsumoa 293 milioi baino gehiagotan murriztu zen, 2009an kontsumitutakoen %62an. Hiru urte geroago, 2013an, poltsa solidarioa merkaturatu genuen: oihalezko poltsa berrerabilgarria, ingurumenerako laguntza eta elkartasuna batzen dituen, salmentaren etekin guztiak kausa solidarioetara bideratzen baitira.

Berrerabiltzeko aukera horiek gaur egun ere baditugu oraindik, eta 2019an ohiko plastikozko erosketa poltsa ordezkatzeko aukera jasangarrien sorta zabala gehitu genien. Horrela, bada, plastiko birziklatua %55 baino gehiago duen poltsa bat, %100 birziklagarria den eta FSC® zigilua duen paperezko poltsa berri bat, eta beste poltsa konpostagarri bat, landare jatorriko material berriztagarriekin egindakoa eta zabor organikoa botatzeko poltsa gisa berrerabil daitekeena.

Horren ondorioz, poltsetarako erabiltzen dugun materialaren %65 jatorri berriztagarria edo birziklatua duena da.

jasangarritasuna etengabe hobetzeko ingurumenaren eta gizartearen arloetan. Tokiko kontsumoa sustatzeko abian jarritako ekintzak 6. kapituluaren garatzen dira: "Tokiko ingurunearekiko konpromisoa".

lido horretan, gure marka propioko ontziak, kutxako poltsak eta dendan erabilitako bilgarriak optimizatzeko lan egiten dugu, betiere lehenik prebentzioaren ikuspegitik eta, gero, erabilitako materialak hobetzearen ikuspegitik begiratuta.

I Kutxa-lerroetan merkaturatutako poltsak



92.303.628

Kutxako poltsak
-%19, 2018. urtearekin alderatuta*

1.749.490

%70etik gora plastiko birziklatua duten errantiozko poltsak, berrerabilgarriak

115.210

Poltsa solidario berrerabilgarriak

79.751.005

%55etik gora plastiko birziklatua duen poltsa

1.548.907

Paperezko poltsak

8.936.225

Poltsa konputagarriak

37.128

Behin baino gehiagotan erabili daitezkeen sareak

165.664

Bestelako poltsak

I Merkaturatutako kutxako poltsak, materialaren arabera

2.710
Tona dendako bilgarriak
-%21 *2018arekiko

	tonak	2018-2021 aldakuntza (%)
Plastikoa, guztira	2.667	-%22
Bioplastikoa	112	*
Plastiko birziklatua	1.606	+%11
Plastiko konbentzionala	949	-%52
Papera/kartoia	43	*

*Kutxako poltsak 2019. urtean hasi ginen aldatzen, paperezko poltsak, konpostagarriak eta materialaren % 55 baino gehiago birziklatua duten poltsak sartzen hasi ginenean.

Dendan ontziratzeko bilgarriak

2018. urtean helburu bat ezarri genion geure buruari; hain zuzen ere, dendan ontziratutako gure produktu freskoen ohi-ko plastikoaren tonak %21 murriztea 2021erako, eta urtebete lehenago, hau da, 2020an, %30 murriztera iritsi ginen. Hori egin ahal izan genuen polietilenozko poltsen ordez poltsa konpostagarriak jarri genituelako, paperezko zorroak erabiltzen hasi ginelako plastikoaren ordez, eta ogia, opilak eta beste produktu batzuk dendan ontziratzeko erretiluetan plas-
tiko birziklatua % 80raino gehituta.

Horrekin batera, gure bezeroen artean berrerabilera sustatze-ko ekintzak ere egiten ditugu. Horrela, bada, bezeroei aukera ematen diegu beren ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko, hala nola fianbrerak edo tuperrak, harategiko eta arrandegiko se-
kzioetan, edo gure sare poltsa berrerabilgarria erabil dezake-
te solteko fruta eta barazkiak erostean, erabilera bakarreko
plastikozko poltsaren ordez.

I Dendan ontziratzeko bilgarriak

276.322.233
dendan ontziratzeko bilgarriak
-% 59, 2018arekiko

19.059.435 Erretiluak	36.145.468 Salmahaiko papera
175.884.492 Poltsak	22.721.800 Salmahaiko zorroak
942.929 Botilak	21.568.109 Beste batzuk



I Dendan ontziratzeko bilgarriak

3.863
Tona dendako bilgarriak
+%42 2018arekiko*

	Tona materialak	%-a 2020. urtearekin alderatuta
Plastikoa, guztira	2.766	+%56
Bioplastikoa	1.786	*
Birziklatutako plastikoa	303	+%11
Plastiko konbentzionala	676	-%52
Papera/kartoia, guztira	1.037	+%10
Birziklatutako papera/kartoia	5	*
Paper/kartoi birjina	1.032	+%10
Bestelako material batzuk	61	+%3

*2018a hartu dugu oinarritzko urtetzat, urte hartan hartu baikenuen konpromisoa dendan ontziratzeko plastiko konbentzionala % 21 murrizteko 2021erako. Salmahaietan bioplastikoak eta paperezko zorroak erabiltzen hasi ginen 2019. eta 2020. urteetan. Kontsumigarri berriek pisu handiagoa dute aurretik erabiltzen ziren plastiko konbentzionalekoek zutena baino. Hori dela eta, kontsumigarri kopurua txikituagatik, material tonak handitu egin dira, nahiz eta iturri arduratsuagokoak izan.

I Poltsetan, dendako bilgarrietan eta marka propioko ontzietan erabilitako materialak

35.818
tona poltsa, ontziak eta bilgarriak
-%3 2020arekikoalderatuta

	Tonak	%-a 2020. urtearekin alderatuta
Plastikoa, guztira	13.052	+%7
Bioplastikoa	1.921	+%393
Birziklatutako plastikoa	3.047	+%12
Plastiko konbentzionala	8.085	-%11
Papera/kartoia, guztira	10.727	-%6
Birziklatutako papera/kartoia	5.035	-%8
Papera/kartoia	5.692	-%3
Metalak	2.606	-%7
Beira	9.187	-%11
Bestelako material batzuk	9.248	-%98

Marka propioko ontziak

Marka propioa sortu zenetik, gure produktuen ontziak hobetzeko lan egin dugu, eta 2013an Basque Ecodesign Centerrera atxiki ginen. Bertan, enpresa pribatuek eta lhobe Ingurumena Kudeatzeko Euskal Sozietate Publikoak lankidetzan jarduten dugu ekodiseinuko proiektu berritzaileak kontzeptualizatzeko eta gauzatzeko, baita Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) eta nazioartean liderrak diren ezagutza zentroekin batera ere.

I Marka propioetako ontziakontzien unitateak

573.111.349
Marka propio ontziak
-% 9, 2020arekiko

2018an, 2025erako gure ontzien %100 ekodiseinatzeko helburua ezarri genion geure buruari, % 100 birziklagarriak izan daitezen, gehiegizko ontziratzea desagerrarazteko eta birziklatutako eta jatorri berriztagarriko materialen erabilera sustatzeko.

Ezarri nahi izaten dugun lehen neurria beti da ontzia kentzea eta, horregatik, solteko produktu freskoen salmenta bultzatzen dugu. Horrela, gure fruta eta barazkien % 60, gutxi gorabehera, ontzirik gabe saltzen da, eta beste sekzio batzuetan solteko produktuen ehunekoa are handiagoa da; arrandegian, adibidez, % 85etik gorakoa da. Aldi berean, 2021ean gure elikagaietako eta freskoetako marka propioko ontziak aztertzen jarraitu dugu, eta 380 hornitzaile baino gehiagoren 3.500 produktutik gora aztertu ditugu,

I Marka propioetako ontzietan erabilitako materialak

29.514
marka propioko ontzien tona
-%9, 2020arekiko

	Tonak	(%) 2018-2021eko aldaketa
Plastikoa, guztira	2.766	+%56
Bioplastikoa	7.619	-%7
Birziklatutako plastikoa	22	%12
Plastiko konbentzionala	1.137	-%9
Papera/kartoia, guztira	6.460	-%7
Birziklatutako papera/kartoia	9.648	-%7
Papera/kartoia	5.030	-%8
Metalak	4.618	-%6
Beira	2.606	-%7
Bestelako material batzuk	9.187	-%11

hau da, arlo horietako gure eskaintzaren % 98. Azterketaren helburuak dira ontzien aztarna plastikoa eta birziklagarritasun maila kalkulatzeko, ontziak hobetzeko ekintzak identifikatzeko eta lortutako aurrerapenen urteko jarraipena egin ahal izatea.

Ekitaldi honetan, gure marka propioko 73 ontzi ekodiseinatu ditugu; beraz, ingurumen hobekuntzak dituzten 119 ontzi ditugu, guztira, elikagaietan eta freskoetan. Horretarako, hainbat neurri aplikatu ditugu, hala nola materialak arintzea, material birziklatua edo jatorri berriztagarrikoa erabiltzea, eta birziklagarritasuna hobetzea, material bakarreko edo kolore argiko ontziei lehentasuna emanez, besteak beste. Horren guztiaren adibide dira ontzi hauek:

- Natur Bio behi hanburgesen ontziak hanburgesen ontzi estandarrek baino % 80 plastiko gutxiago du.
- EROSKI Basic txorizo gozoaren erretiluan, % 70 plastiko birziklatua da.
- EROSKI esne kondentsatuaren ontzia birziklagarriagoa da, produktua husteko ahalmena hobetu dugulako eta geruza bakarreko PET botila gardena delako

2021eko ekodiseinuko ekintzei esker, urtean 85 tona plastiko konbentzional kontsumitzea saihesten da. Gure plastiko konbentzionalaren aztarnaren guztizkoa 493 tona txikiagoa izan da 2021ean, 2020an baino.

Gainera, 2021az geroztik, ingurumen hobekuntzaren ikuspegitik begiratuta berriz diseinatzeko prozesua burutu duten ontziek piktograma berri bat dute, kontsumitzaileek jakin dezaten ontziak zer ezaugarri dituen eta material birziklatuaren zenbateko ehunekoa duen.

Logistika jasangarria

Gure jarduera logistikoen berotegi efektuko gasen isuriak 2015. urtearekin alderatuta gutxienez % 20 murrizteko helburua gainditu ondoren, gure garraioan eta plataformetan ingurumen hobekuntzako neurriak lantzen jarraitu dugu, %

10eko murrizketa gehigarria lortzeko; 2022. urtean zehar egiaztatzea aurreikusten dugu. Horretarako, hainbat ekimen garatu ditugu; 2. kapituluko "Logistika eraginkorra" atalean zehatz-mehatz azaltzen dira.

Denda ekoeraginkorrak


302-1,302-2, 302-3 302-4

EROSKlren merkataritza sarea "zurekin" eredura egokitzeko berritu eta zabaltzeak eraikinetan eta kudeaketan ere hobekuntzak egitea ekarri du, betiere ingurumen irizpideen arabera, eta hobekuntza horiei esker energia kontsumoa % 35 inguru murriztu dugu, aurreko ereduko establezimendu batekin alderatuta. Hori lortzeko neurri hauek ezarri ditugu: LED argiak jartzea, hotz altzariak ixtea, klimatizazioa hobetzea edo gutxiago kutsatzen duten hozgarri eraginkorragoak erabiltzea.

2021ean, gure denden jasangarritasuna hobetzeko beste urrats bat egin dugu aurrera, EROSKlren energia eredua duen gure lehen establezimendua inauguratu baitugu Gasteizen, Lakua-Arriagako zentroa.

I Ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriak

45,1 tona



Energia eredu berria EROSKI dendetarako

EROSKI dendetarako energia eredu berria hiru zutabe nagusitan oinarritzen da. Energiaren %100 berriztagarria izatea, kontsumoak % 50 murriztea, eta, jasangarritasuna kontsumoak murriztea baino gehiago denez, hondakinen %80 balorizatzea eta mugikortasun jasangarria sustatzea.

Lakua-Arriaga supermerkatua EROSKl-k 2012an abiaraziko bidearen amaiera da; izan ere, 2012. urtean CO2 Zero Isuriko denda zabaltu genuen Oñatin eta, orain arte, 2020. urtean Zizurren irekitako denda energetikoki jasangarriarekin bukatzen zen bide hori. Denda berri honek eraikuntza jasangarriaren URREZKO LEED ziurtagiria jasoko du; ziurtagiri horrek Lakuako supermerkatuan ingurumen hobekuntzako neurri garrantzitsuak ezarri direla adierazten du, kanpoko ziurtapen baten bitartez.

Azken supermerkatu horrek orain arte ezarritako jardunbideen bilakaera adierazten du, baita ingurumen jasangarritasuneko eredu berri bateranzko abiapuntua ere. Eredu berri hori EROSKI Taldeak zabaltzen dituen denda berrietara hedatuko da, establezimendu bakoitzaren baldintza fisikoek ahalbidetzen duten neurrian.

Gainera, bat egiten du EROSKlren jasangarritasunari buruzko ibilbide orriarekin; ibilbide orri hori Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoek eta 2050ean berotegi efektuko gasen zero emisio garbiak lortzeko konpromisoak markatzen dute.

EROSKl-k aurrera darrai klima aldaketaren aurkako borrokan eta, hartara, supermerkatu horrek indartu egiten du EROSKI Taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin hartua duen konpromisoa.

I Eraikin eraginkorragoa eta jasangarriagoa:

Eraikin eraginkorragoa eta jasangarriagoa

Hozgarri naturalak erabiltzea

CO₂ sistema baten bitartez, errendimendu handiagoa lortzen da hoztean, eta energia kostuak ere ehuneko handi batean murrizten dira.

Hozgarri horrek ingurumena gehiago errespetatzen du, eta, horri esker, eraginkortasun energetiko handiagoa lortzen da, ingurumenean inpaktu txikiagoa eraginez, PCA (Klima Berotzeko Potentziala) maila txikiagoko gasa baita. Hozgarri naturala da, ez sukoia, ezta toxikoa ere eta, beraz, sistema seguruagoa da.

Hozteko altzariek I+Gko azken aurrerapenak dituzte

Aurrerapen horiek altzarien diseinuan eta fabrikazioan txertatzeaz gain, eraginkortasun handiko lurrungailuez ere hornitu dira. Horretaz gain, altzari guztiek ateak dituzte itxeko, salmenta aretora hotzik atera ez dadin eta, hartara, energia esfortzua murrizten da, eta dendako konfort sentzazioa areagotu. Ate horiek, gainera, berritzaileak dira; izan ere, eroankortasun termiko txikia izateaz gain, ez dute markorik eta, horri esker, produktuen ikuspegi panoramikoa eskaintzen dute.

LED argiztapen sistema adimenduna eta autoerregulatua

Sistema hori unean-unean egokitzen da beharraren arabera, eta eguzki argia ahalik eta gehien aprobetxatzen da.

Teknologia hori erabiltzearen ondorioz, argiztapen sisteman kontsumoa %50 inguru murrizten da, batez beste, beste teknologia batzuekin alderatuta, eta, era berean, bizitza erabilgarri luzeagoa dutenez, ingurumen aztarna txikiagoa dute

Energia eraginkortasuna klimatizazioan

Klimatizazioari dagokionez, energia eraginkortasuna lortzeko, isolamendu termiko hobea ezarri da eta kanpoko hotza eta beroa aprobetxatzen hasi da. Lakua-Arriagako supermerkatuan, hotz zentralaren hondar beroa erabiltzen da zentroa berotzeko, eta, beraz, energia oso gutxi behar da berotze prozesuan. Horrek guztiak, gainera, barruko airearen kalitate bikaina dakar.

Energiaren eta ingurumenaren kudeaketa sistematizatua:

Energia kontsumoko sistemen domotika

Berrikuntza nabarmenetako bat energia kontsumoko sistemen kudeaketa domotikoa da. Zentroak hotza monitorizatzeko eta kontrolatzeko zerbitzua du eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan. Dendako sistema kritikoenetik datorren alarmaren bat pizten bada, prozedura zuzentzaile bat abiarazten da denbora oso laburrean, hotzik ez galtzeko edo elikagairik ez hondatzeko.

Era berean, dendan elektrizitatea kontsumitzen duten gainerako iturriak ere (argiak, labeak, klimatizazioa...) sistema automatiko baten bidez kontrolatzen dira, ezordutan piztu ez daitezen, eta erabilera orduak eta kontsumoa kontrolatzeko.

Jasangarritasuna energia aurreztean baino gehiago da:

Mugikortasun jasangarria

Gure mugikortasuna aldatu nahi dugu, seguruagoa eta jasangarriagoa izan dadin. Horretarako, aparkalekuan ibilgailu elektrikoak kargatzeko 12 puntu daude, horietako hiru mugikortasun urriko pertsonentzat, eta bizikletentzako aparkaleku berezi bat ere badago.

Denda, gainera, garraio publikoarekin ondo komunikatuta dagoen ingurunean dago, eta seguru da bizikletan joateko ere.

Jasangarritasuna, oinarri-oinarritik

Eraikina eraikitzean, jasangarritasun parametroak hartu dira kontuan eta, horiei esker, bero uharte efektua murriztu da eguzki islapen handiko estalkiak erabiliz. Inpaktu ekologiko txikiagoko materialak proposatu dira, eta berotegi efektuko gasen liberazioan % 10etik gorako hobekuntza lortu da.

Gainera, eraikuntzako hondakinak kudeatu dira, eta sortutako hondakinen % 80 baino gehiago aprobetxatu ahal izan dira.


Trantsizio Energetiko Berriztagarria

Denda mugari bat da energia berriztagarrietarantzko trantsizio bidean. Alde batetik, zentroak kontsumo propiorako energia sortzen du eguzki plaka fotovoltaikoen bitartez, eta, bestetik, kontsumitzen den energia guztia %100 da berriztagarria.

Energia kontsumoa erakundearen barruan

Energia intentsitatearen ratio EROSKI

572,6 Kwh/m³ merkataritza azaleraren 0,115 salmenta garbien 0,115 salmenta garbien



Energia kontsumoa erakundetik kanpo

Hegazkinez egindako lan bidaietan kontsumitutako kerosenoa, errepidez zein treneg egindakoetan kontsumitutako diesela, eta treneg egindako lan bidaietako elektrizitatea.

12.997.732 kWh

Uraren kudeaketa

303-2, 303-3, 303-5

Kudeaketa telematikoko ur kontagailuak ipini ditugu, urrundik kontrolatzen direnak, gure sarean egon daitezkeen ihesak denbora errealean detektatu eta minimizatu ahal izateko eta, hartara, ura gutxiago kontsumitzeko. Gainera, gure zentroetan ur grisak berrerabiltzeko aukera ematen duten instalazioak jartzeko lanean ari gara.

Jario eta isurien prebentzioa eta kontrola

303-4

Sortzen dugun hondakin ura gure jarduera garatzen den udalerietako hondakin uraren araztegieta tratatzen da. Kalkuluen arabera, 2021ean sortutako hondakin uraren bolumena 1.107.655 m³ izan zen. Kontrolik gabeko jario eta isurien prebentzioari eta kontrolari buruz indarrean dagoen legedia betetzen du EROSKI.

- Isurtzeko baldintza espezifikoak dituzten gasolindegiek Ur Partzuergoek, Mankomunitateek eta/edo Udalek ezarritako erreferentziako muga balioak betetzen dituztela egiaztatzea.
- Gainerako gasolindegietan sarera isurtzen diren urak udal ordenantzetan edo, kasuan kasu, aplikatzekoa den erreferentziako legerian ezarritako isurketa muga orokorrean barruan daudela egiaztatzea.
- Ur hidrokarburatuak iragazteko ekipoen funtzionamendu egokian desbideratzeak hautematea.

Plan hori urtero eguneratuz gero eta dagozkion prebentzio jarduketel lehenetasuna emanez gero, bat ez etortzeak garaiz hautemateko moduan izango dugu gasolindegia sarea.


Gainera, EROSKI gasolindegia sare osoan ihesak hautemateko sistema bat dugu, eta ez da inolako ihesik erregistratu ekipo horietan. Prebentzioko mantentze-lanetarako kontratu bat du sareak petrolio instalazioen mantentze lanak egiten dituen enpresa batekin, instalazio osoak behar bezala funtzionatzen duela zain dezan. Gainera, andel eta hodiegan egindako estankotasun proba guztiak ongi atera dira.

2019an Usurbilen eta Abadiñon hautemandako bi kasuetan (lurzorua edo ura kaltetu zen) leheneratzeko planekin eta ekipoak martxan jartzeko lanekin jarraitu dugu 2021ean.

Gainera, Jacan lurzorua eta lurpeko urak leheneratzen jarraitzen dugu; 15 hilabeteko atzerapenarekin gabiltza, 2021ean bi gorabehera gertatu baitziren. Lurpeko uretan kutsadura indizeak handitu zirela hauteman zenez, jarduketa geldiarazi egin behar izan zen aurkitutako akatsak konpondu arte. 2022ko martxoan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari jakinarazi ondoren, berriro ekin zaio leheneratzeari. Amaitutakoan, beste bi urtez egingo da jarraipena eta kontrola

Gure denda, plataforma eta egoitzetan erabiltzen den ura edateko uraz hornitzen duten udal sareek ekartzen dute, eta sare horiek zuzenean kudeatzen dute banatutako uraren bilketa eta edangarritasuna.

Ur kontsumoa



Sortutako hondakin uraren bolumena

1.077.655 m³



Biodibertsitatea babesteko gure zentroen kokapena

304-1; 304-2

Aurreko ekitaldiaren amaieran, EROSKI Taldeak Espainian dituen 1.600 dendetatik 102 babestutako eremuren batean zeuden. Eremu babestuetan denda gehien dituzten autonomia erkidegoak Galizia, Balear Uharteak eta Katalunia dira, bakoitzaren lurraldearen zati handi bat hartzen duten babes eremu zabalak dituzte eta.

Gure zentro guztiak hiriguneetan daude eta horiek kokatzeko garaian ingurumenari eta bioaniztasunari buruzko legedian ezarritakoa betetzen dugu; hortaz, gure jardueraren garapen egokia bermatzen dugu, ingurunea eta natura errespetatuz. Edonola ere, hainbat autonomia erkidegoetan, adibidez Galizia edo Balearretan, lurraldearen eremu handi bat bioaniztasunerako balio handiko espaziotzat hartzen da; hori dela eta, gure zentro batzuk babes figuren eraginpean dauden kokalekuean daude.

Dendak, autonomia-erkidegoka eta babes-figuraren arabera

Autonomia Erkidegoa	Babestutako eremuetan dauden dendak	Red Natura	Naturgune Babestua	Espainiako hegaztien eta biodibertsitatearen kontserbaziorako garrantzitsuak diren eremuak	Biosferaren Erreserbak	Espainiako Hezeguneen Inbentarioa
Andaluzia	11	✓	✓	✓	✓	
Aragoi	2			✓	✓	
Kantabria	3			✓		
Katalunia	14	✓	✓	✓	✓	
Gaztela eta Leon	5	✓		✓	✓	
Gaztela-Mantxa	3			✓	✓	
Extremadura	3	✓		✓		
Galizia	39	✓	✓	✓	✓	
Balear Uharteak	8	✓		✓	✓	
Errioxa	1				✓	
Madril	3	✓		✓		
Nafarroa	1			✓		
Euskadi	13	✓	✓	✓		
Guztira	106					

Horrez gain, ingurumen inpaktua gutxitzeko eta bioaniztasuna babestuko duten neurriak bultzatzeko lan egiten dugu hainbat ekintzaren bidez; esate baterako, arrantza jasangarria bultzatzen dugu, eta 2007az geroztik ingurumenaren babesaren arloan munduko aditua den WWF (World Wildlife Fund for Nature) erakundearekin lankidetzan jardun dugu. Elkarlanean bideratutako ekintzen artean, honako hauek nabarmentzen dira: arrantzako produktuei buruzko jasangarritasun politika eguneratzea eta kontsumo arduratsua sustatzea Elikadura Eskolaren bitartez.

Hondakinen kudeaketa zirkularra

306-2, 306-3, 306-5

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) datuen arabera, munduan ekoizten diren elikagaien herena zaborretara joaten da. EROSKI, gure jardueran elikagaien xahutzea minimizatzeko lan egiten dugu, zenbait ekintzaren bidez; besteak beste, iraungitze datatik gertu dauden produktu freskoak salneurri txikiagoan jartzen ditugu, elikagaiak dohaintzan ematen ditugu, edo birziklatu eta balorizatu egiten ditugu, beste produktu batzuk eskuratzeko.

Elikagai-hondakinen aurkako ekintza-plana

Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen arabera eta nekazaritza (FAO), elikagaien heren bat, mundu osoan galtzen edo alferrik galtzen dira. Lan egiten dugu elikagaiak ahalik eta gutxien xahutzeko gure jardueran hainbat ekintzaren bidez. Adibidez, bere datatik hurbil dauden produktu freskoen sustapena

Fruta eta barazki itsusiak, elikagaien xahutzearen aurka
EROSKI, nekazaritza sektorearen jasangarritasunaren alde eta elikagaiak alferrik galtzearen kontra hartu dugun konpromisoaren baitan, itxuragatik edo tamainagatik itsusiztat jotzen diren frutak eta barazkiak eskaintzen ditugu urtean zehar, zenbait kanpainatan. 2021ean, fruta eta barazki itsusien 604 tona merkaturatu ditugu gure sarean.

Iraungitze datatik edo kontsumo lehenetsiaren datatik gertu dauden elikagaien sustapena
Duela zenbait urtetik hona, iraungitze datatik edo kontsumo lehenetsiaren datatik hurbil dauden elikagaiei etiketa bat jartzen diegu, haiek erosten dituzten bezeroei deskontu metagarriak egiteko. 2021ean, deskontu horiek dituzten produktuen 42.000 tona baino gehiago saldu ditugu.

“Zero Hondakin” programaren bidez dohaintzan emandako elikagaiak
Oinarrizko elikagaien eta produktuen 6.000 tona baino gehiago dohaintzan eman dizkiegu gizarte erakundeei, “Zero Hondakin” programaren bidez. Programa hori xehetasun osoz azalduta dago “7. Konpromisoa gizartearekin” kapituluan.

Hondakin organikoek birziklapena eta balorizazioa
Alderantzizko logistika erabiliz edo kudeatzaile baimenduen bitartez, gure dendetan sortutako hondakin organikoak jasotzen ditugu, animalia jatorriko olioak eta irinak zein animaliei jaten emateko pentsuak egiteko lehengai gisa erabiltzeko, edo beste balorizazio prozesu batzuk egiteko. Horri esker, urtean 6.700 tona hondakin organikori bigarren bizitza bat ematen diegu.

Hondakin organikoek birziklapena eta balorizazioa
Alderantzizko logistika erabiliz edo kudeatzaile baimenduen bitartez, gure dendetan sortutako hondakin organikoak jasotzen ditugu, animalia jatorriko olioak eta irinak zein animaliei jaten emateko pentsuak egiteko lehengai gisa erabiltzeko, edo beste balorizazio prozesu batzuk egiteko. Horri esker, urtean 6.700 tona hondakin organikori bigarren bizitza bat ematen diegu.



**“Paco Muñoz”
Mercabarna Sariak**

CAPRABOren hondakin organikoak modu jasangarrian kudeatzeko proiektua Sektore Pribatuko Ekimen Onena izendatu dute “Paco Muñoz” Mercabarna Sarietan.

Berrikuntza, elikadura hondakinen kudeaketa zirkularrerako
2021ean, elikagai hondakinak murrizteko zenbait berrikuntza proiektutan parte hartu dugu, hala nola FoodRUs eta ZeroWaste proiektuetan. Europako Horizon 2020 edo Green Deal programetako proiektu horiek zenbait urteko iraupena izango dute, eta hainbat herrialdeetako enpresek eta zentro teknologikoei parte hartuko dute haietan.

Etxeetan elikagaiak alferrik galtzearen aurkako sentsibilizazioa
2021ean ere, AECOCK antolatzen duen Elikagaiak Alferrik Galtzearen Kontrako Astearen parte hartu du EROSKI, eta sentsibilizazio ekintzak eta ekintza pedagogikoak egin ditugu sare sozialen bidez. Gainera, CAPRABOk bat egin du Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin, eta sentsibilizazio ekintzak egin ditu. Besteak beste, galdetegi didaktiko bat jarri du online, jendeak uler eta ikas dezan zergatik den garrantzitsua hondakinak murriztea, bereziki hirietan. Ekimen hori CAPRABOren “Elige Bueno, Elige Sano” hezkuntza programan parte hartzen duten ikastetxeekin partekatu da. Gainera, Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritu gara, elikadura osasungarriari eta elikagai hondakinak murrizteari buruzko sentsibilizazio ekimenean.

Hondakin ez-organikoek minimizazioa eta kudeaketa

Gure jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak minimizatzeko lan egiten dugu, besteak beste gure markako produktuei ekodiseinua aplikatuz, gure bezeroek ontziak eta enbalajeak berrerabiltzea sustatuz, edo tikei digitala erabiliz.

Poltsa eta ontzi berrerabilgarrien sustapena

Bezeroek erosketa poltsak berrerabiltzea, fruta dendan sare berrerabilgarriak erabiltzea edo harategian zein arrandegian tuperra erabiltzea sustatzen dugu, dendetan erabilera bakarreko plastiko gutxiago erabil daitezten. Zentzu horretan, Donostiako Udalaren “Donostia Zero Plastik” kanpainan parte hartu dugu 2021ean, eta, beste ekintza batzuen artean, 600 tuper baino gehiago banatu ditugu.

Gainera, logistikako gure ontzi gehienak berrerabiltzen ditugu, lehengai birjin gutxiago erabiltzeko.

Berrerabilitako ontzi logistikoak



4.797.190
Berrerabilitako paletak



43.328.095
Berrerabilitako plastikozko kaxak

Paper gutxiago, tikei digitalari esker
2019an tikei digitala ezarri genuen, gure bezeroek beren erosketari buruzko informazioa zuzenean EROSKIren APPan izan dezaten, papera kontsumitu behar izan gabe. 2021ean, EROSKI (VEGALSA-EROSKI kontuan hartu gabe) %2 murriztu du tikei tarako paperaren kontsumoa, eta jaitziera %25 da 2018ko datuekin alderatuz gero. Horrek esan nahi du urtean 36 tona paper erabiltzea saihesten dugula.

EROSKIren egoitza sozialean, tikei tarako, aldizkarietan eta publizitatean kontsumitutako papera



4.636 tona
Berrerabilitako paletak

Berriztagarri

Publizitate-liburuxkak	3.864
Aldizkariak	408
Egoitza	8
Erosketa-tiketak	356

Publizitatean erabilitako paper guztiak PEFC % 70 (Programme for the Endorsement of Forest Certification schemes) ziurtagiria du, hau da, modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorrela bermatuta dago. CONSUMER EROSKI eta EROSKI Club aldizkarietako papera basoen kudeaketa arduratsua bermatzen duen PEFC ziurtagiria du. Egoitzan, EU Ekolabel zigilua duen gramaje txikieneko papera erabiltzen dugu.

Hondakin ez-organikoek birziklapena eta balorizazioa
Gure marka propioa dugunez, urtero gure produktuen ontzien, gailu elektrikoek, pilen, olioek eta argien aitorpena egiten diegu Produktu Sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboari, hala nola ECOEMBES eta ECOVIDRIO erakundeei. Gure produktuak erabiltzean sortutako hondakinak behar bezala berreskuratzen eta kudeatzen direla bermatzen dute erakunde horiek.

Produktu Sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboari aitoritutako produktuetan eta ontzietan erabilitako materialak



4.956 tona
Ontziak eta bilgarriak

Ez-berriztagarriak		Berriztagarriak	
Altzairua	452	Kartoia/Papera/Edarietako kartoia	1.566
Aluminioa	630	Zeramika	3
Plastikoa	1.532	Egurra/kortxoa	5
Beste batzuk	3	Beira	765
Tonak guztira	2.617	Tonak guztira	2.339



91 tona
Pilak



1 tona
Olioak



664 tona
Gailu elektrikoak eta elektronikoak

Gainera, gure instalazioetan eta dendetan sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeaz eta balorizatzeaz arduratzen gara, eta birziklatzea eta berrerabiltzea sustatzen dugu, lehentasunezko tratamendu gisa. Ekonomia zirkularren ikuspegitik, alderantzizko logistikako prozesuak bultzatzen ditugu, dendetan zein plataformetan eta enpresa homitzaileetan, sortzen ditugun hondakin organikoak eta ez-organikoak behar bezala berrerabili eta birziklatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, hondakin kantitatea minimizatzeaz gain, beste prozesu produktibo batzuetan lehengai birjinarik ere ez dela erabiltzen. Hala, honako ekintza hauek egiten ditugu:

- Gure instalazioetan sortutako kartoia, plastikoa, papera eta zura birziklatzen ditugu. Horretarako, gure dendetan baztertutako materialak jasotzen ditugu, eta haiak tratatzeko baimena duten Kudeaketa Sistema Integratuekin elkarlanean aritzen gara.
- Gure banaketa eragiketetan, logistikako ontziak berrerabiltzen ditugu.
- Kontsumitzaileei beren hondakinak birziklatzeko aukera ematen diegu. Horretarako, gure dendetan garbiguneak jartzen ditugu, besteak beste pilak, gailu elektrikoak, lanparak, arropa, etxeko olio eta tonerrak jasotzeko. Nabarmentzekoa da edozein markatako kafe kapsulen eta materialen bilketa; 2019an gure sare osoan zabaldutako genuen zerbitzu hori, eta hori egin zuen Estatuko lehen supermerkatu katea izan ginen. Ekimenari esker, hondakin horien 110 tona baino gehiago berreskura ditzakegu urtean.



Hondakinak motaren eta tratamendu metodoaren arabera (tonak)

45.015
Tona guztira

44.966
tona ondakin ez-arriskutsuak

43.918
Tona birziklatzeko edo beste balorizazio tratamendu batzuk egiteko hondakinak

49
Tona hondakin ez arriskutsuak

1.097
Tona ezabatzeko hondakinak

	Tonak
Birziklatzeko edo beste balorizazio tratamendu batzuk egiteko	43.918
Hondakin arriskutsuak	35
Birziklapena	20
Beste balorizazio tratamendu batzuk ¹	15
Hondakin ez-arriskutsuak	43.883
Birziklapena	30.333
Beste balorizazio tratamendu batzuk ¹	13.550
Zabortegia edo ezabatzeko beste modu batzuk	1.097
Hondakin arriskutsuak	14
Zabortegia	0
Ezabatzeko beste modu batzuk	14
Hondakin ez-arriskutsuak	1.083
Zabortegia	991
Ezabatzeko beste modu batzuk	92


¹"Beste balorizazio tratamendu batzuk" atalean, gaur egun ezin da bereizi zer hondakin proportzio bideratzen den balorizazio energetikora; izan ere, R12 eta R13 tratamendu kodeetan biltzen dira, eta horien barruan daude R1-R11 tratamendu guztiak.

I Birziklatzeko edo beste balorizazio tratamendu batzuk egiteko hondakin ez-arriskutsuak

	Tonak
Birziklapena	30.333 (%69)
Ez-organikoak	30.333 (%100)
Papera eta kartoia	28.228 (%93)
Plastikoa	1.974 (%6,5)
Egurra	108 (%0,4)
Beste batzuk	23 (%0,1)
Beste balorizazio eragiketa batzuk	1.097 (%31)
Ez-organikoak	6.764 (%50)
Papera eta kartoia	4.621 (%68)
Egurra	495 (%7)
Plastikoa	219 (%3)
Beste batzuk	1.429 (%21)
Organikoak	6.786 (%50)
Haragia	2.637 (%39)
Esnekiak	2.237 (%33)
Arraina	294 (%4)
Landareak	105 (%2)
Ogia	51 (%1)
Beste batzuk	1.462 (%21)

*Batez ere pentsuak egiteko erabiltzen diren hondakin organikoak; % txiki bat konpostatu egiten da

I Bezeroengandik jasotako hondakin tonak



Kontsumitzaileen ingurumen sentsibilizazioa

413-1; 413-2

Guztiok lagundu dezakegu ingurumena babesten; horregatik, kontsumitzaileak prestatzeko eta kontzientziatzeko lan egiten dugu EROSKIn, sentsibilizazio kanpainak eginez eta eduki pedagogikoak argitaratuz gure web plataformetan eta beste euskarri informatibo batzuetan. Gainera, helburu horrekin bat, bezeroekin, langileekin eta erakundeekin elkarlanean jarduteko ekimenak sustatzen eta garatzen ditugu.

“Planetaren Ordua”

Ondoz ondoko hamaikagarren urtez, EROSKIk bat egin du “Planetaren Ordua” ekimenarekin. WWF elkartek antolatu eta Nazio Batuek babesten dute ekimena, eta guk ere bat egiten dugu ingurumenaren aldeko ekimen sinboliko globalik handienarekin: ordubeteko itzalaldia. 2021eko leloa “Konekta zaitez naturarekin” izan da.

“Camiño a Camiño” ingurumen programa

VEGALSA-EROSKIk, beste behin ere, Vigoko Concello-aren ingurumen ibilbideen “Camiño a Camiño” programan parte hartu du. Programa horren bitartez, ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzen dira.

Artikako (Bizkaia) Jasangarritasun Eskola

2021ean, Artikako Jasangarritasun Eskolarekin sinatutako lankidetzak hitzarmena berritu dugu. Eskola hori Bizkaiko Hondakinei buruzko Ingurumen Hezkuntzako Zentroa da, eta hiri hondakinei buruzko prestakuntza programak egiten ditu; horretarako, tailerrak, ikus entzunezkoen proiektuak eta erakusketa interaktibo bat egiten ditu.

Ingurumen boluntarioria

Gure langileek eta bezeroek, EROSKIk bezalaxe, ingurunea zaintzeko eta etorkizun jasangarriago bat eraikitzeko grina dute. EROSKIn jarrera horiek sustatzen ditugu, eta, horretarako, ingurumen boluntarioria ekintzak sustatzen ditugu bi kolektibo horientzat. 2021ean, WWFekin lankidetzan zenbait ekintza egin ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian basoberritzeak egiteko, Balearretan naturguneak garbitzeko, eta Galizian lurzoru erreak berreskuratzeko, dendan zentimo solidarioak emateko programaren bidez.



6

Konpromisoa
inguru
hurbilarekin

por ser
de aquí



por ser
de aquí

1,45 €

1,70 €

1,55 €

TOMATE ROSA BARBASTRO
1,00 KG
TEGLA
175
3,89 €



Tokian tokiko hornitzaileekin hazten gara

102-9, 203-2, 204-1


Ingurunearen jasangarritasunarekin dugun konpromisoan, aintzat hartzen dugu ingurumenaren alderdia ere; izan ere, era aktiboan laguntzen dugu gu gauden lurraldeetako ekonomia garatzen. Gure politika komertzialak ahal den gehiena indartzen du tokian tokiko ekoizpena; horrek aberastasuna sortzen du ingurunean, eta nekazaritzako elikagaiak, gizartea eta ekonomia garatzen laguntzen du.

Lehen sektoreko enpresa txiki eta ertainetara bideratuta dagoen ekoizpen sektore aniztun bat izatea da tokian tokiko nekazaritzako elikagaien munduarekin dugun harremanean elementurik garrantzitsuenak: gure kooperatibaren geneetan dago aniztasun horrekin konprometitzea, elkarlan-inguruneak sorraraztea eta enpresa hornitzaile kopuru handi batekin lan egitea. EROSKik Espainian dituen 3.800 hornitzaile

komertzialen erdiak baino gehiago tokian tokiko enpresa ekoizle txikiak dira. Tokikotzat ditugu oro har nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten enpresa txiki eta ertainak, hurbiltasun maila handia dutenak, eta haien produktuak autonomia erkidego bakoitzean bakarrik merkaturatzen ditugu.

Estrategia horrek onura bat baino gehiago dakartza. Alde batetik, enpresa ekoizle txikiek eskura dute EROSKiren merkaturatze kanala, eta horrek eragin handia du enpleguan, landa garapenean eta paisaia naturalen iraupenean. Beste alde batetik, kontsumitzaileek EROSKIn aurki ditzakete produktu freskoak, jasangarriagoak, osasungarriagoak eta kalitate handiagokoak.

I taula Hornitzaile komertzialen eta tokian tokiko ekoizleen kopuruak



Lankidetza nekazaritzako elikagaien tokian tokiko ekoizleekin

Nekazaritzako elikagaien tokiko enpresa txiki eta ertainekin dituen hiru konpromiso nagusien inguruan antolatzen du EROSKik hornitzaileekin duen lankidetza:

1 Ekoizle txikien produktuak kontsumitzaileen eskura jartzea.

2 Mikroenpresetara, enpresa txiki eta ertainetara eta kooperatibetara egokitutako kudeaketa komertziala garatzea.

3 Haien profesionalizatzeko eta enpresa gisa hazteko planetan laguntzea.

2021ean, tokiko eta eskualdeko 1.797 erreferentzia berri izan ditugu; horietatik, 944 freskoen atalekoak eta 853 elikagaien atalekoak. Alta berri horiek 22 milioi euro baino gehiagoko salmenta sorrarazi dute. Horretaz gainera, lehen sektoreari ematen diogun laguntzaren erakusgarri, horra hor sektore jakinetan diharduten antolakundeekin eta kontseilu arautzaileekin 2021ean marka propiorako egindako kolaborazioak: urdaitegian txertaturiko erreferentziak (Balearretan, Nafarroan eta EAEn), arrautza Aragoi eta Binissalemgoko ardoa Balearretan. Ildo horretan, esaterako lekaleen produktua berriro nahian, haletan oinarritutako zizka-mizkak gaineratu ditugu Nafarroan, eta humusa EAEn, guztiak ere gure markarekin.

Hala berean, pausoak ematen jarraitzen dugu sektore produktiboa ugartzearen alde. Nabarmen jardun gara funtsezko bi sektoreen garapenean laguntzen EAEn eta Katalunian: barazkiak eta gaztagintza, zeinetan aurrerapen esanguratsuak izan baitira.

Horretaz gainera, jarraitzen dugu hitzarmenak berrituz eta berriak sortuz sektore jakinetako antolakundeekin, zertarako eta tokian tokiko elikagaiak, JI Jatorri Izenak eta AGP Adierazpen Geografiko Babestuak bultzatzeko. Gaur egun, 2.500 produktu baino gehiago ditugu Jlekin edo AGBekin: 1.600 ardo baino gehiago eta 180 gazta baino gehiago Jlekin eta kontserba begetalez, olio, lekalez eta arrozaz egindako 100 produktu baino gehiago Jlekin eta AGBekin eta 230 haragi produktu baino gehiago AGBekin. Bestalde, 1.180 produktu baino gehiago ditugu kalitate bereiziko markekin; besteak beste, Eusko Label, Reyno Gourmet eta Tierra de Sabor.

Nekazaritzako elikagaien tokian tokiko ekoizleekin harremana izatea funtsezkoa da lankidetza eredu horrek funtzionatzeko. Hori dela medio, aldi behin bilerak egiten ditugu ekoizle txikiekin partekatzen dugun estrategien berritasunak sustatzeko eta lehen sektorearen aniztasuna bultzatzen jarraitzeko. 2021ean, sektoreka hiru mahai antolatu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, gaur egungo eta etorkizuneko egoera aztertzeko baratzetaren, ardoaren eta sagardoaren sektoreetan. Era berean, "Enpresa txiki eta ertainen aldeko konpromisoetan" aurreramenak egiteko asmoz, inkesta bat egin dugu gurekin diharduten 650 ekoizle

txiki eta ertainekin. Inkesta horretan, ekoizleek nabarmentzen dute gure prestasuna, eskuragarritasuna eta kalitate eskakizun handia, baita tokiko ekoizleekin dugun konpromiso publikoa eta konpromiso hori praktikan jartzea ere.

Horretaz gainera, bi hitzarmen izenpetu ditugu erakundeekin: lankidetza hitzarmen bat Aragoiko Gobernuarekin (Aragoiko produktuak garatu eta sustatzeko uztailean) eta hitzarmen berritzea Kataluniako Kooperatiben Federazioarekin abuztuan.

Tokiko ekoizleei lagun egiteko programa

EROSKik tresna bat landu du 2021ean nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten enpresa txikien zerbitzuko. Xedea da EROSKiren tokian tokiko enpresa hornitzaileak eta haien ingurunea ezagutaraztea eta haienganako konpromiso handiagoa sustatzea, etengabe hobetzeko prestakuntza eta laguntza ematea, produktuek kalitate handiagoa eta ingurumen eta gizarte portaera hobea izateko lagun egitea, eta hornidura katean gardentasun handiagoa lortzea. 2022ko lehen hiruhilekoan aterako dute proiektua, eta aurreneko diagnosi fase bat izango du, zeinaren helburua baita ekoizleak alderdi askotatik nola dauden begiratzea (kalitatea, gobernu ona, ekoizleen ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko jasangarritasuna...) eta etengabe hobetzeko modua izan dezaten laguntzea. Ondoren, bigarren fase batean, EROSKik ekoizle bakoitzari jakinaraziko dio nola dagoen eta zertan hobe dezakeen.

Azkenik, hobekuntza eremuak detektatuta, EROSKik hirugarren fasea gauzatzeko du, prestakuntzarena, nola eta mintegi digitalen, informazio buletinen eta jardunaldi teknikoaren bitartez, ekoizleei beren langileen gaitasuna errazteko eta produktuetan eta prozesuetan hobekuntzak garatzeko. Laguntza programa hori jarraikorra izango da, diagnostikoa eguneratua egoteko eta denboran aldatzen diren interesen araberrako edukiak emateko.



Tokiko ekoizleen sustapena

EROSKik tokiko produktuak sustatzeko duen helburua areago doa. Izan ere, kultururaren, gastronomiaren eta sukaldaritzaren aldetik produktuek dituzten balioak zabaltzeko eta bultzatzeko lana ere hartzen baitu. Gauzak horrela, gure hurbileko produktuen eskaintza etengabe handitzen doa azken urteetan, eta EROSKIn elikagai autoktono horien kontsumoa sustatzearen alde inplikaturik ere bagaude, horrek laguntzen baitu gure gastronomia, ekonomia eta paisaia atxikitzen.

Alde horretatik, ez gara gelditu dinamizatze komertziala egitetik, eta kanpainak gauzatu ditugu eskualde guztietan urteko hilabete guztietan, aintzat izanik produktuaren sasoia,

eta sarritan Kontseilu Arautzaileen eta Kalitate Marken eskutik. Era berean, 2021eko ekainetik hona komunikazio elementu berriak txertatu ditugu, bai kanal fisikoan eta bai digitalean, eta ekitaldi digitalak areagotu.

Tokian tokiko ekimenak aitortzea bilatzen duten ekintzen artean, 2021ean, Basque Culinary Centerrek eta EROSKik hiru ikasle ohi aitortu dituzte, zeintzuen proiektuak elikadura eta gastronomia ulertzeko modua eraldatzen ari baitira, "EROSKI-BCC Onenak 2021 Aitortzak" izeneko ekitaldian.



Kultura, aisia eta tokiko ingurunea sustatzea

413-1; 413-2

Ekimen lokalagoak sustatzearekin, EROSKik gure sare komertzialaren hurbilean dagoen jendearen ongizatean lagundu nahi du, eta balioan jarri hurbilagokoak diren kultura eta tradizioak.

Tokian tokiko hizkuntzen sustapena eta hedapena

EROSKiren ustez, tokian tokiko hizkuntzak gure inguruko komunitateen kultura ondarearen funtsezko atalak dira, eta, ondorioz, haiek sustatzeko eta hedatzeko lan egiten dugu etengabe. Ez kasualitatez, urteak eta urteak daramatxagu banaketa enpresa bakarra izanez marka propioko produktuen etiketak euskaraz bezala berdin eskaintzen gainerako hizkuntza ofizialean ere. Gainera, erabilera sustatzen duten kanpoko ekimenekin lankidetzan dihardugu.

Euskararen kasuan, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzen dugu aspaldiko urteetan, hizkuntzaren arloan hain azoka garrantzitsua dena. Hala berean, euskara hezkuntzan sustatzeko izaten diren ekimen nagusietan kolaboratu izan dugu (Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez), zeinetan 6.000 lagunek parte hartu baitzuten, EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak antolatuta, ikasleen eta familien artean ohitura osasungarriak sustatzeko ekitaldietan. Horretaz gainera, zenbait ekimen eta proiektu lantzen ditugu (hala nola Euskara Plana), ingurune elebidunak lortu eta euskararen erabilera erakunde barnean handitzeko.

Galiziako kultura eta hizkuntza ere balioesten ditugu. Alde horretatik, Galiziako gizartearekin lotura estua duten ekimen guztiekin egiten dugu bat. Esate baterako, aurreko ekitaldietan bezala, Dia das Letras Galegas ekimena babestu genuen 2021ean ere.

Ekimen horietaz gain, ahalegin handia egiten dugu CONSUMER EROSKI aldizkaria gaztelaniaz, euskaraz, galizieraz eta katalanez eskaintzeko. EROSKI Club eta Sabor-CAPRABO aldizkariak ere gu gauden lurraldeetako hizkuntza ofizialean daude eskuragarri.

Aisia eta kultura

Kultura kontsumitzaileei hurbiltzen saiatzen gara askotariko babesleza jardueren bidez. Esaterako, Elorri, gure egoitza nagusia dagoen herrian, urtero egiten den Musikaire kultura jaialdia babesten dugu.

VEGALSA-EROSKik beste behin kolaboratu du ENKI integrazioak antolatzen duen Oztopen Lasterketarekin, zeinak asmoa baitu aukera berdintasuna lortzea Coruñaiko kultur ondareetara sarbidea izateko orduan eta trabak kentzea herritar guztiek parte har dezaten, desgaitasunak dituztenetan arreta jarrita batik bat. Horretaz gainera, tokian tokiko kultura bultzatu izan du Galizian udan izaten diren hiru musika ekitaldiak babestuta: Morriña Fest, Resurrection Fest eta Caudal Fest; baita Camiño Escena Norte truke artistiko eta profesionalerako ekimenaren hirugarren aldia ere.

Era berean, kirolak gaur egungo gizartean eta bizimodu osasungarrian zer-nolako garrantzia duen jakinda, gure ingurune hurbilenean antolatzen diren kirol jarduerak ere babesten ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, herri lasterketetan eta jardueretan lagundu izan dugu; esaterako, Artxandako lgoeran. Horretaz gainera, hitzarmen bat sinatu genuen ARASKI saskibaloia femeninoarako Kirol Taldearekin eta Txirindularitzako Euskadi Fundazioarekin, elikaduraren eta kirolaren bitartez ohitura osasungarriak garatu eta sustatzeko.



Plátano

EROSKI Natur de

325 agricultores de

La Palma

7

Konpromisoa
gizartearekin

Donamos
10 céntimos
por kilo vendido

A través de:



Cruz Roja





Gure eskarpena gizarteari

413-1; 413-2

EROSKik, sortu zenetik, gizarte ekintzan dihardu, modu batera baino gehiagotara, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat posible egiten laguntzeko. Horretarako, langileak inplikatzan ditugu, eta, aldi berean, bezeroen parte hartzea sustatzen dugu kanpainak eta gizarte ekintzak arlo lokalean eta nazionalean proposatu eta garatzeko orduan. Horrela bideratzen dugu gizarte ekintza gure interes taldeen premia eta joeretara.

Gizartearen aldeko ekintzak gauzatzeko, gutxienez gure etekinen %10 darabiltzagu Heziketa eta Promozio Kooperatiborako Nahitaezko Ekarpen Funtsean eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetan. Baliabide ekonomiko horiek EROSKI Fundazioaren bidez kanalizatzen dira. Fundazioa 1997an eratu zen, eta lau ardatz handiren inguruan jarduten da:

1. Kontsumitzaileen formazioa eta informazioa.
2. Heziketa, kultura eta lanbide arloak, bereziki kontsumerismoaren gaian eta inguruaren eta ingurumenaren aldeko konpromisoan.
3. Elkartasun eta sustapen asistentziala.
4. Kontsumerismoari, elikadurari, ingurumenari eta ohitura osasungarriari loturiko ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Ardatz horiek artikulatzeko, fundazioak talde tekniko bat du diziplina anitzetako adituz osatua; hala, kontsumitzaileen aldeko ekintzak sustatzen ditu, zabalpen kanpainak egiten ditu, aldizkariak eta gidak argitaratzen ditu, bekak eta laguntzak eskaintzen ditu eta gizarte erakundeekin kolaboratzen du. Fundazioko patronatuak ziurtatzen du urtero prestatzen den Jarduera Plana aurrera ateratzen dela honako printzipio hauek kontuan izanik: inpartzialtasuna, independentzia, gardentasuna, eraginkortasuna eta erantzukizuna.

Horrenbestez, ekimen propioz zein hirugarrenekin egindako hitzarmenen bidez bultzatzen dugu gure inguruaren garapen sozial eta kulturala.

2021ean, guztira, 13.579.518 euro jarri genituen gizarte ekintzako honako eremu hauetan: EROSKiren eta haren bezeroen 2021eko ekarpen ekonomikoak, guztira, 13.579.518 € izan ziren, gizarte-ekintzako eremu hauetan banatuta.

| Gizarte ekintzarako ekarpenen banaketa



Elkartasun zentimoen dohaintza programa

413-1; 413-2

2021ean, sendotu egin dugu 2020ko azaroan ateratako dohaintza programa iraunkorra; horren bitartez, gure bezeroek elkartasuna erakusteko erraztasunak jarzen ditugu egunean-egunean gure dendetan. Programa horren bitartez, EROSKiren eta CAPRABOren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete erosketari txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen dutenean aldi bakoitzean dagoen ongintzako kausarako. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan; gero, ekarpen horri EROSKik berea egiten dio.

14 milioi elkartasun zentimoen bitartez eman diren 14 milioietatik bi milioi euro pasa 368.000 lagunentzat bideratu dira 260 gizarte erakunderen bitartez. Erakunde horiek askotariko proiektuak finantzatu dituzte haurrei laguntzeko, ingurumena zaintzeko, minbizia borrokatzeko, adinekoei laguntzeko, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan direnentzako, mendetasuna dutenentzako, gaixotasun degeneratiboak dituztenentzako eta genero indarkeriaren biktimak izan direnentzako.

| Elkartasun zentimoen dohaintza programako adierazleak ekimena abiatu zenetik



| Dohaintza programa 2021eko ekitaldian:

Hila	Lagundutako kolektiboa	EROSKiren eta haren bezeroen dohaintzak (eurotan)
2021eko otsaila	Minbizia duten haurrak	213.053
2021eko martxoa	Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak eta haurrak	193.537
2021eko apirila	Gaixotasun neurodegeneratiboak	277.698
2021eko maiatza	Gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan diren familiak	175.760
2021eko ekaina	Ingurumenaren babesa	154.347
2021eko uztaila	Egoera zaurgarrian diren adinekoak	160.138
2021eko abuztua	Desgaitasuna duten pertsonak	144.898
2021eko iraila	Egoera zaurgarrian diren haurrak	218.388
2021eko urria	Minbizia duten emakumeak	153.543
2021eko azaroa eta abendua	Egoera zaurgarrian diren familiak	343.251
2022ko urtarila	Errefuxiatuak eta nazioarteko kooperazioa	138.109

Jendeari entzunez eratu dugu 2022ko Elkartasun Plana

EROSKik ekitaldi honetan eratu du 2022rako Elkartasun Plana, gizarte erakundeek, langileek, bezeroek eta herritarrek emandako iritziak eta egindako proposamenak jasota. Horrela hautatu dira gizarte ongintzarako proiektuak elkartasun zentimoen dohaintza programarako. Horrekin batera, erakunde gehiago gaineratu dira Zero Hondakin programaren bitartez elikagaiak jasotzen dituztenetara.

12.400 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten 2021eko irailean egindako entzute-saioetan, eta 289 gizarte erakunde 464 elkartasun proiektu aurkeztu zituzten, EROSKIren programa iraunkorrean sartu eta behar handiena dutenengan onura inpaktu handiagoa izateko.

GKEek, kontsumitzaileek eta bazkideek osaturiko Aholkularitza Batzordeak egindako azterketak balio izan du 2022rako azken plana eratzeko. Hala, elkartasun programatik bildutakoa honako kausa hauetarako izango da: minbizia duten haurrei eta emakumeei laguntzeko, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eta haurrei laguntzeko, gaixotasun neurodegeneratiboak edo gaixotasun arraroak dituztenei laguntzeko, desgaitasuna duten pertsonen babesa emateko, zaurgarri diren familiekin eta adinekoekin kolaboratzeko, ingurumena zaintzeko eta etxerik ez duten animaliak babesteko.

Gizarte larrialdiari erantzuten diogu

413-1; 413-2

Familia askorentzako pandemia eta zailtasun ekonomikoko garaiak diren hauetan, elkartasunak garrantzi handia hartu du aurrera ateratzeko. Gainera, beste gizarte larrialdi batzuk sortu dira; besteak beste, Palmako sumendiaren erupzioa.

Testuinguru horretan, EROSKik bere elkartasun ekimenak indartu ditu gehien behar dutenen oinarritzko nutrizio eta higiene beharrak estaltzeko.

Palmako sumendiak jotakoen aldeko larrialdi kanpaina

Gure bezeroekin batera, 435.000 euro baino gehiago eman ditugu Palmako Cumbre Vieja sumendiaren erupzioaren kalteak izan dituztenei laguntzeko, gure sare komertzial osoan martxan jarri genuen larrialdiko kanpainari esker.

Bildutako dirua eta EROSKik egindako ekarpen gehigarria Gurutze Gorriak bideratu ditu, hura ari baita zuzenean laguntzen hondamendi honek jotakoak.

Elkartasun ekintzak bi lan ildo izan zituen. Batetik, bezeroak animatu genituen Kanarietako platanoa jatera, platanoren sektoreari eta sumendiaren erupzioak jotako herritarrei laguntzeko. EROSKik 0,10 zentimo eman zituen EROSKI Naturrekin saldutako planato kilo bakoitzeko. Bestetik, bezeroei dei egin genien borondatezko dohaintza bat egin zezaten ordainleketan, horretarako mekanismo bat egokituta

Kanpainak Elikagaien Bankuekin

2021ean, 25 urte bete dira Espainiako Elikagaien Bankuen Federazioarekin (FESBAL) elkarlanean hasi ginela. Urtero gure dendetan biltzen ditugun elikagaiak federazio horri ematen dizkiogu bi kanpainaren bitartez: "Kilo Operazioa", ekainean, eta "Elikagaien Bilketa Handia", azaroan. Elikagai horiek erkidego bakoitzean zailtasun ekonomikoak dituztenentzat eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan direnentzat dira; pandemian, gainera, egoera makurragoan gelditu baitira. 2021ean, osasun krisia dela eta, ez da posible izan produktuaren bilketa fisikoa, eta horren ordez, gure dendetako ordainlekuan zenbateko bat emateko ahalbidea jarri zitzaion bezeroei, eta zenbateko horri, beti bezala, bere ekarpena gaineratu zion EROSKik. Horri esker, denon artean hiru milioi otordu baino gehiago eman ditugu Elikagaien Bankuen aldeko kanpainetan, eta hala 1.200 familia elikatzea lortu dugu urtebetez.

Zero Hondakin programa

EROSKIn jarraitzen dugu elikagai hondakinik ez gelditzeko lanean. Gure jarduera protokoloak ziurtatzen du dohaintzan emandako produktu fresko eta elikagai guztiak jateko moduan daudela apaletatik kentzen ditugunean gure bezeroei freskotasun maximoaren eta ontziaren itxuraren konpromisoa betetzeko. Hotz-katea behar bezala mantentzen dela ziurtatzen dugu dohaintza hartzen duten erakundeetan, eta berme berak ziurtatzen ditugu haien garraioan, elikagaia kontsumitua den arte.

Produktu horiek hartzaileari esleitzeko eta emateko irizpidea Espainia osoan gurekin lankidetzat hitzarmena sinatu duten ehun gizarte erakunde baino gehiagoren bidez gauzatzen da. 2021. urtean, EROSKik 5.600 tona janari eta oinarritzko produktu baino gehiago eman ditu behar gehien duten kolektiboentzat ehunka gizarte erakunderen bitartez.

EROSKik egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

Gizarte xedeetarako erosketa txartela

EROSKIren eta CAPRABOren gizarte xedeetarako erosketa txartelak laguntzen du udalen eta gizarte erakundeetan laguntza bideratzen larrialdian diren herritarrei eta familieei. Txartel pertsonala erabiltzaileei ematen zaie, eta hasierako zenbateko bat izaten du; horrekin batera, aukera dago era automatikoan, maiztasuna pertsonalizatuta, noizean behin dirua txartelean sartzeko, erakundearen jarraibideen arabera. EROSKIren opari edo fidelizazio txartelen antzekoa denez, modua ematen du modu integratzailean eta ez soilki asistentzialean oinarritzko beharretara sarbidea normalizatzeko, lehenetsuna emanaz pertsonarenganako elkartasunari, segurtasunari, isilpekotasunari, autonomiari eta duintasunari programa honen funtsezko balioen gisa.

2021ean, 130 erakunde publiko eta gizarte erakunderekin baino gehiagorekin aritu gara lankidetzan, haien asistentzia laguntzak egoera zaurgarrian direnei bideratzeko gizarte-xedeetarako erosketa txartelaren bitartez. Txartelen bitartez bideratutako dirua urte baten hamar milioi otordu baino gehiagoren pareko da.

2021. urtean, EROSKik eta haren bezeroek 17 milioi otordu baino gehiago eman dituzte behar gehien duten kolektiboentzat. Kopuru horrekin, 4.200 familia mantent daitezke urte oso batez.

Beste elkartasun ekintza batzuk

413-1; 413-2

Elikadura arloko elkartasunaz gain, beste kanpaina batzuk ere egiten ditugu: gizarte egoera ahulean dauden kolektiboei laguntzen diegu, eta ingurumenaren aldeko konpromisoa

Minbiziak jotakoentzako laguntza

EROSKik beste urte batez parte hartu du Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearen ekintzetan. Besteak beste, elastikoak saldu zituen urrian, udan larruazaleko minbiziaren aurkako kanpaina babestu zuen, emakumeen lasterketak babestu zituen... Horretaz gainera, CAPRABOk dohaintzen bilketa bat egin du, minbizia duten emakumeen arreta integralerako programan kolaboratzeko.

Mide Sonrisas kanpaina, Balearretan gaixo daudenen alde

Hamargarren urtez, EROSKik Mide Sonrisas kanpaina egin du Balearretako dendetan. Haren bitartez, 49.000 euro bildu dira tokiko hamalau erakunderentzat. Erakunde horiek askotariko gaitzak dituzten kolektiboei laguntzen diete, hala nola esklerosi anizkoitza, diabetesa eta minbizia.

Gizakia Helburu kanpaina Balearretan

2021ean, "Zurekin bizitzak kolorea hartzen du" kanpaina egin dugu Balearretan; hala, bezeroei objektu original bat eskaini diegu euro baten truke, Gizakia Helburu fundazioarekin kolaboratzearen truk. Erakunde horren alde 40.000 euro bildu genituen, eta drogen mende daudenei laguntzeko uhartean dituen programetan erabiliko dute.

Ehun-hondakinen kudeaketa solidarioa eta jasangarria

Urtero bezala, Koopera, Humana Fundacion Pueblo para Pueblo eta INS3RTEGA erakundeek kudeatu dituzte bezeroek gure dendetara eramaten dituzten arropak eta oinetakoak, berrerabiliak izateko edo birziklatzeko, eta 21.000 euro pasak gizarte proiektuetara bideratu dira.

sustatzen dugu kontsumo ohituren bitartez baliabide naturalak zainduta. Hona hemen horietako batzuk.

Nazioarteko lankidetzak

EROSKiren ustez, elkartasunak gainditu egin behar ditu mugak; horregatik, gugandik urruti dauden beharriazane erantzuteko ere egiten ditugu kanpainak.

UNICEFen, ACNURen eta MUNDUKIDERen aldeko Elkartasun Zentimoen kanpainaz gain, aurten ere jarraitu dugu elikagaiak ez diren kontsumogaiak dohaintzan ematen (jostailuak, oinetakoak, arropa, eskolako materiala eta optikako produktuak besteak beste) Latinoamerikako haurrentzat Munduko Haurak Federazioaren bitartez, giza garapen jasangarriaren eta nazioarteko kooperazioaren alde diharduen erakundea bera. 2021ean, 273.000 eurokoak izan ziren dohaintzak.

Familiei laguntzea

EROSKik familia ugari laguntzeko lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola Hirukiderekin, Fanoc-ekin eta Familia Xlrekin. Horretaz gainera, familia mota horrek behar bereziak dituela jakitun, onura bereziak eskaintzen ditugu fidelizazio txartelen bitartez; VEGALSA-EROSKIn, berriz, Tarxeta Benvida de la Xunta de Galicia ekimenaren bitartez; eta CAPRABOn, Bienvenido Bebe programaren bitartez. **Hala, 2021ean 20.000 familia ugari 1,1 milioi euro baino gehiagoko aurrezpena lortu dute.**

Programa hori osatzeko, CAPRABOren "Bienvenida Matrona" on line tresna dago. Hari esker, gurasoek erantzun guztiak aurkituko dituzte haurdunaldian, erditzean eta haurtxoaren lehen urteetan sor daitezkeen galderak eta zalantzak argitzeko. Ekimen horrek zenbait talderen laguntza izan du, hala nola Emaginaren Elkartearen Espainiako Federazioa, Espainiako Emaginaren Elkartea eta J. Mateu Sancho pediatra dokorea.



Delegatuen
Batzar Nagusia
Asamblea General de
Personas Delegadas

EROSKI

8

Gardentasun
konpromisoa

EROSKI
Keep E. & Coop.

Garai bat amaitu,
beste bat hasleko.
El final de una etapa,
el comienzo de una nueva.

Finantza emaitzak

102-7; 201-1;

Txertatze prozesuak aurrera egitearekin batera, 2021eko ekitaldian pandemiaren aurreko kontsumo ohiturak berreskuratzen hasi zirela esan daiteke, baina urte osoan kutsatzeen hainbat olatu izan zirenez, ezin dugu esan ekitaldia normalizatua izan zenik. Izan ere, ekitaldiaren amaieran seigarren olatu garrantzitsua bizitzen ari ginen, eta aisialdian eta jatetxeetan neurri murriztaileak ezarri zituzten.

Jardueraren bolumena txikiagoa da aurreko urtearekin alderatuta; aurreko urte hartan, konfinamenduaren eraginez, elikagaien negozioan zifren gorakada garrantzitsua gertatu zen. 2020. urteko mugikortasuna murrizteko neurriek eragin negatiboa izan zuten negozioetan, kirol aisialdiarekin lotutakoetan eta, batez ere, bidaletan, ez dute normaltasuna berreskuratu eta pandemiaren aurreko jarduera bolumenetatik oso urrun daude oraindik.

Kostuak jardueraren arabera egokitu dira, eta emaitza operatiboan hobekuntza bat ikusiko zatekeen 2019ko ekitaldian lortutakoarekin alderatuta, baldin eta urteko azkeneko hilabeteetan energiaren prezioen gorakada izugarriak sekulako eragina izan ez balu. Hilabete gutxiren buruan izugarrizko kostua ekarri du, eta kostu hori ezin izan da zuzenean merkatura eraman.

Ekitaldian barrena, EPCG bazkidea Kataluniarekin eta Balear Uharteekin lotutako negozioen kapitalean sartzeko prozesua burutu da. Ekarpen horrekin, Taldearen proiektua indartu egin da, batik bat, bi eremu geografiko horietan.

Gainera, ekitaldian egindako zor murrizketa adierazgarria ere nabarmendu behar dugu; izan ere, 450 milioi euro baino gehiago izan dira eta, horri esker, palanka efektu finantzarioaren zentzuzko mailetara iritsi gara.

I Zuzeneko balio ekonomiko sortua eta banatua (mila euro)

	2021	2020	2019
Ohiko sarrerak	4.792.390	5.051.067	4.835.650
Banaketaren salmenta garbiak	4.541.380	4.807.439	4.584.227
Ibilgetuaren salmentatik etekinik ez duten beste sarrera batzuk	251.009	243.628	251.423
Etekin operatiboa (ibilgetu salmentek eta aktibo ez-korronteek eragindako narriaduren aurretik))	185.475	252.411	193.840
Narriadura, ibilgetu salmenten emaitzak eta aktibo ez-korronteak	-63.914	-198.963	-162.602
Finantzarioen eta zergen aurretiko etekinak	121.562	53.448	31.238
Emaitza finantzarioa	33.147	-104.503	57.526
Partaidetza inbertsioen etekinak/galerak partaidetza metodoa aplikatuta	221	232	1.436
Mozkinen gaineko zergak	-50.316	-26.740	-45.028
Etendako jardueren etekin garbia	0	0	0
Ekitaldiko emaitza	104.614	-77.562	45.173

Finantza Jasangarrien Taxonomia

Europar Batasuneko (EB) Finantza Jasangarrien Taxonomia tresna bat da; horren bitartez, inbertitzaileek ingurumenaren arloko politikak betetzen dituzten inbertsio aukerak identifikatu ditzakete. 2021eko ekainean, EBk bi egintza eskuordetu argitaratu zituen klima-aldaketa leuntzen eta horretara egokitzen laguntzen duten jardueren zerrenda zehazteko; aldiz, gainerako lau helburuetarako egintza eskuordetuak 2022. urtearen amaieran argitaratuko dira, aurreikuspenen arabera. EBko Taxonomiaren helburua da, halaber, jarduera ekonomikoak gainerako ezein ingurumen helburutan kalte esanguratsurik ez duela eragiten eta gutxieneko berme sozialak betetzen dituela zehaztea.

Interes publikoko erakundea garen aldetik, EROSKItik gure jarduera eta produktuen hautagarritasuna lortu behar dugu 2021eko ekitaldirako, betiere EBko Taxonomiaren arabera, baita hautagarritasunaren aldagai ekonomiko-finantzarioen ehunekook ere.

Zehazki:

- Salmenten bolumenari dagokionez, guztizkoari dagokionez zenbateko ehunekoa datorren bat Taxonomiarekin.
- Gutzizkoari dagokionez, Taxonomiarekin bat datorren KapEx (kapital gastua) ehunekoa.
- Gutzizkoari dagokionez, Taxonomiarekin bat datorren ErEx (eragiketa gastua) ehunekoa.

Guztira 9 jarduera eta produktu hautagarri identifikatu dira klima-aldaketa leuntzeko ingurumen helburuaren barruan. Adibidez, energia efizientziako ekipoak jartzea, bero ponpa elektrikoak, plaka fotovoltaikoak, ibilgailu komertzial arinen renting-a edo datu zerbitzarien mantentze lanetan inbertitzea.

Jarraian, gure jarduera hautagarriak laburbiltzen ditugu, dagozkien aldagai ekonomiko-finantzario eta guzti.

I Taxonomia berdearen adierazle ekonomikoak

Jarduera hautagarriak	Taxonomiaren jarduera	Salmentak		KapEx	% KapEx	ErEx	% ErEx
Bero ponpa elektrikoak	4.16 Bero ponpa elektrikoaren instalazioa eta ustiapena					210.000	%0,17
Hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa	5.9 Hondakin ez-arriskutsuetako materialen balorizazioa	4.548.587	%0,10			3.933.981	%3,17
Ibilgailu komertzial arinen renting-a	6.5 Motozikleta, turismo eta ibilgailu komertzial arinen bidezko garraioa					1.607.677	%1,30
Eraikin berriak eraikitzea	7.1 Eraikin berriak eraikitzea			2.761.258	%1,25		
Lehendik dauden eraikinak eraberritzea	7.2 Lehendik dauden eraikinak eraberritzea			5.976.757	%2,72		
Energia efizientziako ekipoak jartzea	7.3 Energia efizientziako ekipoak jartzea, mantentzea eta konpontzea					2.155.727	%1,74
Eraikinen energia efizientzia neurtzeko, doitzeko eta kontrolatzeko ekipoak jartzea	7.5 Eraikinen energia efizientzia neurtzeko, doitzeko eta kontrolatzeko tresna eta gailuak jartzea, mantentzea eta konpontzea			52.042	%0,02		
Eguzki panel fotovoltaiakoak jartzea eta erostea	7.6 Energia berriztagarriko teknologiak jartzea, mantentzea eta konpontzea			69.000	%0,03		
Bezeroen datuak kudeatzea	8.1 Datuen prozesua, hosting-a eta lotutako jarduerak					1.348.121	%1,09
Jarduera hautagarriak, guztira (klima aldaketa arintzea)		4.548.587	%0,10	8.859.057	%4,02	9.255.507	%7,47

Hona hemen lortutako emaitzen alderdi garrantzitsuenak, laburtuta:

- Magnitude erlatibo​ei erreparatuta, Taxonomiaren hautagarritasunaren arabera salmenten ehuneko handiena duen produktu edo jarduera hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa da (gutzitzaoren % 0,10). Era berean, ErEx magnitudeari dagokionez, ehuneko handiena ere goian aipatutako jarduerari dagokio (gutzitzaoren % 3,17). Azkenik, KapEx magnitudearen kasuan, ehuneko handiena lehendik dauden eraikinak eraberritze​ari dagokio (gutzitzaoren % 2,72).
- Jarduera eta produktu hautagarrien gutzitzaokoei dagokienez, gutzitzaorekiko ehuneko handiena ErEx magnitudeari dagokion (% 7,47), atzetik KapEx magnitudea dator (% 4,03) eta, bukatzeko, salmenten ehunekoa (% 0,10).

2022. urtean informazio gehiago emango dugu ekitaldi osoan arautzen diren gainerako ingurumen helburuei buruz, eta Taxonomiak markatzen dituen jarduera ekonomikoak lerokatzeko hiru aldagaiak berrikusiko ditugu; hona hemen hiru aldagai horiek:

- Hautaketa irizpide teknikoak betetzea (funtsezko ekarpena).
- Gutxieneko berme sozialak betetzea.
- Taxonomiaren ezein ingurumen helburutan kalte esanguratsurik ez eragitea.

Memoriaren irismena eta prestatzeko printzipioak

102-45

EROSKIn, gure interes taldeei urtero aurkezten diegun jardunari buruzko informazioa hobetzeko eta zabaltzeko lan egiten dugu, erakundearen barruan eta kanpoan gardentasunarekin dugun konpromisoaren barruan. Horregatik, Global Reporting Initiative (GRI) erakundearen estandarretan oinarrituta egin dugu. Erakunde hori 1997an sortu zen, eta jasagarritasunari buruzko txostenetan munduan gehien erabiltzen den erreferentzia-esparrua da. Global Reporting Initiative erakundearen estandarretan jasotako irizpideak eta printzipioak aplikatzean, memoriaren kalitatea eta edukia gure interes taldeek espero dutenarekin bat etortzea bermatu nahi dugu, eta, horretaz gain, emandako adierazleak hurrengo urteetako gure emaitzekin eta beste erakunde batzuek aurkeztutako txostenekin alderatzeko aukera ematen digu.

Memorian hainbat sozietateri buruzko datuak bildu ditugu; hain zuzen ere, Informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzko 11/2018 Legearen eraginpekoenak. Hau da, Finantza egoera bateratuei buruzko I. eranskinean sartzen diren 23 sozietateak, integrazio globala dutenak, baina denek ez dute eragiten memorian jasotako alderdi ez-finantzario gutzietan. Finantza egoerei buruzko II. Eranskineko enpresak –sozietate elkartu ere esaten zaie– ez dira sartzen, ez dugulako kontrolik sozietate horien gainean, betiere Merkataritza Kodearen 42. artikulua​ren arabera ulertuta, eta, gainera, sozietate horietako gehienek ez dute langilerik eta ez dute inolako jarduerarik egiten. Horregatik, arrisku ez-finantzario​rik ez dutela jotzen da, eta dokumentu honetatik kanpo geratzen dira.

Honako taula honetan, Finantza egoera bateratuei buruzko I. eranskineko sozietateen xehakapena jaso da, adierazitako alderdi materialen taldeen arabera.

I EROSKI Taldearen sozietateak eta haien estaldura

Sozietatea	Alderdi ekonomikoak eta datuen babesa	Ingurumen alderdiak	Gizarte/lan/produktu-bezero alderdiak
EROSKI KOOP. E.	✓	✓	✓
CAPRABO, S.A.	✓	✓	✓
CECOSA HIPERMERCADOS, S.L.	✓	✓	✓
CECOSA SUPERMERCADOS, S.L.	✓	✓	✓
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, S.A.	✓	✓	✓
EROSKI HIPERMERCADOS, S.COOP.	✓		✓
FORUM SPORT, S.A.	✓	✓	✓
GRUPO EROSKI DISTRIBUCIÓN, S.A.	✓	✓	✓
PENINSULACO, S.L.	✓	✓	✓
VEGONSA AGRUPACIÓN ALIMENTARIA, S.A. y sociedades dependientes	✓	✓	✓
VIAJES EROSKI, S.A.U.	✓	✓	✓
APORTACIONES FINANCIERAS EROSKI, S.A.	✓		
CECOGOICO, S.A.	✓		
CECOSA DIVERSIFICACIÓN S.L.	✓		
CECOSA INSTITUCIONAL, S.L.	✓		
DESARROLLOS COMERCIALES DE OCIO E INMOBILIARIOS DE ORENSE, S.A.	✓		
DESARROLLOS INMOBILIARIOS LOS BERROCALES, S.A.	✓		
GESTIÓN DE PARTICIPACIONES FORUM, S.C.P.	✓		
INMOBILIARIA RECARÉ, S.A.U.	✓		
JACTUS SPAIN, S.L.	✓		
NEWCOBE​CO, S.A.	✓		
SOCIEDAD FRANQUICIAS EROSKI CONTIGO, S.L.	✓		
SUPRATUC2020, S.L.	✓		

Sozietate horietako batzuen ingurumen edo gizarte informazioaren berriak ez izatearen arrazoia da ez dutela langilerik edo kontsumitzaileekin zuzeneko jarduerarik, eta horregatik, ez dute inolako eraginik ez-finantzarioak diren alderdi horietan. Horretaz gain, EROSKI Fundazioak Tokiko komunitateen GRI-413 estandarrarekin lotuta egiten dituen ekintzei buruzko informazioa erantsi da.

Sozietate horietatik, honako hauek dira establezimenduen jabe direnak 2. kapituluak (merkataritza sarea eta "zurekin" ereduak) aurkeztu ditugun negozioetarako:

I Establezimenduen jabe diren sozietateak negozioaren arabera

Sozietatea	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Gasolin degiak	Aisia eta kirola	Bidaia agentziak	Optikak	Online dendak
EROSKI KOOP. E	✓	✓				✓	✓
CAPRABO, S.A.		✓	✓				✓
CECOSA HIPERMERCADOS, S.L.	✓		✓			✓	
CECOSA SUPERMERCADOS, S.L.		✓	✓				
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, S.A.		✓					
FORUM SPORT, S.A.				✓			✓
PENINSULACO, S.L.		✓					
VEGONSA AGRUPACIÓN ALIMENTARIA, S.A.	✓	✓	✓			✓	✓
VIAJES EROSKI, S.A.					✓		✓



Gure interes taldeak

102-40; 102-42

Gure jarduerak eraginak sortzen ditu hainbat interes taldeetan, eta alderantziz. Pertsona, talde, kolektibo eta elkarte horiek oso garrantzitsuak dira guretzat, elkarrenganako interakzio eta lankidetzak baitago, urteekin indartua eta landua. Hortaz, gure Gizarte Erantzukizuna garatuko badugu eta gure eraginak kontrolatuko baditugu, funtsezkoa da interes taldeak ulertzea, baita gure jarduera eta erabaki guztietan inplikatzeko ere. Gaur egun, gizarte eta enpresa testuinguruaren konplexutasuna eta dinamismoa direla eta, ezinbestekoa da interes talde guztiekin konpromiso sendo bat ezartzea, haien itzaropenak eta erronkak ezagutze aldera.

Hala, barneko interes taldeak eta kanpokoak bereizten ditugu. Barnekoak EROSKI Taldearen zati diren talde edo pertsonak dira, eta kanpokoak, gure bezeroak, zein gobernuak edo gizarte erakundeak:



Kanpoko interes taldeak:



Komunikazio mekanismo espezifikoak, eta interes talde bakoitzaren kasuan identifikaturiko funtsezko gaiak eta kezkak

102-44

Komunikazio mekanismo espezifikoak, eta interes talde bakoitzaren kasuan identifikaturiko funtsezko gaiak eta kezkak

Interes taldea	Komunikazio mekanismo espezifikoak	Funtsezko gaiak eta kezkak
Bezeroak eta Bazkide Bezeroak	Bezeroarentzako arreta zerbitzua (dendan, telefono bidez eta webgunean) EROSKI Club aldizkaria CAPRABOren Sabor aldizkaria Bezeroen poztasunari buruzko azterketak Bezeroei entzuteko programak Sustapen liburuxkak EROSKI aplikazioa Newsletterrak	Berrikuntza Araua betetzea Gizarte mailan arduratsua den enpresa Bezeroen segurtasuna eta osasuna Datuen babesa Produktuaren trazabilitatea Merkatuko lehiakortasuna Elikagaiak alferrik galtzea
Kontsumitzaileak	CONSUMER EROSKI aldizkaria eta www.consumer.es Elikadura Eskola (www.escueladealimentacion.es) Espainiako Herriarren Nutrizio Inkesta (ENPE) Sentsibilizazio kanpainak (osasuna, elkartasuna eta ingurumena) Erakunde publikoak eta kontsumitzaileen interesak zaintzen dituzten erakundeak (Kontsumobide, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua, AECOSAN eta abar) por los intereses de los consumidores (Kontsumobide, Consejo de Consumidores y Usuarios, AECOSAN, etc.) Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak	Bezeroarentzako arreta zerbitzua Merkatuko lehiakortasuna Bezeroen segurtasuna eta osasuna Kontsumo ohitura osasungarri eta jasan-garriak sustatzea Gizarte mailan arduratsua den enpresa Marketa eta etiketak Elikagaiak alferrik galtzea Produktuaren trazabilitatea
Langileak	Argitalpenak: Nexo, Néctar, La Parrapla, intranetak (Prisma, ForumNet), aktak, egoitzako jakinarazpenak Ebaluazio elkarrizketak Laneko kulturari buruzko inkestak Auditoretzak (Kode etikoa) Salaketa kanala	Araua betetzea Datuen babesa Laneko osasuna eta segurtasuna Bezeroen segurtasuna eta osasuna Enplegua Lana eta familia bateragarri egitea Ustelkeriaren aurka egitea Kudeaketa etikoa eta arduratsua
Bazkide langileak	Sozietatean parte hartzeko organoak Harrera eskuliburua Langileen berezko mekanismoak	Langileei dagozkien gaiak
Bazkide kontsumitzaileak	Sozietatean parte hartzeko organoak Newsletterrak Bazkide, bezero eta kontsumitzaileen mekanismoak	Kontsumitzaileei eta bezero bazkideei dagozkien gaiak
Enpresa Hornitzaileak	Hornitzaileentzako arreta zerbitzua Argitalpenak: Nexo Logística EROSKI Hitzarmenak ETEekin Lankidetzak hitzarmenak Sektoreko mahaiak Tokiko produktuak sustatzeko kanpainak Auditoretzak (kalitatearen kontrola...) Foro iraunkorrak eta behin-behinekoak	Ustelkeriaren aurka egitea Araua betetzea Produktuaren trazabilitatea Jardun ekonomikoa Lehia desleiala Merkatuko lehiakortasuna
Finantza erakundeak/ inbertitzaileak	Gobernu korporatiboaren txostena Urteko kontu bateratuen txostena Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak CNMVren eta EROSKiren webgunea	Berrikuntza Klima aldaketa Kudeaketa etikoa eta arduratsua Bezeroarentzako zerbitzua Enplegua
Ekintzaile frankiziatuak	Zurekin frankizian programa Zuzeneko komunikazioa Sareko Zuzendaritza Nagusiko Frankizia Zuzendaritzako langileekin	Merkatuko lehiakortasuna Tokiko hornitzaileak indartzea Bezeroarentzako arreta Inguruko gizartearen eta ekonomiaren garapena Produktuaren trazabilitatea Araua betetzea
Gobernuak eta enpresa komunitatea	Akordioak eta lankidetzak hitzarmenak Bilerak ordezkari publikoekin. Enpresa elkarteak eta kontsumitzaileen kooperatiben elkarteak (ACES, ANGED, AECOC eta abar). Beste enpresa batzuk	Kudeaketa etikoa eta arduratsua Klima aldaketa Genero berdintasuna eta dibertsitatea Enplegua Laneko segurtasuna eta osasuna
Hirugarren sektorea etabeste gizarte eragile batzuk	Bilerak hainbat erakundetako ordezkariekin EROSKI FUNDAZIOaren Batzorde Zientifikoa Unibertsitateak: hitzarmenak, bekak. GKEak: lankidetzak hitzarmenak, babesletza, jardunaldiak, standak	Irisgarritasuna Araua betetzea Elikagaiak alferrik galtzea Gizarte ekintza eta elkartasuna Gizarte mailan arduratsua den enpresa Enplegua

Materialtasunaren azterketa

102-43 - 102-44

GRI Standards-ek 2020ko Jasangarritasun Memoriaren edukiak definitzeko ezarritako printzipioei jarraituz materialtasun azterketa eguneratu egin dugu EROSKlrentzat eta haren interes taldeetarako garrantzitsuak diren gaiak sartu eta zehazteko.

2021. urtean, 2020an egindako materialtasun azterketaren emaitzak eguneratu ditugu, kanpoko interes taldeei egindako kontsultaren emaitzak sartzeko eta materialtasun bikoitzaren ikuspegia txertatzeko helburuarekin. Ildo horretan, ESG gaiak materialak zergatik diren aztertu dugu, betiere gizartean eta ingurumenean duten inpaktuaren materialtasunaren eta finantza materialtasunaren ikuspegitik begiratuta.

Azterketan, EROSKik ekonomian, ingurumenean eta gizartean dituen inpaktuak adierazteko garaian garrantzitsuak diren gaiak identifikatu ziren, baita interes taldeen erabakietan eragina duten gaiak edo ekonomian, ingurumenean eta/edo gizartean inpaktua eragiten dutenak ere.

2021ko materialtasun matrizea egiteko prozesua honako urrats hauei jarraituz egin dugu:

1. Gai materialak aztertzea eta identifikatzea. Gai potentzialki materialak (garrantzitsuak) identifikatzeko, 2020ko Memorian argitaratutako gai materialen zerrenda hartu dugu oinarri.
2. Gaien zerrenda lortu ondoren, lehentasunak zehaztu ziren, eta, horren ondorioz, EROSKlrentzat eta gure interes taldeetarako garrantzitsuenak diren gaien zerrenda osatu dugu. Gai bat epe ertain eta luzerako materiala den ebaluatzeko, barneko eta kanpoko faktoreen konbinazio bat hartu dugu kontuan. Erabiltako kontsulta metodo nagusia online inkesta izan da; 1.400 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute inkestetan. Materialtasunaren azterketan honako interes talde hauen beharrak eta itxaropenak jaso dira: plantilla, frankiziak, Bazkide Bezeroak, Bazkide Kontsumitzaileak, hirugarren sektorea, hornitzaileak, Administrazio Publikoa, enpresa komunitatea, inbertitzaileak eta komunikabideak.
3. Finantza materialtasuna gai materialen barne ikuspegian txertatu da, ESG gaiak gure negozio helburuak betetzen eta gure finantza emaitzetan zenbaterainoko eragina duten baloratzeko. Kasu honetan, EROSKik 2020an identifikatutako sektoreko arriskuak hartu ziren, alde batetik, eta bestetik, analista eta inbertitzaileek aplikatutako ESG irizpide nagusiak, hau da: SASB, MSCI, eta DJSIren Yearbook, finantza ikuspegi batetik begiratuta sektorerako estrategikoki garrantzitsuak diren gaiak identifikatzen dituzten aldetik.

4. Lortutako emaitzak berrikusi eta baliozkotu egin dira, materialtasunak EROSKlren jasangarritasunaren arloko jarduna modu arrazoizko eta orekatuan adierazten duela ziurtatzeko. Gainera, inpaktu positiboan eta inpaktu negatiboan ikuspegia lortzeko, ingurumen eta gizarte inpaktuaren materialtasunaren ikuspegia aplikatu zaie azterketatik atera diren gai materialei.

5. Ingurumenean eta gizartean duen inpaktuaren maila zehazteko, kabinete azterketa egin zen; honako alderdi hauek aztertu ziren: ESG arauen testuingurua, ESG arauak, legezko eskakizunak eta etorkizuneko araudia; sektoreko aitzindarien gai materialen azterketa, txosten ez-finantzarioetako estandarretan ezarritako irizpideak eta Garapen Jasangarriako Helburuak eta xedeak. Hiru inpaktu maila zehaztu dira (txikia, ertaina eta handia), eta matrizean jaso ditugu.

Aurtengo eguneratzean, gai material berri hauek identifikatu ditugu: Enpresa-langile elkarrizketa soziala eta marka korporatiboaren ospea bezeroari begira.

I Eroski materialtasun matrizea 2021

Arlo materialaren sailkapena

-  Konpromiso, Politikak eta Kudeaketa arduratsua
-  Bezeroak, kontsumitzaileak eta produktu erantzukizuna
-  Ingurumen kudeaketa
-  Enplegua eta lan harremanak

Garapen jasangarrian duen inpaktua:

-  Handia  Ertaina  Txikia

Eragina interes taldeen ebaluazioetan eta erabakietan	Handia	 Portaera etikoa, gardena eta arduratsua  Hondakinen kudeaketa zirkularra  Klima aldaketa eta baliabideen kontsumo arduratsua (materialak, energia eta ura)  Jarduera ekonomiko arduratsua  Gizarte ekintza eta inpaktua ingurunean  Jasangarritasuna eta trazabilitatea hornitzaileen katean  Kalitatezko enplegu egonkorra eta garapen profesionala  Bezeroarentzako harrera zerbitzua  Bezeroen osasuna eta segurtasuna  Tokiko hornitzaileen bultzada  Marketing eta etiketatze arduratsuko jarduerak  Elikagaien zarrastelkeria  Laneko segurtasuna eta Osasuna  Produktu lehiakorrak kalitate/prezioan	
	Ertaina	 Produktuen eta zerbitzuen ekodiseinua, jasangarriagoak izan daitezen  Dibertsitatea, berdintasuna eta inklusioa  Enpresa-langile elkarriketa  Eraldaketa digitala, datu pertsonalen babesa eta zibersegurtasuna  Markaren ospea bezeroari begira	
	Txikia		
	baja		media
Ekonomia, ingurumen eta gizarte inpaktuen garrantzia EROSKIra			

*EROSKlrentzat inpaktuen garrantzian kontuan hartzen dira gai materialen barne analisia eta finantza inpaktua

Gai materialen zerrenda eta horien estaldura

Jarraian ageri den taulan, gai garrantzitsuenak sartu dira, baita EROSKlren jarduerarekin lotura eta garrantzia duten gaiak ere. Taulan honako alderdi hauek laburbiltzen dira: gai materialaren inpaktua non gertatzen den (erakundea-ren barruan eta kanpoan), EROSKlren inplikazioa (zuzena eta zeharkakoa), gaia zergatik den materiala EROSKlrentzat eta, azkenik, inpaktu probabilitatea sintetizatu dugu, EROSKI, bere eraldaketa gaitasunaren bitartez, ingurunean duen inpaktuarekin batera.

Gai materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKlren inplikazioa	Gai materialaren definizioa	Inpaktua ingurumenean eta gizartean
Bezeroarentzako arreta zerbitzua GRI 102; 416; 417	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Bezeroaren ahalik eta gogobetetze maila handiena lortzeko diseinutako estrategia, elkarrenganako konfiantzan oinarritutako harremana izanik honako hauen bitartez: langile adituak, tratu gizatiarra, kalitate gorena, arreta pertsonalizatua, berehalakotasuna eta jasangarritasunaren aldeko apustua.	Inpaktu ertaina kontsumitzaileengan, haien beharrei erantzuten baitie produktu eta erosteko sistema gogokoenari dagokienez (erosketa esperientzialak, online eta abar); kolektibo kalteberen (seniorrak, esaterako) beharrei erantzutea ahalbidetzen du, eta kalitatezko kontsumo jasangarria sustatzen dute.
Bezeroen segurtasuna eta osasuna GRI 416	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Produktu osasungarriagoak eta dieta berezietara egokitutako produktuak eskaintzea, behar adinako aniztasunarekin eta hornikuntzarekin, bezeroen osasuna bermatzearen. Establezimenduak seguruak izatea bezeroentzat, agintariak eskatzen dituzten higiene neurriak zorrotz betez.	Inpaktu handia bezeroen osasunean eta segurtasunean, EROSKl herriartarengana heltzeko gaitasuna duenez banatzen dituen produktuen bitartez eta lantokiaren bitartez; lantokietan segurtasuna kontrolatzeko eta kalitateko bermeak ezartzen dira, batik bat, elikagaien eta higiene pertsonaleko produktuen kasuan.
Kalitate-prezio produktu lehiakorrak	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Prezio lehiakorrak eta kalitate estandar handiak dituzten produktuen aniztasuna bermatzera bideratutako lehiakortasun estrategia.	EROSKlko produktuen kalitate/prezio erlazioak inpaktu handia du bai gizartearen garapenean, oinarritzko produktuak direlako, bai ingurumenaren garapenean, ekoizpeneko eta banaketako fasean duten inpaktuagatik.
Tokiko hornitzaileak indartzea GRI 204	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Tokiko erosketa praktikak, gertuko hornitzaileei laguntzeko ikuspegitik begiratuta.	EROSKlren jarduerak inpaktu handia du gai horretan, jarduten duen komunitateetako ekonomiaren eta gizartearen garapena sortzeko gai baita hornidura kateak bultzatuta. Horrelako hornitzaileengana iristeak eta azken kontsumitzailearekin harremana izateko gaitasunak bultzatzea dezanek merkatua tokiko produktuetarako.
Marketineko eta etiketatutako arduratsuko jardunbideak GRI 417	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Irizpide etikoak eta erantzukizunekoak marketineko jakinarazpen mota guztietan eta, bereziki, produktuei buruzko informazioa ematean (etiketan).	Inpaktu ertaina, kontsumitzaileei erabaki informatuak eta beren beharren arabera erabakiak hartzen laguntzeko gaitasuna duelako, baita enpresa arduratsuei, elikagai osasungarriagoei edo elikadura murritzetei balioa eta ikusgaitasuna emateko ere.

Gai materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKlren inplikazioa	Gai materialaren definizioa	Inpaktua ingurumenean eta gizartean
Elikagaiak alferrik gaitzea GRI 306	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Ekoizpenean sortutako hondakinak behar bezala kudeatzea. Hondakina hasieratik kentzea eta geratzen denari erabilera alternatiboak aurkitzea, hondakinen aztarna murrizten jarraitzeko teknologia eta prozesuak garatuz eta bilatuz. Produktuen "bizitza zikloa iteko" printzipioan oinarritutako ekoizpeneko eta kontsumoko eredu konpromiso hori betetzeko lagungarri da	Inpaktu handia, ekoizpenean, banaketan, packagingean eta osagaietan hondakinak sortzen direlako eta azken kontsumitzailearengana iristeko gai delako, ohitura jasangarriagoak sustatze aldera.
Elikagai-hondakinak GRI 306	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Plangintza elikagaien stockaren kudeaketan, kontserbazio egokian eta manipulatzeko jardunbide egokietan, kontsumitzaileen kontzientziazioa barne.	Hondakinak murrizteko ezarritako neurrien inpaktua handia da bai eragiketetan, bai kontsumitzaileen artean eta hornidura katean ohitura onak sustatzen
Laneko segurtasuna eta osasuna GRI 403;404	Erakunde barruan	Zuzenekoa	Lanaren ondoriozko arriskuen prebentziorako neurriak aplikatzea eta beharrezkoak diren jarduerak garatzea, osasunean edo osotasunean eragina izan dezaketen gertakariak eta kalteak saihestuta. Lan ingurune segurua indartzea.	Inpaktu handia du, bere lantokietako jardueragatik eta bere balio katean traktio ahalmena duelako. Lan ingurune segurua indartzeak inpaktu positiboa dakar gai horretan.
Aniztasuna, berdintasuna eta inklusioa GRI 405;406	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Meritokraziako, errespetu eta errekonozimenduko, konpentsazioko, jardunera eta aurrerabidera bideratutako irizpideak aplikatzea, aukera berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa bermatzearren konpainian.	Inpaktu handia ordezkaritza txikieneko kolektiboen enplegarritasunean, eta gutxiengo jakin batzuetarako produktu espezializatuen eskaintzeagatik, berdintasuna eta inklusioa sustatuz
Jokabide etiko, garden eta arduratsua GRI 101; 205	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Enpresa portaera etiko eta arduratsua garatzea, eta neurriak hartzea gardentasuna sustatzeko, araudia betetzeko eta ustelkeriari eta edozein delitu motari aurrea hartzeko.	Arau eta estandar guztietan, interes taldeekin gardenak izatera bultzatzen dira enpresak, beren jardunaren kontu eman dezaten, hobekuntza prozesuak ezarri, eta konfiantzako harremanak izan ditzaten. Inpaktu handia du
Klima aldaketa eta baliabideen (materialak, energia eta ura) kontsumo arduratsua GRI 301; 302; 305	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Klima aldaketaren aurkako eta isurketak murrizteko ekintzak, baliabide energetikoen erabileran kontsumo arduratsua eta efizientzia aintzat hartuta, betiere konpainiak bere behar operatiboak eta ekoizpeneko beharrak ingurumena errespetatuko duten irizpideei jarraituz betetzeko moduan, arriskuak kudeatuta eta bere jardueraren ingurumen arriskuak minimizatuta; materialen kontsumoa optimizatzea eta ingurumenaren aldeik jasangarriak diren materialak erabiltzea.	Inpaktu handia, balio kate osoan duen aztarna klimatikoagatik, eta inpaktua minimizatze gaitasunagatik, baliabideak modu arduratsuan kontsumitzeko, energia efizientziako eta traktzio ekintzen bitartez balio katearekin. Gainera, kontsumitzaileenganako irismen handia du.
Jardun ekonomiko arduratsua GRI 201	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Ekonomikoki hazkunde iraunkor eta jasangarria izatea enpresaren garapenerako	Inpaktu handia du, inpaktu ekonomikoa sortzeko eta aberastasuna birbanatzeko gaitasuna duelako interes taldeekin (langileak, hornitzaileak, inbertitzaileak...) eta presentzia duen komunitateetan.

Gai materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKlren inplikazioa	Gai materialaren definizioa	Inpaktua ingurumenean eta gizartean
Eraldaketa digitala, datu pertsonalen babesa eta zibersegurtasuna GRI 418	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Enpresaren hainbat arlotan teknologia berriak txertatzea, prozesuak optimizatze, lehiakortasuna hobetzeko eta joera berrietara egokitzeko, betiere bezeroei balio erantsia eskainiz; eta, aldi berean, bezero eta hornitzaileen datu pertsonalak behar bezala babesten direla bermatzea, baita datu horien konfidentziasuna ere.	Inpaktu ertaina, interes talde guztien datuak babesten direla bermatzea garrantzitsua denez, batik bat, sustapen ekintzetan. Digi-talizazioari dagokionez, gizartearen garape-nean duen inpaktua txikia da.
Gizarte ekintza eta inpaktua ingurunean GRI 413	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Tokiko komunitateen beharrei modu aktiboan erantzuteko baliabideak. Hartara, komunitate horien garape-nari eta enplegarritasunari laguntzen zaio, gizarte ongizatea hobetuz eta boluntariotzako ekintzak sustatuta inplikatuz.	Balio sozio-ekonomikoa sortzen inpaktu handia du, herriarren oinarritzko beharrak betetzen dituelako kalitate prezio baldintzetan. Gainera, tokiko enplegua sortzen duen eragilea da, sakabanatutako lurraldeetara ere iristen dena, eta aberastasuna ere sortzen du, hornitzaileekiko ekintza dela eta.
Jasangarritasuna eta trazabilitatea hornitzaileen katean GRI 308; 414	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Erantzukizuna hornitzaileekin hornidura katean ezarritako harremanetan, irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak aintzat hartuta, eta garapen jasangarriaren arloan jardun hobea bultzatzeko lan eginez, giza eskubideen errespetua barne hartuta.	EROSKlren jarduerak inpaktu handia du gai horretan, bere hornitzaileen jardueran traktzio eragiteko gaitasuna duelako hornitzaileen artean jokabide jasangarriak sustatzearren, eta merkatua eskubide sozialak eta ingurunea gehiago errespetatzen dituzten produktuetara zabaltzearren.
Enplegu egonkorra, kalitatekoa eta lanbide garapena GRI 401	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Enplegu egonkorriak eta kalitatezkoak sortzea, tokiko garapena sustatzen duten kontratazioko eta soldatei buruzko politikak ezarrita. Profesionalen prestakuntza, espezializazioa eta garapena, haien trebetasunak hobetzeko eta baliabide onenak haien esku jartzeko, lantalde kualifikatua izatearren.	EROSKl inpaktu handia du, bere langileen artean kalitatezko enplegua sortzeko gai delako, sakabanatutako guneeetan eta askotariko kolektiboetan lana sortzea ere barruan hartuta. Gainera, gaitasun hori balio katera ere zabaltzen da, harreman komertzialen bitartez.
Produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, jasangarriagoak izan daitezzen GRI 301	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Ekodiseinuko, birziklagarritasuneko eta lehengaiak txertatzeko neurriak packagingean, ingurunean ahalik eta inpaktu negatibo txikiena eragiteko. Produktuak ontziratze eta biltzeko beharrezkoak diren materialen kudeaketa arduratsua.	Inpaktu ertaina, kontsumo handiko banatzailea denez eta irismen handia duenez bere produktuen bitartez.
Markaren ospea bezeroari begira	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Marka estrategiaren oinarri diren zutabe estrategikoak indartzea, honako alderdi hauek aintzat hartuta: markaren ospea, helburua, misioa, ikuspegia eta balioak, edo merkatuan duen posizionamendua, besteak beste.	Markak bezeroei dagokien ez duen ospearen inpaktua txikia da, ez duelako kalterik eragiten ingurunean edo pertsonengan
Enpresa-langile elkarizketa	Erakunde barruan	Zuzenekoa	Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa bermatzea, eta enpresaren eta langileen artean elkarizketa arina antolatzea, antolamenduko aldaketei dagokienez.	Enpresaren eta langileen artean elkarizketarako mekanismoak ezartzeak inpaktu ertaina du langileen bizi kalitateandos.

Adierazleen kalkuluari buruzko informazio osagarria

Adierazlea	Irismena	Kalkulatzeko metodologia / Iruzkina​k
Zuzeneko langileei buruzko informazioa	EROSKI Taldea	Zuzeneko langileen eta bazkide langileen kopurua 2021ko ekitaldiko azken hilabete​an (2022eko urtarila) erregistratutako datuen batez bestekoa da.
102-8; 405-1		Kontratu motaren, lanaldiaren, adinaren, generoaren eta kategoria profesionalaren arabera​ko ehunekoak 2022eko urtarilaren 31ko (ekitaldiaren amaiera) datuei dagozk​ie. Ehuneko horiek guztira adierazitako langile kopuruari (28.353) aplikatu zaizkie.
		Txandakatze kopurua eta indizea erakundea honako arrazoi hauengatik utzi duten langileei dago​kie: beren borondatez, kaleratzeagatik, erretiroagatik edo heriotzagatik.
Ordainsariei buruzko informazioa 102-34; 102-35; 102-36; 102-37; 102-38, 102-39; 202-1; 405-2	EROSKI Taldea	EROSKI Koop. E.-ri eta Taldeko gainerako sozietateei buruzko informazioa eskaini da, ordainsariarekin lotutako alde​en arabera bereizita. Emandako datuak 2021 urte naturaleko ordainsari finkoari dagozkio, eta Bazkide eta langile finko​ei buruzkoak baino ez dira.
		EROSKI Koop. E.-ko Kontsumo Gordinaren Aurrerapenari buruzko datuak erabiltzen dira, eta gainerako sozietateetako urteko ordainsari gordinari buruzkoak. Kontsumo Gordinaren Aurrerapena honako hauen arteko batura da: ordainsari garbiaren eta PFEZ atxikipenen (Gizarte Segurantzari eginiko ekarpenak gehitu gabe) artekoa.
		Ibex 35eko enpresekin alderatzeko erabilitako datuak Primero de Mayo fundazioak 2019ko ekitaldiko gobernu korporatiboaren adierazleen txostenetik atera dira (2021ean argitaratu zen).
Istripu tasari buruzko informazioa eta LAPI buruzko prestakuntza 403-2; 404-1	EROSKI Taldea	2021 urte naturaleko datuak.
Materialak 301-3	EROSKI Taldea	SCRAPSi egindako deklarazioetako datuak 2021 urte naturalari dagozkio.
Ontziak eta bilgarriak 301-3	EROSKI Taldea	Marka propioaren elikagaietako eta freskoetako ontzien material kopurua kalkulatzeko, brick ontziak honela bereizten ditugu: ontziaren pisuaren % 75 papera, % 20 plastiko konbentzionala eta % 5 metala. Gainera, birziklatutatz jotzen den brickaren %-a birziklatutako papera/kartoiaren barruan sailkatzen dugu.
Berrerabilitako ontzi logistikoak 301-3	EROSKI Taldea (elikadura arloa)	2021ko ekitaldian EROSKI, CAPRABO eta VEGALSA-EROSKlren plataformetan erabilitako paletei eta plastikozko kaxe​i buruzko datuak.
Erakundearen energia kontsumoa 302-1	EROSKI Taldea	Ez dago erabileren arabera xehakaturiko elektrizitate kontsumoari buruzko daturik. - Kilowatt ordua Megajoule bihurtzeko: 1 kWh = 3,6 MJ. - Erregai kontsumoa garraio eragiketetan (Iturria: EROSKIk berak egindako estimazioak, flotaren arabera). - Gasolio litroak Gigajoule bihurtzea (Iturria: Isurpen faktoreak. Karbono aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak. MAPAMA, 2019): - Dieselaren dentsitatea: 832,5 kg/m3 - Dieselaren bero ahalmena: 43 GJ/
Energia intentsitatea 302-3 BEG isuri​en intentsitatea 305-4	EROSKI Taldea	Erakundearen energia kontsumo erlatiboa eta isuriak kalkulatzeko erabilitako adierazleak: - Merkataritza azalera: 1.189.010 m² (2022eko urtarilaren 31n) - Salmenta garbiak: 4.541 milioi euro

Adierazlea	Irismena	Kalkulatzeko metodologia / Iruzkina​k
Ur kontsumoa iturriaren arabera 303-1	EROSKI Taldea	2021ko ekitaldiko kontsumoa kalkulatzeko edateko uraren gastutik abiatu gara. Ez dago EROSKI hornitzen duten udalerriek ura ateratzeko erabiltzen dituzten iturri guztien erregistrorik.
Ur isuriak 303-4	EROSKI Taldea	Estimazioen arabera, isuritako ura kontsumitutako ur edangarriaren % 99 da.
Biodibertsitatea 304-1	EROSKI Taldea	Informazio iturria: Trantsizio Ekologikorako Ministerioa. Honako babes figura hauek aztertu dira: - NB (Naturagune Babestuak) - IBA (Espainiako hegaztien eta biodibertsitatearen kontserbaziorako ga rrantzitsuak diren eremuak) - Natura 2000 Sarea (BGL, KBE eta HBBE) - Biosferaren Erreserbak IEZH (Espainiako Hezegunee​n Inbentarioa)
Erakundetik kanpoko energia kontsumoa GRI 302-2 BEGen zuzeneko isuriak (1. irismena) 305-1 BEGen zeharkako isurkiak energia sortzean (2. irismena) 305-2 BEGen zeharkako beste isuri batzuk (3. irismena) 305-3	EROSKI Taldea	Ikusi taula "Karbono-aztarna kalkulatzeko isurketa-faktoreak".
BEG isuriak murriztea GEI 305-5	EROSKI Taldea	2017a hautatu da berotegi efektuko gasen isurketen murrizketak aurkezteko oinarrizko urtetzat, GRI irizpideen arabera egin dugun lehen jasangarritasun memoriaren ekitaldia delako, eta gure. Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 konpromisoak argitaratu aurreko urtea delako.
Hondakinak 306-1; 306-2	EROSKI Taldea	Txosten honetan aurkezturiko EROSKIk sortutako hondakinak kudeatzaille espezializatuek tratatutakoak dira, eta kasu gehienetan aplikatuko den tratamendua birziklatzea eta berreskuratzea izateko irizpidearekin hautatuak. CAPRABOk udal zerbitzuen bitartez kudeatzen ditu, oro har, hondakin organikoak. Nafarroako dendetan, aitzitik, badute alderantzizko logistika zerbitzua. Autonomia erkidego horretako datuak ere jaso dira txosten honetan emandakoetan.
Bezeroek utzitako hondakinak 306-1; 306-2	EROSKI Taldea	Pilen, argien, gailu elektriko eta elektronikoen, eta ehungaien datuak 2021 urte naturalari dagozki.
Dohaintzan emandako 413-1; 413-2	EROSKI Taldea	Txosten honetan aurkezturiko EROSKIk sortutako hondakinak kudeatzaille espezializatuek tratatutakoak dira, eta kasu gehienetan aplikatuko den tratamendua birziklatzea eta berreskuratzea izateko irizpidearekin hautatuak. Niños del Mundo Federazioari emandako logistikako kaxa bakoitzeko 300 euroko balioa kalkulatzen da. CAPRABOk udal zerbitzuen bitartez kudeatzen ditu, oro har, hondakin organikoak. Nafarroako dendetan, aitzitik, badute alderantzizko logistika zerbitzua. Autonomia erkidego horretako datuak ere jaso dira txosten honetan emandakoetan.
"Zero hondakin" programaren bidez dohaintzan emandako elikagaiak 413-1, 413-2	EROSKI Taldea	1,06€ PVP = oinarrizko elikagaien 1kg bihurteta faktorea erabili da zero hondakin tonak kalkulatzeko, FESBAL erakundeak adierazitako irizpideari jarraikiz. Aurreko ekitaldietan, 1€=1kg bihurteta faktorea erabili izan da. 1 kg = 3 otordu bihurteta faktorea erabili da, FESBAlekin adostuta (ia​z, 10 euro = 20 otordu faktorea erabili zen).
CONSUMER EROSKI aldizkariaren irakurleak	Aldizkariaren argitaraldi osoa	Aldizkari bakoitza batez beste 2,5 pertsona irakurtzen dutela jo da, eta hileko 126.810 ale inprimatzen dira.
Finantza Jasangarrien Taxonomia	EROSKI Taldea	EROSKI Taldearen guztizko ErEx magnitudeari dagokionez, gastu hauek sartu dira: errentamendu operatiboak, ikerketa eta garapena, eta konponketak eta kontserbazioa.

Karbono-aztarna kalkulatzeko isurketa-faktoreak

	Energia iturria	Faktorea	Informazio iturria
1. irismena	Garraio logistikoko gasolioa	2.456 kg CO ₂ /L B7	Isurpen faktoreak. Karbono aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak 2020. MITECO, 2021
	Gas natural konprimatua	0,182 kg CO ₂ /kWh PCS	Isurpen faktoreak. Karbono aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak 2010. MITECO, 2021
	Itsas garraioa		Itsas garraioko enpresak emandako
	Berokuntzarako gas naturala	0,202 kg CO ₂ / kWh PCI 1 kWh PCI = 0,901 kWh PCS	Isurpen faktoreak. Karbono aztarnaren erregistroa, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak 2020. MITECO, 2021
	Hozgarriak		IPCC 2013, CMLn jasotzen denez, 2016ko abuztuko bertsioa. Nahasteetarako, hozgarrian gas bakoitzak duen proportzioaren arabera kalkulatu da
2. irismena	Elektrizitate	Mix nacionala: 0,25 kg CO ₂ / kWh Mix merkaturatzaileak EROSKI: 0,15 kg CO ₂ /kWh	Elektrizitatearen etiketatuari buruzko akordioa, 2020. urtean sortutako energiari dagokionez, CNMC, 2021ko apirilean argitaratua.
3. irismena	Diesel	0,455 kgCO ₂ /L	Ecoinvent: Diesel {Europe without Switzerland} market for Cut-off, S
	Kerosenoa	0,437 kgCO ₂ /L	Ecoinvent: Kerosene {Europe without Switzerland} market for Cut-off, S
	Hegazkin. lan bidaien isuriak	0,143kgCO ₂ /km	Ecoinvent: Transport, passenger, aircraft {RER} Intracontinental Cut-off, U
	Hegazkin. lan bidaien erreg.	0,0552L de queroseno/km	Ecoinvent: Transport, passenger, aircraft {RER} Intracontinental Cut-off, U
	Auto. lan bidaien isuriak	0,176 kgCO ₂ /km	Ecoinvent: Transport, passenger car, medium size, diesel, EURO 5 {RER} Cut-off, U
	Auto. lan bidaien erreg	0,06684 L/km	Ecoinvent: Transport, passenger car, medium size, diesel, EURO 5 {RER} Cut-off, U
	Furgoneta lan bidaien isuriak	1,25 kgCO ₂ /km	Ecoinvent: Transport, freight, light commercial vehicle, Europe without Switzerland} processing Cut-off, U
	Furgoneta lan bidaien erreg.	0,38452 L/km	Ecoinvent: Transport, freight, light commercial vehicle, Europe without Switzerland} processing Cut-off, U
	Tren. lan bidaien isuriak	0,00718 kgCO ₂ /km	Ecoinvent: Transport, passenger train {FR} processing Cut-off, U
	Tren. lan bidaien erreg	Diesel: 0,00269 L/km Electricidad: 0,05726 kWh/km	Ecoinvent: Transport, passenger train {FR} processing Cut-off, U
	Ura	0,295 kgCO ₂ /m ³	Ecoinvent: Tap water {Europe without Switzerland} tap water production, conventional treatment Cut-off, U
	Publizitate liburuxketako papera	Paper iztukatu arina: 1,11 kgCO ₂ / kg Paper satinatua: 1,11 kgCO ₂ /kg Birziklatutako LWC papera: 1,63 kgCO ₂ /kg Paper iztukatua bolumena: 1,11 kgCO ₂ /kg Pasta kimikoko papera: 1,77 kgCO ₂ /kg Soilik inprimatzeko: 0,692 kgCO ₂ / kg	Paper motaren arabera faktore bat edo beste erabiltzen da. Ecoinvent: Paper, woodfree, coated {RER} market for Cut-off, S Ecoinvent: Paper, woodfree, coated {RER} market for Cut-off, S Ecoinvent: Paper, woodcontaining, lightweight coated {RER} market for Cut-off, S Ecoinvent: Paper, woodfree, coated {RER} market for Cut-off, S Ecoinvent: Chemi-thermomechanical pulp {GLO} market for Cut-off, S Ecoinvent (modificado): Printed paper, offset {RoW} offset printing, per kg printed paper Cut-off, S
	Aldizkarietako papera	2,09 CO ₂ /kg	Ecoinvent: Printed paper, offset {RoW} offset printing, per kg printed paper Cut-off, S

Txosten-esparru nagusiekiko korrespondentzia

102-12

Mundu Itunaren printzipioak eta GJH

Hurrengo taulan, txosten honetako GRI adierazleak erakusten ditu; hain zuzen ere, Mundu Itunaren 10 printzipioak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeari buruzko informazio garrantzitsuena ematen duten adierazleak.

Taulako aurkibideari erreparatuta, EROSKiren aurrerapen maila zenbatekoa den ebaluatu daiteke, aipatutako printzipioei dagokienez.

	Mundu Itunaren printzipioak	GJH	GRI estandar garrantzietsuenak
Giza Eskubideak	1.Enpresek nazioartean onartutako oinarritzko giza eskubideak babestu eta errespetatu behar dituzte, beren eragin eremuan.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 16, 17	Segurtasunaren arloko jardunbideak: 410-1 Herri indigenen eskubideak: 411-1 Giza eskubideen ebaluazioa: 412-1 Tokiko komunitateak: 413-1, 413-2
	2. Enpresek ziurtatu behar dute beren enpresak ez direla giza eskubideen urraketen konplize.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 16, 17	Giza eskubideen ebaluazioa: 412-3 Hornitzaileen gizarte ebaluazioa: 414-1
Lan arloko arauak	3.Enpresek afiliazio askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen benetako aitortza babestu behar dituzte.	1, 3, 5, 8, 9, 10, 16, 17	Negoiazio kolektiboko akordioak: 102-41 Langileak-enpresa harremanak: 402-1 Elkartzeo askatasuna eta hitzarmen kolektiboak: 407-1
	4.Derrigorrez edo behartuta egindako lan mota oro desagerrarazten lagundu behar dute enpresek.	1, 3, 5, 8, 9, 10, 16, 17	Derrigorrezko edo nahitaezko lana: 409-1
	5.Enpresek haurren lana desagerrarazten lagundu behar dute	1, 3, 5, 8, 9, 10, 16, 17	Haurren lana: 408-1
	6. Enpleguan eta okupazioan bazterkeriako jardunbideak deuseztatzen lagundu behar dute enpresek.	1, 3, 5, 8, 9, 10, 16, 17	Enplegatu eta langileei buruzko informazioa: 102-8 Presentzia merkatuan: 202-1, 202-2 Enplegua: 401-1, 401-3 Prestakuntza eta irakaskuntza: 404-1, 404-3 Aniztasuna eta aukera berdintasuna: 405-1, 405-2 Bazterkeriarik eza 406-1
Ingurumena	7. Ingurumenari mesede egingo dion prebentzio ikuspegia izan beharko dute enpresek.	2, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 17	Materialak: 301-1, 301-2, 301-3 Energia: 302-1, 302-2, 302-3, 302-4 Ura: 303-1 Isuriak: 305-1, 305-2, 305-3, 305-4, 305-5, 305-6 Efluentek eta hondakinak: 306-1, 306-2, 306-3, 306-4, 306-5
	8.Ingurumen erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak sustatu behar dituzte enpresek.	2, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 17	Materialak: 301-1, 301-2, 301-3 Energia: 302-1, 302-2, 302-3, 302-4 Isuriak: 305-1, 305-2, 305-3, 305-4, 305-5, 305-6 Efluentek eta hondakinak: 306-1, 306-2, 306-3, 306-4, 306-5 Ingurumen arloko betetzea: 307-1 Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa: 308-1
	9. Ingurumena errespetatzen duten teknologiak garatzen eta zabaltzen lagundu behar dute enpresek.	2, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 17	Energia: 302-4 Isuriak: 305-1, 305-2, 305-3, 305-4, 305-5, 305-6 Efluentek eta hondakinak: 306-1, 306-2, 306-3, 306-4, 306-5
Ustelkeriaren aurka egitea	10.Enpresek ustelkeria mota guztien aurka lan egin behar dute, estortsioa eta eroskeria barne.	3, 10, 16, 17	Balioak, printzipioak, estandarrak eta jakabide arauak: 102-16 Ustelkeriaren aurka egitea: 205-1, 205-2, 205-3 Politika publikoa: 415-1

TFCDren gomendioei dagozkien edukien taula

IEFE honen edukia bat datoz Finantza Egonkortasuneko Kontseiluaren Task Force on Climate-Related Financial Disclosures (TFCD) gomendioekin; dena den, 2022. urtean, klima aldaketarekin lotutako arriskuak identifikatzeko eta kudeatzeko alderdietan sakontzen jarraituko dugu. Aurkibide honetan

